



Teodoro Mujika

Errekaldeko intxaurraren itzala



Errekaldeko intxaurraren itzala

Auspoa Liburutegia
235



SENDOA ARGITALDARIA

Ugaldetxo

Tels. (943) 49 35 51 - 49 35 52 - 49 35 53

Fax (943) 49 35 48

20180 OYARZUN (Guipúzcoa)

Teodoro Mujika

Errekaldeko intxaurraren itzala

Auspoa Liburutegia
(1996)

© SENDOA ARGITALDARIA

ISBN: 84-89080-35-6

Legezko Gordailu: Na.: 196-1996

Imprimaketa: Gráficas Lizarra, S.L. Lizarra

Sarrera

Ez nuen liburutxo bat argitaratzeko ametsik ere egiten: bañan Zizurkilko Aita Migel Otegi Txinako mixiolaria zanarekin egin nuen izketalditxo batean, 1967-an, aldi artan bera onera etorria baitzan bixita egitera, gertakizun edo ixtori txiki batzuek kontatu nizkion, eta ondoren onela mintzatu zitzaidan:

- Zuk badaukazu liburutxo bat argitaratzeko aintzat ixtori eta bertso, eta lan ortan saiatu bear zeneduke.

Nerekiko auxe esan nuen:

- Lan ortarako nik daukadan aalmen gutxi onekin, egingo ote det itxurazko gauzarik?

Ezin nuen asmatu nundik asi, nola segi eta zertan bukatu. Bañan egun batez zerbait egiten astea pentsatu nuen, okerxeago aterako bazitzaidan ere; eta neronen alton-amonen bizikeraz zerbait idazten asi nintzan.

Lenengo lantxo ori egin nuenean, irakurri eta ulertzeko eran zegoela iruditu zitzaidan, lenengo eta irugarren maillara irixten ez bazan ere.

Ondoren, beste gaitxo bat artuz eta geroxeago

bestea, apurka-apurka, liburutxoak egiteko ainbat lan osatu zitzaidan, eta euskerazko liburuak argitaratzen ari zaigun Aita Antonio Zabalaren eskuetan jarri nituan. Onek ontzat artu zizkidan, *Auspoa*-ren saillean argitaratuko zuela liburua itz emanez; eta alaxe gertatu da.

Ara, beraz: norbaitzuen gogoko izango dalakoan, borondaterik onenarekin saiatu gera lan txiki au egiten.

Zizurkil, Asteasu eta Adunakoak dira liburu ontako gertakaririk geienak. Neroni zizurkildarra naitenez, erri oien ixtoria geienbat buruan sartu zitzaidan errezen kontatzeko eran; eta erri oiek arreman bereziak izanak dira gañera, alkarren urbil daudelako.

Adibidez, azpimarkatzekoak dirala uste det Otañotarren eta Elizegitar bertsolarien tratuak. Eta nola ixilduko genduen Juan Joxe Ugarte bat, Pello Errotarekin ainbat bertso saio eder egindako gizona ere?

Bertso baratza zoragarria zan noski, garai batean, erri oien artean osatzen zutena.

Orregatik, ixtoriz eta bertsoz osatua agertuko zaigu liburutxo au.

Zure gogokoa izango dalakoan, agur gozo bat eta ongi iritxia izan dedilla zure eskuetara, irakurle.

Egilleak

Iru erri maitagarri

Mendi tontor batetik Asteasu, Zizurkil eta Adunari begira.

1 Iru erritxo maitagarriak
gain gozo ta ederrian,
eguzkiaren begiak gogoz
jotzen ditu aurpegian.
Irurak lagun paregabeak
eta paraje berian,
Asteasu ta Adunarekin
Zizurkil dago erdian.

2 Ezker-eskubi dauzkazu beti
Aduna ta Asteasu,
oien babesak gordetzen zaitu
goxoki eta paketsu.
Bata goiztarra dezu laguna,
bestea arratsaldetsu,
eta, Zizurkil, bien arteko
egun erdian zaude zu.

- 3 Ezerezetik sortu gindunak
izan du gutzaz erruki,
arantz artean arrosik gabe
ez ginduzen nai eduki,
iru zatitan osatzen zaigun
eguna bezin egoki,
lorategi au egin baizigun
biotzen atsedentoki.
- 4 Paraje onen edertasunak
ez al digu ba esaten,
askotan gure biotz astuna
nola arindu dezaken?
Kabitxo maite, utzi gizonei
zure gozoan etzaten,
samin guztien artean zugan
atseden senti dezaten.
- 5 Zuen belardi zabal oietan
dagoen jantzi apaiña
berezia da, leku askotan
ditugu ederrak baiña.
Gizon geraden bezela baldin
tximelet izan bagiña,
guretzako zu izango ziñan
berdin gabeko jardiña.
- 6 Bildots txiki bat bere amaren
inguruan bezin umil,
txoko maitea, gabiltz gu ere
beti zuregandik urbil.
Biotz erdiko Asteasu ta
Adunarekin Zizurkil,
zuen altzoan sortu giñaden
ta alaxe nai degu il.

Joxe Bernardo Otaño

Inguru ontako ainbat euskaldunek dakigunez, Pedro Maria Otañoren osaba eta Zizurkilko Errekalde baserriko nagusia zan goian aipatzen degun gizon au.

Izketan gutxi bezelako egokia eta bertsolari dotorea, gure gurasoak aitortzen zutenez eta bere bertso ala ateraldiak adierazten digutenez.

Inazia Odriozola zuen bere emazte maitea. Iru seme eta bost alabaren guraso izatera iritxi ziran. Seme oietako bat Beizamako apaiz eta erretore izan zan. On Frantzisko Otaño bere izen-abizenak. Au, ezagutu zuten beizamatarrak aitortzen digutenez, gizon on puska bat.

Senide geienak ziran iztun patxarakoak bezin egokiak, eta gaur oraindik aien ondorengoak berekin dute grazi aparteko bat beren mintzoan.

Garai aietan, Errekalden, ikulluko ganaduez aparte, ardi mordotxo bat ere izaten omen zan.

Joxe Bernardok bazituen bere mende igeltsotegi eta telleria ere; eta oien alboan, berari gogoko ziztzaion egutera gozo batean, etxe polit bat egin erazi zuen, erdian balkoi dotore batekin, urrutitik ikusten zan erloju eder bat etxearen aurpegi erdian zuela.



Zizurkil.

Etxe oni Belen izenez deitzen zitzaion. Gaur, tamalez, eroria arkitzen da.

Beraz, bazuen gizon onek eskuak bete lan, iru eratako lantegi oiek eramaten.

Bertsotarako deia zuenean, askotan beste norbaitek joan bear izaten omen zuen bere ordez.

Ala ere, bertso jaialdi askotan parte artu izan bear zuen. Adibidez, Azpeitiko Premio entzutetsu artan, edo Oiartzungo jaialdi berezi batzuetan, eta festa giroa zan erri askotan.

Askotan irakurri ditugu Ameriketatik eskutitz batean Pedro Marik bere osaba oni bialitako bertso olerki usaidunak, eta garbi azaltzen da emen bien arteko eten ezin zitekean maitasun-lokarria.

Ala ere, tamalez, ez det uste bere bertso asko idatzirik gelditzen danik. Bañan osaba-illoben artean badute oroigarri gozorik utzirik beren ondorengo euskaldunentzat.

Joxe Bernardoren bertsoak aitortzen digutenez, Pello Errota, Udarregi eta Txirrita izango ziran berekin geienbat parte artu zutenak.

Oietaz aparte, bazuen Zizurkillen bertan berari oso gogoko zitzaion gizon on bezin bertsolari iaio bat, izenez Juan Joxe, Ugarte baserrikoa. Bañan onek lagunartetik kanpo ez omen zuen kantatzerik nai izaten, jendearen aurrean moztuta gelditzen zalako-edo.

Joxe Bernardoren ateraldi eta bertsoren bat edo beste, zuen gogozko izan ditezkelakoan, emen dijoazkizute.

Garai aietan bi morroi izaten omen ziran Errekalden. Oietako bat Errenteriko semea, nere aitona ain zuzen; eta au gaixotasun larri batean erori.

Orduan Joxe Bernardo, zerbait kezkatuta-edo,

bera zegoan oe ondora joan eta onela galdetzen dio nere aitonari:

– Zer moduz ago, Manuel?

Eta berak erantzun:

– Naiko gaizki.

– Ez al genikek obe izango ire aitari abixatzea?

Eta Manuelek:

– Obe izango da, bai.

Joxe Bernardok berriro:

– Errenterin zein kaletan bizi dek ire aita?

Manuelek:

– Kale Santa Marian. Bañan ez dakit etxearen zenbakirik. Eta nere aitak Fernando du izena.

Ostera Bernardok:

– Ez al dago an inguruan dendaren bat edo orre-lakorik?

Manuelek:

– Panaderi bat aurrez-aurre.

Orduan artzen du Bernardok luma, eta orri txurrian au idatzi omen zuen:

*Rentería,
Calle Santa María,
Frente panadería
Fernando Salaberria.*

Beraz, arkibide txukun au eman zion nere aitonaren morroi lagunari, esanez:

– Esaiok gure etxera bidean jartzeko lenbailen, Manuelen aitari.

Nere aitonak Joxe Bernardorekin lotura aundia izan zuen beti, eta zartzaroan ez gutxiago.

Igandero biak alkarrekin joaten omen ziran meza nagusira, eta Joxe Bernardok gure aitona bizi zan San Migel baserritxoaren ondotik pasa bear zuen Zizurkilko elizara joateko. Etxe ondora irixten zanean, onela deitzen omen zion:

– Manuel, pronto al aiz?

Joxe Bernardo geienetan, igande egunez ere, abarka azmantarrekin etortzen omen zan elizara. Txukun eta egoki jantziak, ori bai. Bañan festa-egun eta orrelako jai berezietan, traje dotorea zapata ederrekin jazten omen zuen.

Gure aitonari ere etzion txukuna izaten edozeñek eramango. Bañan arek bere bruxa beltza etzuen iñoiz ere uzten.

Bere oitura zuen bezela, deitu dio gure aitonari festa egun batez; eta, au atera zanean, or ikusten du Joxe Bernardo oso dotoreturik. Orduan onela dio gure aitonak:

– Arraioa! Gaur ponpoxo etorri zera!

Beste egun batez, Pello Errota eta Joxe Bernardok, erri batean bertso saio bat egiteko aurretik, kopatxo bana artzera joan omen ziran ostatu batera.

Bernardok markako edari on bat eskatu omen zuen, eta bai serbitu ere. Artu zutenean, Bernardok pagatzen du bien gastua. Eta onela dio Pellok:

– Etzekiat edari galestiagorik santa sekulan artu ote dedan.

Eta Bernardok erantzun:

– Eta merkeagorik artu al dek?

Bernardoren emaztea oso ezaguna zuen batek, urte batzuetan bera ikusi gabe zegoelako-edo, onela galdetu omen zion, bertso bati asiera emanetz:



Teodoro Mujika, Errekaldeko intxaurren ondoren.

– Emaztia zer moduz,
Bernardo, aspaldiyan?

Bernardok erantzun:

– Argandik mixeria
dago urrutian.
Urtian aur txiki bat
badauka titiyan,
belar berria maiz da
gure barrutiyan.

Aur txiki aiek azi egin ziran, eta iru seme eta bost alaba izan ziran. Esan degunez, seme bat bazuen apaiz. Bañan alabak etzuten nunbait monja izateko gogorik.

Orduan bertso au atera zitzaion Bernardori:

Famili bat azitzen
ainbeste enpeño,
ala saiatu gera
orain arteraño,
eta iritxi ere
bost alabetaño;
ezkondu naigo dute
monja sartu baño.

Irurogei ta amar urte bete zituen urtean, bere telleritik igeltsotegira bitarteko bidean, perlesi atake batekin gelditu omen zan mututurik. Nere aitonak esan oi zuen:

– Ain egoki itzegiten zuen mingain arek pallatu zion.

Egun asko baño len bukatu zuen emengo bizitza: Pedro Mari il da bi urtera. Alkar ain maite zuten osaba-illobak, eriotza ere oso gertuan izan zuten.

Alkar gozatutzeko
ain biotz berakin,
barruan zeramaten
ainbeste berokin;
munduan izan zuten
maitasun berakin,
Goitar Jaunak ditzala,
betiko berekin.

Joxe Bernardoren goralpenez bertso auek mol-
datu nituan orain zenbait urte:

1 Joxe Bernardo, goraiatzeko
zure maillako gizonik,
ez derizkiot bear ainbeste
ta gutxiago naizenik.
Bañan zugandik gertu daukadan
biotz txiki bat izanik,
bere barruan senti dedana
pozik eskeintzen dizut nik.

2 Bere izena ez genduke nai
neurri gabe ugaritu,
zintasun osoz aitortzen degu
nai badu iñork áditu.
Bertsolarien aita on batek
merezi ainbat meritu,
gure iritziz, aipatu degun
gizon onetxek baditu.

3 Guraso zarrak esana degu
guk beratzaz dakiguna,
gure aitonak au zan sarritan
aitortu izan ziguna:
Soin dotoreko bertsolaria,
pare gabeko iztuna,
garai artako ainbat euskaldun
gozatu izan zituna.

- 4 Otañotarren lur sendo artan
bazan bertsolari zaiña,
apartekoa zala dirudi
aien grazizko mingaiña.
Osaba guziz ederra bazan
illoba zeinen liraiña,
sendi batean gutxitan sortu
oi dan bikote bikaiña.
- 5 Joxe Bernardok abestutako
ainbat bertso eder, bikain,
jasotze lana norbaitek artu
izan bazuen bere gain,
osatuko zan liburu on bat
ederki betetzeko lain,
baiñan tamalez oietatikan
geiegi ez dira orain.
- 6 Baiñan erabat galtzen ez bada
gure aotiko itza,
eta berari eusten saiatzen
bagera beintzat bakoitza,
aruntz-onuntza ibili arren
aurkako aize zikoitza,
Euskal-Erriak ez du galduko
Otañotarren oroitza.

Errekalde baserriari begira

1 Zizurkilko erritik
urrutira gabe,
sortaldera pixka bat
sartzen bagerade,
lore usaia duten
oroipenen jabe,
bildotx maite otzan bat
bezin pake zale,
tontor baten oñean
dago Errekalde.

2 Ara or Pedro Mari
jaio zan kabia,
intxaur arbola batek
erdi estalia;
mundutik joan zan baiño
ez da itzalia,
goi urdiñean dago
dizdizka jarria,
zure tellatupean
sortu zan argia.



Errekalde baserría, Zizurkil.

3 Begira Errekaldek
bere edergarri
aurrean daukan intxaur
arbol ederrari;
badu guretzako zer
gogora ekarri,
zenbat aldiz gogo bat
ortxe ameslari,
bere itzala baizan
amets aien argi.

4 Errekalde ondoko
Osasun-iturri,
izen au deitzen zaizu
ain egoki zuri;
eten gabe or zaude
eman da ixuri,
Pedro Mari oroitzen
dagola diruri,
gozoa bezin eder
dan ur garbi ori.

5 Etxe ori izenez
deitzen dan moduan,
errekaxo garbi bat
dijoa onduan;
mar-mar gozoan ura
etorri ta juan,
Pedro Mari berorren
eredu genduan,
on egiñaz igaro
zitzaigun munduan.

6 Txoko ortako gauzak
nor zan izar ori
aditzera ematen
ari dira guri;
ez banintz geldituko
ain txiki ta urri,
Errekalde ondoa
edesti arturi(k),
zenbat gauza eder ez
leizke irakurri!

Pedro Maria Otañori

I Euskaldunen denen aita
degu Pedro Mari,
goikoaren argitan
arkitu bedi.
Berak eman baizigun
arrazoi ugari,
izkuntz au gordetzeko
txukun eta garbi;
ainbat gizon argi,
nola idazlari,
ala bertsolari,
begira berari,
eta artu dezagun
gure gidari.

2 Bertsotan itz gozorik
badauka esanik,
beñere galdu gabe
garbitasunik,
bere aotik iñoiz
ez baita entzunik,
itxurarik gabeko
izketa lizunik.
Alako gizonik
ez dakit bazan nik
guretzat gauz onik
erakutsi zunik,
ikasi nai badegu
bide zuzenik.

3 Bere itzak etzuten
ainbat espiritu,
goi maitasunik gabe
esan balitu.
Guretzat zoriona
nai zuen arkitu,
euskaldun zintzo eta
onak ugaritu,
lausoak garbitu,
buruak argitu,
gogoak berritu,
ta zenbat meritu
alako gizon batek
merezi ditu?

4 Aitormen au egingo
nioke bertsotan,
sentimentu goxo bat
agertzekotan:
zerorri jaiotako
mendi ta basotan,
jaio eta bizia
naiz urte askotan;
gure txoko ortan
zenbat aldiz lotan
jarri naiz aurtxotan,
amaren besotan,
zure bertso ederren
usai gozotan.

Pedro Maria Otañori **irurogei ta amabostgarren** **urte-urrenean** **(1985)**

1 Norbaitek jantzi ditu
bere jakinduriz
zelai ederrak lorez
eta apainduriz,
mendiak zuaitz berdez
ta txori kantariz,
baita gure Euskadi
ere bertsolariz.

2 Pozgarri da lorea
belaz dotorian,
eta txori alaia
mendi tontorrian;
bertso ederrak ere
beren umorian,
ainbat edo geiago
aien ondorian.

3 Lore eta txoriak
bertsolariekin,
zerbaiten antz irudi
degu alkarrekin;
gauza danak sustraia
badute berekin,
Norbaitek ez du ezer
utserako egin.

4 Oraintxe irurogei
ta amabost urte
Pedro Mari il zala
esaten digute;
baiñan bere bertsoak
bizia daukate,
izkuntz onek arnasik
galtzen ez dun arte.

5 Argirik biziena
dute bere itzak,
emen illuntasunik
danik ez deritzat;
bere bertsoak dira,
nere ustez beintzat,
Euskadi apaindu nai
duten urre printzak.

6 Gizontasun jatorrez
egin digu diz-diz,
eta euskaldun asko
bete dira argiz,
biotzak indar sendoz
ta buruak egiz;
sermoi bat baiño obe
dira bere bi itz.

7 Guretzat idaztea
orrenbeste bertso,
etzitzaizun izandu
beñere nekoso;
maite giñuzulako
biotzetik oso,
oiek biurtu zindun
gure ezti gozo.

8 Oraindikan ez ditu
Euskadi guriak
galdu zure antzeko
gizon irudiak;
Pedro Mari, ez dira
emaitzik gabiak,
zain ortatik atera
diran landariak.

9 Eskerrik asko zure
arnas beroari,
Euskadin sortu zaigu
ainbat bertsolari;
zure izar bizia
betiko dago argi,
gora euskera eta
gora Pedro Mari!

Karidade Etxea

Gure errian oso gutxi izango ziran nere aitona Manuelek eta bere seme Milianek baño obeki Errekalde baserriko berri zekitenak.

Nere aitona, oso gazterik baserri ortara morroi etorria zalako, eta orko nagusi Joxe Bernardoren serbitzari urte askotan izana zalako. Nere osaba ere zer esanik ez: oso gazterik asirik, ortxe egin omen zuen urte mordotxo bat. Oien aitormena onela zan:

Juan Pello eta Joxe Bernardo bi anaiak Errekalden jarri omen ziran ezkondurik; eta, jakiña danez, umeak azitzen asi ziranean, zailla izango zan alkarrekin ongi konpontzea.

Juan Pellok orduan pentsatu omen zuen Errekalden sail edo lur exkin batean etxea egitea.

Bañan etzuten aberastasun aundirik ori egiteko, eta beren etxekoen eta auzokoen laguntza eskatu bear izan zuten, amets ori betetzeko.

Batzuek argintza, besteak arotz lana eta abar, orrela nolabait ere moldatu omen zan Karidade etxea.

Orretxegatik, *Karidadeko Benta* izena jarri ziotela esaten zigun gure osabak.

Beraz, Pedro Maria Otaño Errekalden jaio omen zan; bañan bera mutiko zala joanak izan bear zuten etxe berri ortara.

1870 urtetik 1880 urtera bitarteko amarkadan oker aundirik gabe egiña zala dirudi Karidade.

Len esan dan bezela, etxe ori lujo aundi gabekoa zan. Tellatuaren kapiro exkiñetan eta bere ate-leioetan ikusten zan egur txiki xamarrez osatua zala. Bañan oso arpegi politekoa zan gure txiki denboran: kolore gorritz pintatua eta leio exkiñak txuriz zituela.

Bere aurrean arbola polit bat, adarrak xabalean zituela, eta arrizko mai bat, bere azpian exertzeko koska eder bat alboan zuela ere, bazituen, udaran azpian jokuan eta abar aritzeko.

Bertso bat ere bazan, etxe au bukatu zutenean Joxe Bernardok kantatua, nere osabak gogoan zuena.

Bañan neri oso erdizka gelditu zitzaidan gogoan. Azken iru puntuak onelatsu ziran:

Pobre gelditu zaigu
arri egurrian;
elurra loditzen bada
negu gogorrian,
gure palaziyua
laxter da lurrian.

Bañan eun urte eta geiago bizitu omen ziran bere barruan, nere osabaren aitormenak egiazkoak badira.

Ona emen, bukatzeko, Karidade etxe edo benta orri nik jarritako bertso batzuk:

1 Karidadeko Benta
nola zan egiña,
Juan Pello bat omen zan
lan orri ekiña;
bai auzotikan ere
borondate piña,
bat zala arotza ta
bestea argiña,
askok emana noski
bere etekiña,
argatik zan izen au
jarria, jakiña.

2 Argazkian ikusten
zaizkio bi alde,
biak izen batekin
deituak dirade.
Egiten badirazu
orain neri galde
zein zan bertsolarien
kabi Karidade,
baldin memori ona
bazait neri jabe,
eskubi aldekoa
zan dudarik gabe.

3 Etxe onen aurrean
eta erdiz-erdiz,
neronek ezagutu
nuen nere begiz
arbol ostozabal bat,
altua ez gerriz,
eta bere azpian
mai polit bat berriz,
nekaturik zeudenak
edo alperkeriz
edozeinentzat toki
atsegiña egiz.

4 Karidade zar ura
galdu zan ordia,
eta bertan egin zan
oso dotoria.
Or bizi da Otaño-
tarren ondoria,
Serapio Mendizabal
gizon bat noblia,
ondo merezia du
gure onoria,
ixtori ederreko
predikadoria.

5 Anai bat ere badu
Otañotar utsa,
bertso ederra franko
gordetzen dun poltsa.
Urrezko doiñua ta
eztizko abotsa,
biotzera sartzen da
Iñakiren boza,
eta animaraño
ematen dun poza,
gu ezin gaitu ezerk
orrenbeste goza.

Errekaldeko intxaur arbol igarrari begira

1 Zure gañetik ez du emango
ontzak gaueko lantua,
ain gutxi berriz txori alaiak
uda berriko kantua.
Pedro Mariren bertso gozoak
ain maiteki laztandua,
jaio ziñan da noizbait bukatu
bear zenduan mundua,
igartu zera, Errekaldeko
intxaur arbola santua.

2 Enbor egiñik zauden tokitik
pixkatxo bat goragoan,
ikusten degu gazte lerdan bat
indartsu nola dagoan.
Naiz ta mundutik gu eta beste
ondorengo asko joan,
zure antzeko seme leialak
dituzun arte ondoan,
onbu zarraren bertso bikaiñak
jasoko dira gogoan.

3 Gure aurretik igaro ziran
aien gogo eta itzak,
zerbait zentzuzko garrantzirikan
baldin badaukate beintzat.
Señale batzuk bearrezkoak
ditugu oroigarritzat.
Euskadirentzat duan bezela
Gernikan degun aritzak,
Errekaldeko intxaur arbolak
dezala bertsolaritzak.

Iragorritarrak

Pedro Maria Otaño bertsolariak ama Iragorri battersiko alaba zuen. Guk ama onen anai baten semeak ezagutu genituen; Pedro Mariren lengusuak ain zuzen. Bost senide ziran guztiak.

Joan Frantzisko eta Joan Migel, Iragorriko bi bizitzetan; eta Joan Joxe, Joan Bautista eta Joana, Zizurkilko plazan dagoen eta ostatu edo taberna ezagutu genduen Plaza-etxeberrin. Ara, beraz, bost senideak Joan izenarekin zituzten beren izen asierak. Abizena, berriz, Barriola zuten.

Plaza-Etxeberrin bizi ziran Joan Joxe eta Joana, alpargata egilleak ziran. Etxe ontan egiten zan oñetakoa nai izaten zuten zizurkildar geienak. Lan ontan, gutxi bezelako iaio eta egokiak ziran anai-arreba oiek.

Aipatu ditugun bost senide oien aitaren aldeko -aitona, eta Pedro Maria Otañoren amaren aldekoa, omen zan Zizurkillen sekretario izandua.

Onen diruz eta gogoz egin omen zan leen aipatu degun Plaza-etxerberri izeneko etxe eder ori.

Pedro Maria Otañok eta Joan Joxe Ugarte bertsolariak amak aizpak zituzten; goian aipatzen degun Zizurkilko sekretario orren alabak ain zuzen.

Plaza-etxerberriko Joanak egiten zuen etxe ontako etxeakoandretza, oso zentzuzkoa zanez.

Txirrita bertsolariak ere, azkeneko aldiz Zizurkillen izan zanean, Joanaren etxean egin zuen ostatu. Leenagotik ere alkarren ezaguera aundia omen zuten. Iritxi zanean, ongi etorri aundia egin omen zion, eta bai laxter kafetxo bat serbitu ere.

Tabernan arkitzen zan bertsozko berritsukeritan Joanari aspergarri zitzaion gizon bat; eta, Txirritari kafea serbitzen ikusi zuenean, au esan omen zion:

– Ni ere bertsotan ementxen aritzen naiz, bañan ez didazu kaferik serbitzen.

Eta Joanak erantzun:

– Zuri, ixilik egoteagatik, askotan.

Pedro Maria Otañoren anai Bernardoren emazte Joana Iparragirre emakume gozo eta atsegiñak ere oso egontoki gustokoa zuen Plaza-etxeberri.

Gizonaren aldeko lengusu Joanarekin igarotzen zituen gerra aurreko udaldiak. Bernardoren emazte au jostuna zan, eta bere lanean gelditzen etzana gañera. Zizurkilko elizan bear ziran erropak ere berak josten zituen. Plaza-etxeberrik leio ederrak zituen eta bertatik aize-berritzen zan naikoa nolabait.

Arritzekoa ez danez, jende xeblebre eta adarjotzallerik ere biltzen zitzaion Joana Barriolari. Egun batez, *Mandoa* deitzen zioten bat omen zegoen taberna ortan; eta *Txerria* deitzen zioten bat sartu omen zan, txekorra iltegira eraman eta paketetxo batean gibela zuela. Onela dio Joanari:


– Gibela preparatuko al didazu?

Mandoa deitzen ziotenak laxter bota omen zion:

– Txerriarena al dek?

Eta besteak erantzun:

– Mandoarena añakoa izango al dek ala ere!



Iragorri baserria, Zizurkil.

Juan Joxe Ugarte

Zizurkilko Ugarte baserrian jaio, bizi eta il zitzai-gun Juan Joxe Beldarrain, gutxi diran bezelako gizon apal eta atsegiña, berezko benetako bertsolaria, Pedro Maria Otañoren lengusua, biak amak aizpak zituztenez. Zizurkilko Iragorri baserriko alabak ain zuzen. Beraz, bigarren abizena Barriola zuten biak.

Zizurkildik Asteasura bitarteko egaltxo batean dago Ugarte baserria, gaur egun benetan dotorea.

Juan Joxe ezagutzera oso juxtutik ez giñan iritxi, bañan aoz ao gutxi bezelakoa zala aitortu izan ziguten gure gurasoak.

Bere bertso-lagunik gogozkoenak Joxe Bernardo Otaño eta Pello Errota izan bear zuten, lenengo au bere famili ingurukoa zuelako noski. Bañan Txirritak berak ere oso gogozkoa izan bear zuen Juan Joxe.

Ala ere, ostatu-giro edo lagun-artetik kanpo, oso motz gelditzen omen zan.

Ez nuke nai nere erritarrik zapaldu; bañan zizurkildarrak geienetan plaza-gizon gogorak ez gerala izan aitortu bearra daukagu, nere ustez. Eta ez bakarrik bertsoetan; baita edozein joko eta kirol-gaie-tan ere.

Juan Joxek bertso idatzirik utzi ez bazigun ere, bere aoz abestutakoak baditugu buruz ikasiak. Irakurleari gogozko bazaizkio, ara emen oietako batzuek.

Egun batez, *Kamio eta Benezi etxe artean*, bere lagun batzuekin zijoala, norbaitek engañuzko zer-bait esan omen zion. Bañan Juan Joxe argi egon nolabait. Onela abestu omen zuen:

Kamiyon pasa eta
iy-iyá Beneziñ,
gizon bat bada emen
sartuba maleziñ.
Saiatuagatikan
egiñala guziñ,
gu engañatutzeko
biar gaña eziñ.

Jai-egun batez, bi gizon aserretu eta borroka-saioa egin omen zuten. Bietako batek, belarritik ozka egin eta odoletan utzirik kontrarioa, iges egin. Oni *Zapoa* deitzen omen zioten. Odoletan zegoenak, Joxe Antonio izena. Onela dio Juan Joxek orduan:

Zer moduz zaude, aizu,
Joxe Antoniyo?
Len baju baziñaden
etzerade iyo.
Zapo orrek bazuen
ainbeste jeniyo,
nunbait gose zan eta
ozka egin diyo.

Joxe Bernardorekin artu-eman asko zuenez, bere etxera sarritan irixten zana izan bear zuen. Bera sentitzen zuenean, Joxe Bernardoren alaba Plazida dotore agertzen zitzaion nunbait Juan Joxeri.



Ugarte baserria, Zizurkil.

Orrelako batean onela bota omen zion:

Plazidak entzuten du
Juan Joxeren boza,
sentitzen dubenian
artzen duben poza!
Neskatx umil batekiñ
bear det esposa,
ez nuke nai zu beziñ
gallarda airosa.

Jose Bernardo Otañoren billoba zan Jesus Iztueta Otañori onela jaso nion:

Juan Joxe Ugarteren denboran mixiolari batzuk izan omen ziran Zizurkillen, beren itzaldiak egiten. Bukaerako egunean, erretore jaunari Juan Joxe bere etxera eramatea gogoratu omen zitzaion, aparitxo bat egiñez bertso batzuk izlari oien aurrean kanta erazteko. Negarrez jarri erazteraño ikutu omen zioten biotza Juan Joxeren bertsoak.

Tamalez, ez degu oietatik bertso au besterik:

Kristo gure Jauna da
guztien arbola,
bere semerik ez du
ukatu sekula;
guregatik ixuri
zuen ark odola,
eta sinistra zagun
bizirik dagola,
bizi gaitezela au
gogoan degula.

Beste au ere Jesus Iztueta Otaño zanari jaso nion. Urte aietan Zizurkillen sekretario zan Bitorio Lizarraga tentatzen ari omen ziran bertako emakume edo atso batzuk, oietako alabaren batekin ez-

kondu erazteko; eta Juan Joxek onela kantatu omen zuen:

Laxter ezkontzen dala
askok ala diyo,
bañan ni oraindikan
ez naiz oso piyo.
Atso zar deabruak
dirala meriyo
galduko ote zaigu
gure Bitoriyo?

Juan Joxe Ugarte onek ateraldi egoki asko omen zituen. Bañan oso urriak dira guregana iritxi diranak.

Gure gurasoengandik auxe ikasi genduen: gizon atsegin eta gozo aparta zala; bañan bere semeekin etzuela onelako ditzarik izan; bi seme eta biak oso gogorrek omen zituen.

Euskerazko esaerak “enborretik ezpala” dio. Bañan beti ez da ala. Ez dirudi Joan Joxeri orrela gertatu zitzaienik.

Bertsotarako gogo askorik gabe sarritan ibiliko zan gizarajoa. Bañan nolabait ere penak aztu bear eta egun pasa batzuk egiten omen zituen. Geiennetan, jai illunabar aldera biltzen omen zan ostatura.

Egun batez, tabernara sartu orduko, galde egin omen zion norbaitek:

– Joan Joxe, atari zakur bat bear nuke. Bai al daukazu bakarren bat saltzeko?

– Baita bi ere.

– Bañan zertarakoak dauzkazu?

– Bat eperrerakoa eta bestea alperrerakoa!

Zizurkillan lenengo egin zan kamioa, Olentzaro baserriaren ondotik erantsi zioten Billabonatik Astea-

su aldera dijoan kamioari. 1919 eta 1920'an egiña omen da.

Gaur Olentzaro baserria baño goraxeago ikusten da lengo bide zarraren sarrera. Altzeta erreka ertzetik, Alkanitz errota ezkerretara uzten zala, irixten zan Altziturri baserri ederreira. Andik gora bereala irixten zan Zizurkilko plazara.

Altzeta erreka exkiñ au, bide txarra izatez gañera, arbolpe itzal utsa zan. Egunez orrela bazan, pensatu zer izango zan gauez.

Zalantzarik gabe, lastozko argi eta kandelazko parola pranko pasako zan orduko Zizurkilla bidean. Pestetan ere, Abe-Maritako kanpaia jo baño lenago jetxiko zan neskatxa pranko Zizurkildik bera.

Egun batez, bertso saio luze xamarra egin ondoren, etxeratze oso berandutu egin omen zitzaion Joan Joxeri; eta bidean argi egiteko lasto eta kandela parolik ez eta al zuen moduan etorri bear bide zar aietan.

Len esan ditugun Olentzaro baserriaren ondolik eta Alkanitz errotatik Altziturri baserrira ez-ezik, Asteasu alderago dagoen Mekola baserriaren ondoraño iritxi bear zuen. Ortik oso gertu zan bere Ugarte etxea.

Altziturri baserri ingurura iritxi zanean, bertako etxeoandrea konturatu omen zan norbait bazetorrela, bide zar artan *tirriki-tarraka* otsa atereaz. Parola piztu eta atera omen zitzaion etxeoandre au etxe ondora, esanez:

– Baña zer zabilta, Joan Joxe, ordu oietan?

Joan Joxek erantzun:

– Nun naiz?

Altziturriko etxeoandreak zirikatze:

– Mekolan.

– Ez nintzala iritxiko uste niñan sekulan.

Etxekoandre jator arek eman zion parol argiarekin joan omen zan etxera.

Beste au ere, len aitaturako Jesus Iztueta Otañoren aotik jaso nuan.

Zizurkilko parrokiak San Millan du bere Zaindaria. Egun ortan zintzo joaten omen ziran Jose Bernardo eta bere lagun istimatua zuen Juan Joxe Ugarte meza nagusira.

San Millan egun batez, meza ondorenean santua-
ren erlikiari muin egiteko oitura zutenez, Juan Joxe
zintzo joan omen zan. Baiña Joxe Bernardo, presa
zuelako, ez omen zan muin egitera joan.

Apaizak orduan onela dio jendeari, Jose Bernar-
dori atzetik begira:

– Ori ere nere artaldeko bildotsa ote da?

Eta Juan Joxek erantzun:

– Bai; eta ez saillean dan txarrena ere.

Erri txikietan kultura-gizonak baziran noski or-
durako. Bañan, tamalez, Juan Joxe eta bere an-
tzeko askori ez dirudi arreta geiegirik zietenik.
Orrela izan balitz, izango zan bertso eta ateraldi eder
ugari jaso.

Izan ere, gure mutiko garaietan eta lentxeagotik
ere, maixu, apaiz, mediku, sekretario eta mailla or-
tako kultura-gizonak oso bajutzat zeuzkaten bruxa
beltzarekin zebiltzan baserritar arlote batzuen eus-
kera eta bertsoak. Geienak beintzat erdera zerabil-
kiten itzetik ortzera.

Etzuten berezkotasunetik zetorren doai edo argi-
tasun ortan ezer asko ikusten. Errietako jende xu-
mea zan, garai artan, bertsolariei balorea ematen
ziena.

Ara adibide txiki bi: Zizurkilko Etxeberritxu base-

rriko Joxe Mari Mendizabal aitonari, oso gazte nintzala, entzun nion, bertsolariei buruz itzegiten ari zanean batean, onoko ateraldi au:

“Bertsozale purrukatua izan naiz nere denboran, eta nere gaztetako oroipenik ederrena esango dizuet.

1900 inguruko urteak ziran. Abuztuko Ama Birjiñ egunez, plaza bete jende Zizurkillen. Pantxikaene tabernaren balkoi azpian, egurrezko altagarri baten gainean, iru bertsolari: bi erritarrak eta asteasuar bat, eta au ere noiznai Zizurkillen ikusten genduen: Juan Joxe Ugarte, Joxe Bernardo eta Pello Errota, zein baiño zein bertsolari ohea.

Ez ote zan ura ondra eta aunditasuna Zizurkil erriarentzat, eta Asteasurentzat ere, Euskal Erriaren aurrean?

Zizurkil erriak eta Asteasuk ere bear zutela uste det iru gizon aiek bertsotan ari ziralata ateratako erretrato bat oroigarritzat”.

Eta bigarren adibidea, goian aipatzen degun Joxe Mariren lengusuak ematen digu.

Arjentinan irurogei urte egiñik etorri berria dan eta Zizurkilko Pantxikaene ostatuko alaba dan Isabel Mendizabal emakume gozoari Juan Joxe Ugarteren oroipenik bazuen galdetu nionean, bere arpegia irriparrezko argiz bete zitzaiola zirudien. Lenengo itza onela atera zitzaion:

– Juan Joxe Ugarte! Ura gizona!

Eta ondoren au esan zigun:

– Bertsolari ona izatea bat da, gizon gozoa eta atsegiña izatea bestea, eta ori guztia zuen Juan Joxek. Pena aundia daukat gure amari berak bota zion bertso bat gogoan ez izatea.

Eta jarraitu zuan esanez:

– Zuk ongi dakizunez, gure Pantxikaene jaiote-txean taberna, denda eta panaderia ziran gure gazte

denboran. Eta gure ama gaixo Joxepa Antonik, bere bederatzi seme-alabekin eta etxeko martxarekin, lan asko egin bear izaten zuen. Arritzekoa ez danez, bein ere naiko lorik egin gabe ibiltzen zan. Ala, bazkalondo batez, sukaldean, bere seme txikiena zuen Enrikeri bularretik ematen ari zitzaiola, loak artu zuen gure ama gaixoa. Juan Joxe Ugarteri biotza ikutu zion emakume aren jarrerak; eta exeririk zegoen tokitik altxa, berarengana inguratu, bizkarretik maitekiro eldu eta aurrari begira bertso gozo eta sentikor bat bota zion.

Berriro onela zion Isabelek:

– Pena aundia det bertso ura gogoan ez izatea!

Eta, au esatearekin, negarrari eman zion.

Juan Joxe ordurako alargundua zan, eta seme-alaba asko zituen aita; eta orregatik ere ama on arek ikutuko zion biotza.

Juan Joxeri egiñaz
bertsozko agurra,
amaitzera nijoa
nere lan laburra.
Al dedan eran beintzat
izan det ardura,
bertsolari-sallean
sartzeko barrura,
aiñ umil igaro zan
zizurkildar ura.

Elizondotar senideak

Emeretzigarren gizaldi asieran jaioak ziran senide oiek, bi seme eta iru alaba ain zuzen.

Iru aizpa oiek eliz inguruan bizitzen ziran: bat, Pantxikaene edo Elizondo jatetxean; bestea, garai aietan ostatu eta okindegi zan Elizalden; eta irugarrena, Etxeberritxu baserrian. Aizpa oien bi anaiak, bat San Migel baserrian eta bestea Adunako Agerre baserrian. Danak ezkonduak ziran.

Pantxikaenean, Elizalden, Etxeberritxun eta San Migelen, Elizondotar aien ondorengoak jarraitzen dute. Adunako Agerrekoaren ondorengoak, gaur Andoainen denda eta ostatu dan Elizondo etxeakoak dira.

San Migel baserrikoa nere amaren aitona zan. Oni *Erletxoa* deitzen omen zioten; eta bere anaiari, *Erlea*, sarritan erle lanetan aritzen ziralako eta eskarmentu eta sena aundia zutelako lan ortan.

Maiatzeko egun eguzkitsu batean, erleseme bat atera omen zitzaion Erletxoari, berak zeukan eultza batetik; eta Erletxoak, soñu gozoa ateratzen zuen kaldera bat joaz eta "Bertan Maria" kantatuaz, bere anai Agerrekoarengana eraman omen zuen erleseme ura, eta an eultzan sartu.



San Migel ermita eta baserria, Zizurkil.

San Migel baseritik Adunako Agerrera tarte de-xentea da; baiña gure amonak egi benetakoa zala esaten zuen.

Karlisten gerran, San Migel baserrira sartu ziran liberalak, etxea erretzeko asmoz. Orrela kontatzen zigun gure amonak. Bera neska gaztea zala gertatu omen zan gerra ori, eta orduan liberalak karlisten etxeak erretzeari eman omen zioten.

Soldadu mordotxo bat joaten omen zan, Loma jenerala buru zutela. Etxeetan sartu, bertan bizi ziranak etxetik atera arazi eta su eman. Zizurkillen ere orrelako lan tamalgarriak egin omen zituzten.

San Migelko baserrixora ere, atzeko aldean zuen ate zabaletik sartu omen ziran. Erletxoaren emaztea negarrez jarri omen zitzaion Loma jeneralari, gaixorik zeukan aur txiki bat besoetan zuela, esanez:

- *Loma, chico malo, no quemar.*

Eta Loma jeneralak, errukiturik:

- *No quemaremos, no.*

Orrela salbatu omen zan erre gabe San Migel baserritxoa.

Bi seme eta iru alaba ziran Erletxoak munduan utzi zituenak; eta oietako bat nere amona, Pilar Elizondo, benetan emakume zintzo, langille eta leiala.

Gure amona 1857-an jaio eta 1933-ko apirillaren lenengo egunean il zan.

Gure amon au gazterik jarri zan okindegi eta os-tatu zan Elizalde etxean, bere izebarekin neskame.

Bertako nagusiak Antigua-Donostiko dendaren batekin egiña zuen tratua ogia berak serbituko ziola, eta gure amona joaten omen zan, asto aundi bat leporaño ogiz kargaturik, laxterbidez Zizurkildik Antiguaraño egunero.

Gaur bide luzea iruditzen bazaigu ere, garai artakoak ongi oiturik zeuden oñak arin dantzatzen. Mendietako laxterbideak ere gaur guk baño obeki zekizkiten noski.

Oraindik il zar ez dan Andoaingo On Konstantino apaiz jaunak esan izan zigun, beste lagun apaiz batekin sarritan joaten zala Andoaindik Antiguara oñez, eta etzala uste zan bezin bide luzea; oso laxterbide egokia zala.

Ala ere, gure amonak, Zizurkildik Andoaïña eta Andoaindik Antiguara bitarte ortan, anakak dantzatu bearko zituen ederki.

Karlisten gerra ere bete-betean egokitu omen zan, eta tiroen beldurrez igarotzen omen zan toki askotan.

Zizurkildik Antiguara joateko, Otañotar bertsolarien etxe Errekalderen ingurutik igaro bear zuen, eta an ikusten zuen lanean ari zan bere gustoko mutil gazte bat; eta, astoarekin Antiguatik bueltan zetorrela, gure amon ori kantari igarotzen omen zan, mutil orri agur gozo bat egiñez.

Mutil gazte ura Erreteriko seme Manuel Salaberria zan, Errekalden morroi zegoena noski.

Erreklamo gisako dei gozo bat egiten zion nola-bait Pilarrek; eta, bereala adiskide egin eta ezkondurik, San Migelko baserritxoan bizitzen jarri omen ziran.

Bañan nere aitonak etzion utzi Jose Bernardo Otaño bertsolariaren serbitzari zintzo izateari. Bertsolari onen igeltsotegia eta baserria izan zituen bederatzi seme-alaba azitzeko ogibide.

Nere aiton-amon oiek etzuten suerterik izan lenengo eta bigarren aurtxoekin. Lenengo alaba bederatzi illabeterekin seaskan illik arkitu zuten, beren ustez ongi zeukaten aurra gañera.



Goien, ezkerretik: Jose Inazio, soldadutzaren igesi Ameriketara joana; Antonia; Maria, liburu onen egilearen ama; Millan, bertsolaria.

Beean, ezkerretik: Silberio, Ameriketara izana; ama; Petra, alaba txikiena; aita; Antonio, soldadutzara Afrikara joana etaengo gerran illa.

Argazki ontan falta dan senidea: Tomasa, leenagotik Ameriketara joana.

Bigarren semetxoa, berriz, aitak, beiak jeztera joana zan batean, berekin eraman omen zuen, eta artean kinke argia besterik ez omen zuten. Petroleozkoak ziran kinke oiek, eta abeari erantsirik utzi, segurantzi asko gabe noski, gure aiton onek; eta mutikoaren gañera erori, su artu eta errerik il omen zitzaien. Gero, bere orde, inklusako bat artu omen zuten.

Gure aitonak bazituen ateraldi politak ere. Bañan au gerorako uzten det, amonarekin jarraitzeko.

Gure amonak utzi zigun doterik ederrena, pintasun osoan tinkatutako fedea dala esango nuke. Noiznai eta nunai edonori laguntzeko zegoen emakumea zan ura.

Jose Bernardo Otañoren emazteak ere beragana bialtzen omen zituen bere umetxoak, otoitzak eta abar erakustera, lenengo jaunartzea egin aurretik.

Garai aietan, erriko erretoreak ere beraren esku uzten omen zuen Ostiral Santuko guruzbidea egitea.

San Migel baserri eta ermitaren ondoan bada Bide-gurutz izeneko etxe bat, eta Larraul erritik famili bat orrera etorri omen zan bizitzera, aita jokalaria zutena, eta aita-amak sarritan errita gogorak egiten omen zituzten alkarrekin.

Seme zarrena, berriz, gutxi bezelako mutil ona omen zuten; eta, gurasoak orrela asten ziranean, inguruan zegoen ermitara joaten omen zan otoitz egitera.

Gure amonak eta bere lagun batek ikusten omen zuten mutil onek era ontako joera asko zuela, eta erriko erretorearekin itzegitea gogoratu omen zitzaien. Eta alaxe egin eta bereala sartu omen zan kaputxinoen konbentuan.

Neronek ere ezagutu nuen mixiolari aundi au.

Amerikan santutasun usai gozoan il zan, bertan urte askoan lan egin ondoren. Etzan edozein gizon au: Aita Bernabe Sarasola Ularain. Irakurri *Historia de un pobrecillo* liburua.

Larraulko famili onek oso denbora gutxi egin omen zuen Bide-gurutz etxe ortan; eta, San Migel baserriko gure amonari semerik zarrena etxera ezkondu zitzaionean, aldamenean zeukan eta ustu berria zegoen etxe ortara aldatu omen ziran gure aiton-amon oiek, eta bertan denda txiki bat ipiñi.

Ogia, ardoa, azukrea, olio eta abar bertatik erosten zituzten inguruko baserritarrak. Dendatxo onek oso ongi erantzun zion gure amonari, jendeak berekin konfiantza osoa zuelako noski.

Zerbait eroatera bertara joaten zan gutxi aterako zan galletatxoren edo ardo tragoren bat gabe. Senarra egun guztirako joaten zitzaion lanera, eta gu joan oi giñan beraren bazkari laguntzalle.

Ongi gogoan det, etxe onen ondoko iturritxoaren askara edatera etortzen ziran beien anka otsak eta despertadoretxo baten *tik-tak* soñua besterik entzuten etzan gure amonaren sukalde ixil goxo ura.

Eguerdian, gu joaterako, ongi preparaturik edukiko zuen beko su goxoan egindako eltze babarruna, geienean txerri pusketa bat edo zeziña barruan zuela. Baita ere su brasaren ondoan erretako bere baratzako *altzola-makatz* sagar muxu gorriak, alde geienetatik bezturik, bañan gañeko azal beltza kendu ezkerre barruan zeramaten mami gorri ezti-tsuaekin.

San Antonio eta San Migel aurretik, alboko ermitatxoan berak egin oi zuen bederatziurrena; eta eskolako mutiko saillak pozik joan oi giñan otoitzaldi txiki ortara, azkenik "Bedeinka, bedeinka zazu nere anima" Jaunari abestuz amaitzen genduelarik.

Era ontako bizimodua eramane zuen gure amona



Arrieta, Teodoro Mujikaren jaiotetxea, Zizurkil.

Pilarrek amabost bat urtean, goizero kilometro bat bide egiten zuelarik meza entzutera, parrokira bitartean.

1933 urtea eta apirillaren lenengo eguna zan, eta Erramu igande aurreko ostirala ain zuzen. Egunero oi zuen bezela, meza entzun ondoren gure etxera etorri zan, eta gure ama gaixorik arkitzen zan.

Baraua austeko, burrunzalikada erdi bat esne eskatzeko oitura zuen. Ori artu ondoren, onela esan zion gure amari:

– Gaur buru atzeko miñez natxion. Etzekiñat zer izango dan.

Eguneroko tertulia egin ondoren, etxeratu zan gure amon ori. Zortziak inguru izango ziran.

Bederatzi t'erdietan gure etxera abixatu zuten, baserritar bat bere dendatxora zerbait eroatera joan eta sukaldean illik arkitu zuela.

Beraz, 1933 urtean, apirillaren lenengo egunez, irurogei ta amabost urterekin bukatu zuen mundua Erletxoaren alaba, nere amona Pilarrek. Goiko Jaun onak berekin dezala.

Gure aitona, amaren aldekoa

Aurreko orrietan aipatzen dedan bezela, gure aitona au, Manuel Salaberria, Errenteriko semea zan, oso gazterik Zizurkilko Errekalde baserrira morroi etorria; eta bizitzarik geiena Jose Bernardo bertsolariaren serbitzari igaro zuen: ezkondu zan arte, baserriko lanetan; eta, ezkondu ondoren, igeltsotegiko langille izan zan, 1920 urtea iritxi arte.

Ordurako bere seme Millan Salaberria bertsolari goxoak ere urte dexente zituen bere aitarekin lantegi ortan.

1912 urtean il omen zan Jose Bernardo, eta nere osaba Millan Salaberria izan omen zan beraren gorputza elizara eta ondoren illerrira eraman zutenetako bat.

Beraz, berezko pixka bat zuena ez dala arritzekoa uste det tarte artatik bertsolari ateratzea.

Ondoren, Jose Bernardoren seme Inaxio Marirekin egin zituen sei urte, gripe denboran au il zan arte. Urrena, bere anai Delfinekin beste bi urte. Bañan ez dirudi azkeneko onekin oso ongi konponetzen zainik.



Teodoro Mujikaren gurasoak: Pedro eta Maria.

1919 urtean, Adunako kamioa egiten ari zirala, Jose Maria Izagirre beste igeltsotegiko nagusiarekin itzegin omen zuen gure aitonak, eta andik laxter berearen lantegira aldatu omen ziran aita-semeak.

Emen egin zituen gure aitona Manuelek irurogei ta amasei urte bete arteko denborak.

Jose Maria Izagirrek oso maitea omen zuen gure aiton au, eta zartzaroan ere berak eman omen zion zakuak kontatu, pinturaz markatu eta orrelako lan ariñak egiteko erosotasuna.

Oso egun gutxi egin zituen oieraturik: 1934 urtean, agoztuaren 11-an, il zan, irurogei ta amasei urte zituela: eta illetako kastuak ere bere nagusi onek ordaindu omen zituen.

Bere emazte Pilar eta biak urte berean jaioko ziran.

Gure aiton au, Errekalden morroi zegoela, zerbait gustaturik omen zan Jose Bernardo bertsolariaren alaba Plazidarentzat, eta norbaitek esan omen zion oni:

- Aizan, Plazida: Manuel omen zegon iretzat gustaturik!

Plazidak erantzun:

- Manuel bezelakoak bi bear dizkiat nik.

Andik urte batzuetara ezkondu omen zan Plazida, bañan gure aitonari etzizaion aztu Plazidaren arrazoia.

Txikia zalako egin omen zion desprezio ura; bañan gero artu zuen gizona ere, gure aitona bezin txikia edo txikiagoa artu omen zuen: Joxe Bixente ize-neko bat.

Plazidaren eztaiak izan eta laxter, Joxe Bernardok bere langilletako bat bidali omen zuen enkarguren batekin Plazidarengana. Abiatu bezin laxter, au esan omen zion nere aitonak enkargu egilleari:

– Aizak: esaiok Plazidari Joxe Bixente bezelako bat naikoa al duen.

Alkar ongi ezagutzen zutenez, Joxe Bernardok etzuen par gutxi egingo.

Zizurkillen bazan Azkarate baserriko Jose Soro-arrain izen-abizenak zituen mutilzar xeble bat. Otañotarren igeltsotegian amaika par egin arazten ziguna. Bañan, tabernara sartu ezker, ongi bete gabe etzekien etxeraten gizarajoak, eta urren-go egunez oiean egon bear izaten zuen.

Mutil gaztea zala, nere aitonarekin ere egin omen zuen lan.

Aundi oietako bat arrapatu zuen batean, bere anai Bitoriok esan omen zion:

– Biar ez aiz, ba, oiean egongo! Joan bearko dek lanera!

Bai bialdu ere Bitoriok lanera. Bañan igeltsotegira iritxi eta laxter asi omen zan barruan zituenak botatzen. Ontan saio bat egin ondoren, onela esan omen zion nere aitonak:

– Jose, urak bota dituk eta anakak azaldu baño len joan adi etxera.

Millan Salaberria “San Migel Txikia”

Gizon alai eta txiroak oso gogoko izan ditudanez, Gaipamen bat egin nai nioke *San Migel Txiki* deitzen zitzaien eta idazten dedan onen osaba zan Millan Salaberriari.

Gure artean beti izango ziran gizon alai eta umoretsuak. Bañan aren neurrikoak oso gutxi, gure us-tez.

Egun batez, ateraldi xebreren bat egin omen zion gure osabak Joxe Bernardo Otañori, eta onek onela dio txunditurik:

– Arraioa! Alako kastatik aterea aiz, bai!

Izan ere, beraren aita, gure aitona alegia, ateraldietan bizkorra bazan, onen seme Millan ere etzan oso motela.

Bertso saio luzeak egitea oso aspergarri egiten zitzaion. Bañan dozen erdi bat bertso arek baño ironia geiagoz eta arrazoitsuago botatzen zituen etzan bertsolari eskaxa, ziur aski.

Gerra aurretik, gerra garaian eta ondoren ere amaika lagunarte gozatutako San Migel Txikia.

Bañan gizon au kantatzen atsegiña bazan, izke-

tan zala bertsolari esango nuke. Buru argi apartekoa zanez, bertso puntu dotoreak eta ateraldi ego-kiak, benetan irrigarri, oso gutxik bezela ertetzen zitu-
tuen.

Gizakiok une askotan umorea galtzeko arrixkua izaten degu, eta orrelakoetan gizon oiek egiten duten onaz ez dakit berak ongi konturatzen diran.

Zer neurritako bertsolaria zan irakurleak ezagutu dezan, ondoren dijoazen bertso oiek zerbait esango diotela uste det.

Zizurkilko plazan gazte batzuek zeuden trago batzuek edanez. Millan Salaberria badator etxetik ostatura bidean; eta gazte oiek, dei egiñez, trago bat eskeintzen diote, bertso bat botatzeko erregutuz. Onela dio Millan Salaberriak, tragoa egin eta basoa eskuetan duela:

Uste gabian inguratu zait
kuadrilla kariñosua,
ta beriala eman dit batek
trago bat oso gozua.
Borondati au alabatuaz
dijua nere bertsua,
eskerrik asko, gaztia, eta
orain torizu basua.

Millan Salaberriak, Donosti eskiñan edo Antigan bizi zan bere anaitzakoa onela agurtzen du egun batez:

Mundu ontara zenbait bezela
aberats sortu ez giñan,
Antton, zer moduz bizi zerade
Donostiaren eskiñan?
Lenago beintzat ni bezelaxe
langille zintzo bat ziñan,
gaur ere etzera biziko noski
Otel Maria Kristiñan.

Bi emakume lodi eta bi gizon argal eta txiki al-
kartu giñan batean, Millan Salaberriak abestua:

Gu gizon koxkor gelditu giñan,
ez gizendu ta ez azi,
bi emakume oiek ez dute
guk degun aña desgrazi.
Edozer gauza egingo die
oiek bi gizon eskaxi,
badaezbada're obia degu
kontra egiten ez asi.

Zizurkilko Saratxota baserriaren inguruan bazan
pagadi eder bat, Garetza baserriaren saillean ain zu-
zen. Anai arteko azken gerra baño zerbait lentxeago,
sasoi ederreko mutillak moztu eta bertan eskuz ze-
rratu zituzten pago arbol aiek, *Norte*-ko trenbidea-
rentzat trabiesak biurturik.

Aita-seme mandazai batzuek bost mandorekin
jetxi zituzten pixu aundiko tabloi aiek. Mando ba-
koitzak bi tabloi, eta egunean bi biraje egiten zituz-
telarik bi ordu inguruko mendibide zakar eta alda-
patsu aietan, Jainkoak daki zenbat biraje egin
zituzten aita-seme gizarajo aiek, etxe bat añako ta-
bloi pillu ura paraje artatik Zizurkilko plazara jex-
ten.

Plazan bi gizonek *kastilloa* deitzen zitzaion pillu
txukunean dolestatzen zituzten. Lan ortan aritu zi-
ranetako bat, nere osaba bertsolari otxan, goxo eta
umoretsua zan.

Bi gizon oiek pillatze lanean ari ziran arratsalde
batez, kotxe dotore batean, gizon ongi jantzitako
batzuek iritxi ziran Zizurkilko plazara. Ongi baz-
kaldu eta umore ederrean zeudela ziruditen.

Bereala galdetu zioten gizon dotore oiek norbaiti
nun lantzen zituzten egur aiek eta nola jexten zituz-
ten.

Onek bai erantzun ere asieratik bukaerara zenbat kosteak ziran egur aiek.

Orduan, gizon dotore oietako bat, nere osaba bere lagunarekin ari zan ingurura urbildurik, lan ortan ari ziran langille guztien goralmenak egiten asi zan, sermoi gisara erderakada xebreak esanez.

Orduan, nere osabaren lagunak onela dio sermoilari xebreakari:

– Tira, tira! Ez diagu ire sermoi bearrik, eta litro bat ardo ekar zak berriketa gutxirekin!

Sermoilari xebreak arek erantzun:

– ¡No entiendo el vasconces!

Eta nere osabaren erantzuna:

– ¡Erretira entonces!

Bañan bereala ekarri zien litro ardoa; etzituen sermoi utsarekin utzi.

Esan bezela, San Migel Txiki deitzen zitzaion, txikia ezik argala ere zalako; bañan emaztea altu eta bikaña zuen. Eizean zebillen batean, onela dio norbaitek:

– Zer degu, Xamiel? Bai al degu eperrik?

Xamielen erantzuna:

– Etxian bai galanta alper-alperrik!

1937 urtean *karolina* egiten zan lantegia zuen ogibide, eta lan astun asko egin bear izaten zan bertan.

Egun batez, bizkarrez kopaketa nekoso bat egiten ari zala ler egiñik, unetxo batean zigarrotxo bat egin eta piztea pentsatu zuen.

Uzten du kopa ipurdiz gora; zakua ipiñi onen gañean; eta, txapela erantzirik eta belaun gañean ura ipiñirik, onela dio bere buru soil polita eskuarekin xaplaka joaz:

- Ai, gixaxua! Oraintxe zereak egin dituzu!

Alboko lagunak irri gozotan jarri zituen. Bañan oraindik lan asko egiteko gelditzen zitzaion gizaioari.

1938 urtean iges egin zuen lantegi artatik asper-turik. Lan astuna eta nagusi lan-saritzalle zeken xa-marra ere izan nunbait gizon ura.

Amabost urteko mutiko batek lantegi artan ja-rraitzen zuen; eta, mutiko onekin nere osabak topo egin zuen batean, onela galdetzen dio gazte oni:

- Zer moduz ari zera lanean?

Mutikoak erantzun:

- Antxe, al dedan moduan.

Nere osabak osterara:

- Zenbat pagatzen dizu nagusi zeken arek?

Mutikoak apal-apal:

- Eguneko durua.

Eta nere osabak erantzun:

- Tiratzea merezi luke buru(r)a!

1938 urtean, Adunako *Sorondo* edo *Talleres Aduna* deitzen zitzaion lantegira aldatu zan.

Tximela bertso jartzalleak ere emen lan egiten zuen. Jainkoak jakin alkarri zenbat xelebrekeri esan zioten.

Neguko goiz illun eta otz batean, mendietan be-raño lañoa sarturik zegoela, onela dio Tximelak nere osabari:

- San Miel: elurrik bai ote da Erniyon?

Nere osabak erantzun:

- Jun da galde iozu zer diyon!

Neguaren biotzean arkitzen giñan egun batez, bere illobatxo neskatil batekin topo egin zuen, eta onela dio bere osaba San Migelek:

– Kaixo, Mari Krutz! Zer moduz?

– Ondo esan bearke. Eskuetan ospelakin nabil. Auxe daukat gaitzik txarrena. Zuk bai al daukazu ospelik?

San Migelek erantzun:

– Nik bai.

Illobak ostera:

– Nun dauzkazu?

– Ipurdiaren ondoan.

Illobak:

– Ene! Ez daukazu toki ederrean!

San Migelen erantzuna:

– Obenean.

Irri gozotan uzten zituan umetxoak ere.

Igande goiz batez, Zizurkilko Pantxikaenea deitzen zaion ostatuan, gazte kuadrilla bat arkitzen zan gosari txikia egiten.

Gazte oien inguruan beste mutil zar bat arkitzen zan, eta San Migel Txiki ere ez andik urruti. Au erretzallea zan; mutil zarra ez.

Garai artan eskuz egiten ziran zigarroak geienbat, eta gazte jendeak askotan etziran osaturik ibiltzen. Papera ez bazan, poxpolloak edo zerbait falta izaten zuten geienak. Bañan nere osabari etzitzaion askotan faltako ortatik.

Koadrillan zeudenetako gazte batek onela dio beste bateri:

– Zigarro paperik bai al dek?

Ori entzutean, onela dio begira zegoen mutil zarrak:

– Pumadoreak beti zerbait palta!

Xamiel Txikik erantzun:



Goien, ezkerretik: Jesus Lete, Millan Salaberria, Teodoro Mujika. Beean: Antonio Kortajarena eta Jose Antonio Iturbe. (Zizurkil, 1952)



Ezkerretik: Jesus Lete, Antonio Kortajarena, Teodoro Mujika, Millan Salaberria, eta Jose Antonio Iturbe. (Zizurkil, 1952)

– Baita mutil zarrak ere!

Mutil zarrak osterara:

– Nik ez det zuregatik esan!

Xamiel Txikiak erantzun:

– Ezta nik ere iregatik!

Udaberriko arratsalde batez, gurdi egurrarekin gentozen osaba Xamiel Txiki eta biok etxera bidean.

Erreka baten ondotik igarotzerakoan, amorrai eder bat ikusi zuen arzulo batean sartzen, eta onela dit neri:

– Eutsi egiezu ganaduei! Arrapatu bear det amorrai ori!

Sartu zan errekan, bañan ezin zuen arrastorik atera. Iges egin zion nunbait.

Une artan, beste baserritar bat iritxi zan eta onela dio Xamiel Txikiari:

– Zer, Xamiel? Arraia al degu, arraia?

Eta Xamielek erantzun:

– Jateko bai garaia!

Xamiel Txiki nere osabari geienezan nik mozten nizkion illea eta bizarra. Lan au egin nion batean, au esan nion:

– Baxoerdi bana artuko degu alboko taberna ortan. Bañan zerbait mokadu ekarriko diot auean sartzeko.

Fruta denda batetik bi platano eder artu nituen; eta, bat berari eskeñi nionean, onela galdetu zidan:

– Zer da au?

Nik erantzun:

– Platanua.

Eta Xamiel Txikiak erantzun:

– Eman didazun kasoan, jatera nua.

Azken urteak lantegiko atezai edo portero igaro zituen. Bañan an ere ez pakerik ematen. Kajak josi eta antzeko lan asko egin bear izaten zuen. Askotan, aserretzeko lain saltsa ere sortzen zitzaion.

Jai egun batez, taberna batean zegoela, onela galdetu zion erdaldun batek:

– *San Migel, ¿qué tal en la portería?*

San Migelek erantzun:

– *Aquello no es portería. Aquello es porquería.*

Nik ez dakit zenbat era ontako ateraldi eta bertso puntu atera zitzaizkan bere bizitzan San Migel Txikiari. Erruz ziur aski.

Apal edo otxana zanez, etzitzaion lagunarte aundietan sartzea gogozko. Naiago zuen bere antzeko jende xearekin umorezko txolarreak jartzea bertsoekin edo umorezko ateraldiekin.

Bertso zar eta berriak kantatzeko grazi berezikoa zan. Billabonan bazan gizon bat berari entzutea oso gogoko zitzaiona, eta onela aitortzen zuen:

– Ez det ezagutu San Migel Txikiak bezelako doñu goxorik duen bertsolaririk.

Esan bezelako lagunarteetan ere oso gustora egoten zan bertsolari goxo ura. Bañan bere emaztea oso maitea zuenez, garaiko erretira egitea gustatzen zitzaion. Onela abestu zuan azken bertso batean:

Oso gustora pasatutzen det
lagunarteko denbora,
bañan au ere kalterako da
neurri batetik kanpora.
Nere etxian nik dakidan bat
zai jarria egongo da,
adios, jaunak, orain banua
emaztiaren ondora.

Festa-egun batez, gure osaba au bertso zarrak kantatzen ari zala, Irurako *Moxo* deitzen zioten bertsolaria inguratu zitzaion, eta onek puntu au jarri zion nere osabari:

– Aixkiria, bota zazu
bertso bat berriya...

Nere osabak erantzun:

Gu orain ortarako
gaude alegiya.
Pixka bat alaituko
al degu erriya?
Biyok jarriko degu
zelebrekeriya.

Alaxe egin ere. Saio ontatik nik ondorengo bi bertso auek gogoan artu nituen: lenengoa *Moxoa*-rena eta bigarrena nere osabarena. *Moxoaren* bertso au *Xenpelarren* bertso batekin nastua dala dirudi.

Adixkide, seriyo
nai nuke gaur mintza,
zer dala uste dezu
Moxuaren itza?
Nerekin daramazkit
sarrailla ta giltza,
ez nazu gaur autsiko,
alperrik zabilta.

Nere osabak erantzun:

Atera dezulako
orrenbeste otsa,
artu biarra zaude
sekulako lotsa.
Aspaldi bukatu zan
zure urre-poltsa,
sarraill giltzak ederrak
bañan baula utsa.

Egun batez, Moxua Billabonako *Ixkiña* deitzen zaion ostatuan sartu zan. Eta bereala asi zan bere buruaz kejak kontatzen, onela esanez:

- Gu beti morroi geren bizitzan. Baserrian serbiziozik aundiena egiten dutenak, morroia eta astoa; eta gaizkien ordaintzen diranak ere bai. Morroiari sukaldean sobratzen diran jan ondarrak ematen zaizkio; eta astoari, ganbelan sobratzen diran belar ondarrak, idiak edo beiak nai ezik utziak.

Gure aurrekoak etziran beti ezti tartean ibiliak. Aiek ere igaro bear izan zituzten bide gogor eta aldapa latzak. Bañan agian guk baño iraupen geiago zuten itxaropenean, eta orregatik ere umoretsuago izan zitezkean.

Orrelakoxea zan San Migei Txiki ura ere. Zenbat aldiz atsegindu ote zuen arek lagunartea? Etzan erreza izketan arrapatzen ura. Ateraldi egokiak zituena eta far noiznai egin arazten zuena.

Atsekabe latzak ikusia izan arren, berezko umore on ori etzuen galdu iñoiz ere. Azkeneko gerra tamalgarri artan ibiliak zituen iru seme. Ura bukatu eta bereala, gerra arek ekarri zizkigun ezbearren ondorioz, iru seme il zitzaizkion. Bazuen gízajoak umorea galtzeko ainbat.

Gogoan det garai artan berak abestutako bertso bat, negarrez amaitu zuena. Etzan gutxiagotarako. Auxe zan, oker aundirik gabe:

Naiz jaio eta bizi izan ez
ain etxe aberatsian,
seme-alabak azi genitun
tajuz ta sendo-antzian.
Zazpi seme ta bi alabatxo
beatzi senide bazian,
sendi ederra giñaden baño
iru mundutik joan zian.

Gaurko gizarteak ere orrelako asko baleuzka, biotz astuna pranko arinduko lirake.

Gure osaba Millan Salaberria au 1889 urteko urrillaren 9-an jaio zan, eta 1955eko urrillaren 23-an il, irurogei ta sei urte bete eta amalau egunera ain zuzen.

Oroitz apal auxe egin nai izan diot, ainbat orrelako lagunarte gozatu zuen nere osaba San Migel Txikiari.

Goiko Jaun Onaren atsegiñetan bedi!

1 Nere osaba maitagarria,
ain ziñan gizon alaia,
itun zegona pozez jartzeko
beti bazeukazun gaia.
Astegunean edo-ta berdin
irixten zanean jaia,
alboan norbait izan ezker
noiznai zan zure garaia,
nai dun guztiak ez du izaten
zuk izan zendun doaia.

2 Edozein garaiz sartzen zanian
gure sukalde goxuan,
silla batian exeriko zan
bere patxara osuan;
beretzat etzan iñoiz faltako
trago txiki bat basuan,
beste mokadu txiki batekin
ura eraten bazuan,
zerbait ixtori emango zigun
bere izketa mantxuan.

3 Aren aotik artua degu
kontatzen degun au dana,
bera izan zan ixtori ontaz
zerbait jantzi ginduana;
xamur da pozik bere azia
ixuri zigun gugana,
guk ere pozik artu genduan
pozik ixuri zuana,
nola ez degu pozik emango
pozik artu genduana?

Pantxikaenea

Pantxikaenea eta Elizondoenea ere deitzen zaio etxe oni. Bi izen oiek ere ongi datozela esan ditekete, San Millango markesaren saillean Pantxika Elizondorentzat egindako etxea danez.

Pantxika au, goien aipatzen dedan bezela, Elizondotar oietako senide bat zan, ezkondua eta familiarik gabea; eta Mugiro baserriko illoba Baltasar artu bear izan zuen, berari lagun egiteko.

Baltasar au oso langille saiaturia izan bear zuen; eta baserriaz gain ostatu eta okindegi ere laxter biurtu zuela dirudi etxe au.

Neskame bat ere artu omen zuen Pantxika onek, Zaldu baserriko alaba Joxepa Antoni Alkorta ain zuzen, benetan emakume biotz zabalekoa.

Bereala Baltasarrekin ezkondu eta etxe ontako nagusi etxeokonde biurtu omen ziran.

Gaur egun jatetxe bihurturik dago etxe au, eta Elizondotarren ondorengoak jarraitzen dute.

Garai aietan, erri txiki geienetan bezela, Zizurkillen ere, gari soro bat edo beste gabeko baserri asko etzan izango.

Baltasar onek bertako baserriarekin egiña zeukan tratua, urte guztian bere dendatik gastatzen zu-

ten janari eta edarien ordaña gariarekin kitotzeko. Zizurkilko baserritarrak oso ontzat zeukaten tratu ori, eta zintzo asko ordaintzen zioten.

Neronek ongi gogoan det, baserrietan garia jo ondoren, ogei bat kiloko zakuetan gurdiz nola ekartzen zuten Pantxikaenera ordain ori baserritarrak.

Ondoren, Pello Errotarekin zuen beste tratua, gari ori bere errotan egotzeko. Beraz, bertako baserrietako garia Pelloren errotan egorik egiten zuen Baltasar Mendizabalek benetako ogi gozoa.

Baziran Donostitik udaran egun batzuek igarotzera Zizurkilla etortzen ziranak, onela esaten zutenak:

– Ez degu, ez Donostian eta ez beste inun, Pantxikaenean egiten dan baño opil gozoagarik jaten.

Zizurkil kamiorik gabeko erria zan oraindik, eta bide trakets aietan ibili bear izaten zuen Pello Errotak ere.

Gure gurasoak sarritan esan oi zuten, bide zar aietan Pellok astoari esaten ziona egin bearra genduela bizi giñan arte:

– Arre, il arte!

Ongi dakigunez, orduko baserritar askotxok etzekiten numero edo zenbakirik egiten; eta, erreal edo pezeta bakoitzeko kastua egiten zutenean, makilla xuxen batean laban batekin koxka bat egiten omen zioten. Orrela jakiten omen zuten zenbat diruren kastua egiten zuten.

Baltasar au nere amonaren lengusua zan, eta nere amonak ere bazuen Baltasar izeneko anaia. Adin berekoak ziran biak.

Euskal Erriak fueroak galdu zituztenean, soldadutzara joan bear izaten zuten orduko mutil gazteak; eta ortik libratu nai zuenak, *cuota* izeneko dirutza bota bear zuen.

1876 urtean galdu ziran fueroak, eta Zizurkillen bi lengusu Baltasar arrapatu zituen lenengo kintoak. *Cuota* pagaturik, aske gelditu omen ziran.

Aiekin batean zan Pedro Maria Otaño bertsolaria, irurak kinta berekoak ziranez, 1855-ean jaiok ain zuzen.

Baltasar Elizondori zizurkildarrak *Mineroa* deitzen omen zioten. Garai aietan, inguru auetan mendi asko zulatu omen zuten, lurpean zerbait burniki edo metal baliotsurik bazegoen jakiteko; eta nere amonaren anai Baltasar au omen zan lan ortan aurrean ibiltzen zana.

Zizurkilko Egita deitzen zaion etxe inguruan, zulo aundiak egin omen zituzten. Bañan etzuten noski, ez an eta ez beste toki askotan ere, igeltso arria edo buztina ez bazan, ezer askorik arkitu, Zizurkil eta bere inguruetan beintzat.

Asteasuko Andatz-zarate inguruan bai omen zan burni mina bat; bañan ez aberatsegia au ere.

Baltasar *Minero* onek bere patrikak arri koxkorez beterik ibiltzen omen zituen, goitik zeuden gizonei lurpean zer mineral arkitzen zan erakusteko.

Baltasar Mendizabalek bai omen zuen 1918 urte inguruan, beraren etxean jan eta lo egiten zuen apaiz gazte bat oso sasoikoa. On Jose Manterola bere izen-abizenak, eta Zarautzko semea ain zuzen.

Eta, ongi dakigunez, 1918-an omen zan ainbeste jende beste mundura bidali zuen gripe gaitz izugarri ura, eta San Migeldian ain zuzen.

Apaiz gazte au ibiltzen omen zan Zizurkillen etxerik etxe, gaxo zeudenei al zuten laguntza ematen eta ildakoen korputzak elizara eta kanposantura eramaten eta abar, bere apaiz eginkizunetan noski. Oso apaiz gazte, adoretzu edo balientea omen zan. Ez omen zuen gaitzarekin kutsatzeko bildurrik.

Egun batez, Baltasar Mendizabal oso tristeturik ari omen zan familietan gaitz gaizto ori egiten ari zan pikardiak kontatzen, bere buruaz ere etsitze-raño.

Eta onela esan omen zion On Jose Manterola apaiz gazte onek:

– Ez bildurtu, Baltasar! Patarrarekin kontra egingo diogu gripeari.

Egun gutxi barru korputz omen zegoen apaiz gazte ura.

Orrelako ondoreak ekarri omen zituen 1914-ko gerra gaizto arek.

Bere illarria orain urte gutxi arte egon da Zizurkilko kanposantuan, egoaldeari begira eta Zarautzko erriari atzea ematen ziola, paretaren kontra. Tamalez, orain urte asko ez dirala kendu zuten.

Gure iritzi apalean, ain garai gogorretan ain gogoz al zuen guztia egiten saiatu zan gizon baten oroi-garririk ez litzake kendu bear. Paretaren ondoan zegoenez, iñorentzako trabarik egiten etzuela gaiñera.

Mundu xeblere onek orrelako balorea ematen die on besterik egin ez duten gizoni.

Gizon on baten oroigarria
kendu ziguten azkenik,
ez det esango neroni ere
erru gabea naizenik.
Bañan olako jokabiderik
zuzentzat artzen ez det nik,
erria ala serbitu zuen
apaiz jator bat izanik,
desegin bear ote genduen
On Jose baten izenik?

San Millango markesen bizikera

Markes famili onetzaz itzegiteko, istorian badago noski guk degun baño argibide ugari eta zeatzagorik. Idazlan apal ontan, guk ikasi genituen gertakari txiki batzuek emango ditugu, irakurleari gozko izango zaizkiolakoan.

Agian askotxok jakin dezateke San Millango markesen arraza Rioja aldekoa zala; bañan Gipuzkoan zituzten beren mendeko baserri eta lur sail aundiak, Zestoan, Zizurkillen eta Adunan bereziki. Bañan Naparroan ere bai omen zuten erri oso bat. Oietzaz gain, Lasaoko eta Zizurkilko erri txikietan bi palazio eder; eta Madrill eta Murziako irietan, beste bi ederragoak. Gipuzkoakoak, udaldirako; eta beste biak, negualdirako.

Lasarte eta Zizurkillek muga egiten duten inguruan, bada Atxulondo deitzen zaion mendi sakon bat. Or omen zan mineral burnikia, markes oien sailletan ain zuzen. Baita ere burnia urtzeko labe oietako bat, itxas tresnak eta abar egiteko. Or ere bai omen zuten parte jauntxo oiek, eta egunero Zizurkildik zaldiz eta karroz joaten omen zan markes oietako bat, bi ordu eta geiagoko bide zarretan.

Beraz, ongi oituak ziran aiek ere mendiko ibillera gogorrak egiten.

Amabostgarren gizaldi inguruan izan ziran zori-gaitzeko Aide Nagusi edo *Parientes Mayores* deitzen zitzaien jauntxo aien joku penagarri artan, naiko kutsatuak izan bear zuten orduko San Millan-darrak, gerora Don Karlosen jarraitzalle izan baziran ere.

Garai aietan, eta geroxeago ere bai, kukurrukua goitik jotzen zuten gizonak ziran aiek, laxter inguruetan etsai gogorrak sortu bazitzaizkien ere.

Zizurkilko Udaletxea plazatik aparte eta markes etxeari atzea emanik egin zutenean, erritarrak etzebiltzan adiskide markesarekin.

Zizurkil eta Lasaoko elizak ere jauntxo oien aginduz eta diruz egiñak ziran noski, peontza lanerako beren mendeko maizterrak arturik; tamalez, besteen onerako baño geiago beren jauntxokerizko ondasunak geitzeko.

Orregatik dute noski eliz oiek San Millan beren patroï edo zaindari.


1792 urtean San Millango markesak irikia omen zan Zestoako ur-etxe edo balnearioa, beren mende zeuzkaten sailletan noski; eta 1882 urtean saldu omen zuten.

Azken markes alarguna Maria de la Blanca Porcel y Quirior izan zan.

Emakume onekin egin zituen nere amak sukaldaritzan urte dexente; eta, ezkondu zanean, bere maizter izan zan Zizurkillen. Berak esanik dakizkigu, ondoren datozen berri txiki oiek.

Markes alargun onek senarra jokalaria izugarria omen zuen, eta bere emazte oni asko sufritu erazi omen zion.

Egun batez, bere lagun aberats batekin, zeñek



San Millan markesen jauregi zatarra.

gosari garestiago egin jokatu omen zuen; eta gizon onek orduko milla pezetako billetekin sua egin eta arraultza pareta prejitu omen zuen.

Bere kontrarioak, berriz, platera bat bete txepetxaren muña osatu omen zuen, eta azkeneko onek irabazi.

Gizon au oso zartu baño len illa dala dirudi, anai arteko gerra ondorean oraindik bizi baizan bere emaztea.

Markes alargun onek bere baserri eta lur sailen zaindari bezela *administrador* izeneko gizonak zituen. Zizurkillen, markes etxean bizitzen zan Migel Maria Bengoetxea -au organista zan-; eta Adunan, Pedro Tejeria, Torre baserrikoa.

Anai arteko gerra aurrean, auteskundeak zira-nean, administradore bakoitzari bidaliko zizkan markes alargun onek partidu karlistari emateko botoak, maizterren artean partitzeko; eta maizterrak zintzo bete bear izaten zuten agindu ori.

Alargun au bi semeren ama omen zan. Bañan auek oso bizi motxa izan omen zuten.

Gazteena *tifus* izeneko gaitzarekin il omen ziztaion, emezortzi urteren loratza ederrean.

Zarrena ejerzitoko komandantea omen zuen. Au nere amak asko ezagutu omen zuen, eta oso gizon umil eta edukatua zala sarritan aitortzen zigun.

Nere ama famili orren serbitzari zala, gaixoturik oiean egon omen zan egun batzuetan; eta gizon onek egunero goizetik bixitatxoa egiten omen zion, galdetuaz:

- Zer moduz zaude, Maria?

Gure amak esaten zuenez, gizon onek, beraren gurasoak bazterturik zeuzkaten *Marqués de San Millán* eta *Barón de Sangarren* goitizen edo graduak artu omen zituen.

Bañan azken tamalgarria izan zuen onek ere. 1936-ko gerra asi eta laxter, errepublika aldeko gizonak eman zioten tratu txarraren ondorioz il zan. Ongi gogoan det orduko egunkariak nola zabaldu zuten berri au, gizon onen argazki eta guzti. Nere amak negarrez irakurri zuen berri ura.

Markes alargun au ordurako adiñez oso aurreratu zan: eta orduan maizter bakoitzari, errentaren konformidadean dirua ordaindurik, etxeak berentzako utzi zizkien, eta maizterrak oso pozik artu zuten Maria de la Blanca Porcel y Quirior onen testamentu edo erabakia.

Ez dakigu zein urtetan il zan, bañan laxter bukatua izan bear zuen munduko bizitza. Goiko Jaun onak bere atsedenean dezala.

Karlisten gerrateko aitonak

1937 urtean, anai arteko gerra bete-betean zegoen garaian ain zuzen, karlisten gerran ibilitako aitonei *tenientes honorarios* erderaz esanik ulertzen dan gradua eman zitzaien.

Oietako bat Zarate baserrikoa zan: Manuel Aia, ain zuzen. Au, 1923 urtetik 1924 arte alkate izana.

Besteak: Altxurria baserriko Juan Jose Irazusta; Areta baserriko Frantzisko Olazaga; Abeletxe baserriko Antonio Ormazabal; Burrusti baserriko Jose Inazio Garmendia; Irakorri baserriko Agapito Zubeldia; eta Berastegi baserriko Esteban Izagirre.

Zazpi aiton auei eman zitzaien gradu ori. Zizurkil bezelako erri txiki baterako asko zirala esan bearra dago. Larogei urtetik gora zijoazenak ziran, eta orduan gutxi ziran adin ortara irixten ziranak.

Altxurriako Juan Jose Irazusta eta Abeletzeko Antonio Ormazabal -oni *Andabarro-Zarra* ere deitzen zioten-, antziñako aiton jarrera jatorra zutenak ziran biak ere. Abeletzekoa aiton igar luze bat zan, pipa erretzalle dotorea; Altxurriakoa, arpegia pekaz betetako gizon txiki bizkor bat.

Biak, itz jario ugariak eta bertsoarako apizio aundia zutenak, goi mallakoak ez baziran ere. Itz batez esateko, nunai eta noiznai umorea jartzen zekiten gizonak.

Altxurria baserrikoa anai arteko gerra ondorean il zan; bañan ez nago ziur zein urtetan. Abeletxekoa, 1948 urteko Eguberri bezperan, ain zuzen.

Eskola gabeko aiton ezjakiñak izan arren, lau puntuko bertsoak, eta luzexeagoak ere, txukun mol-datzen saiatzen ziranak noski, ondoren datozen oiek erakusten digutenez.

1946 urtean, zizurkildar gazte batzuek, Oiar-tzungo Jose Joakin Mitxelena bertsolaria lagun zu-tela, Santa Ageda eskera atera ziran.

Abeletxe baserrira iritxi ziranean, bertako aiton onekin topatu ziran, eta norbaitek esan omen zion Mitxelenari:

- Au karlisten gerran ibilia dek, eta orain urte gutxi *teniente honorario*-ren gradua eman zioteken.

Bereala, Santa Agedaren abestien doñuan, onela kantatu omen zion Mitxelenak:

Aitona balientia,
bizkorra eta tentia,
karlisten gerran soldadu soil zan
ta orain tenientia.

Eta, ate ondoko saioa bukatu ondoren, onela kantatu omen zion Mitxelenari aitonak:

Larogei urte paseak dira
mundura jaio nitzala,
sendotasunez urri gabiltza,
ezurra eta azala.
Gure Jainkoak nai duen arte
ondo kontserba nazala,
eskerrak laguntz ona daukaten,
galduba nintzan bestela.

Ara ondoren Abeletzeko aiton Antoniok Altxurria baserriko Joan Joseri aoz kantatu zizkion bi bertso, adin edo edadez oso aurreratuak ziranean noski, osatutik etxera bidea artzeko unetan:

Orra zer dakarkien
emen zardadiak,
onek baditu bere
nobedadiak.
Ez luke sinistuko
probatu gabiak,
nola gastatzen diran
abilidadiak.
Korputz eroriak,
pauso doloriak,
jetxi baloriak,
ez gaude trebiak,
ta ez gera izango
geroz obiak.

Juan Joxe, artu zagun
etxerako martxa,
illunperako nola
ez geran gauza.
Gazte garaian bezin
errez ez gabiltza,
aixa erortzen gera
eta nekez altxa.
Nik daukadan gaitza
sendatzia gaitz-ta,
bajatu zait bista,
ikusten det pixka;
goazen, argitan ondo
joango naiz ta.

Bertso berriketan ari ziran batean, Abeletzeko aitonak Altxurriakoari:

Altxurria onek dauka
bertsotako antsiya,
ez egon balitz ondo
burutik jantziya.
Lotsagabe, gaizki azi,
berritsu, itz-ontziya,
ik ola kantatzeko
non dek sustantziya?

Abeletxeko aiton onek baditu bi billoba oso bertsolari egokiak, gaur Ernanin bizi diranak, Joan eta Joxe Mari izenekoak.

Lenengo au gaur lan orri utzi xamarrik dago; bañan, gu gazte giñala, alkarrekin jardun izan giñan, eta bertsolari ari egokikoa zala uste det. Santa Ageda eskean arek baño ateraldi dotoreagoko bertsolaririk ez det ezagutu nik beintzat.

Zizurkildik Ernanira joan zanean, bertso agur bat egin genion bere lagunak, eta bertso aietatik bere azken agurra bakarrik det gogoan. Onelatsu zan:

Erri onetan sortua naiz ni,
bertan jaio ta aziya,
emezortzi urte bete artean
Jaunak eman dit graziya.
Orain Ernani aldera nua
aldatutzera biziya,
antxen baidaukat ogibidea
edo-ta irabaziya.
Agur, lagun da erritar danak!
Gora Zizurkil guziya!

Pello Errota

Ez da inguru ontan euskaldun asko izango, gure aurreko gizon onen entzuterik ez duenik. Egunkarietan bein baño geiagotan idatziko zan Asteasu'ko bertsolari argi eta iaio onetzaz.

Auspoa'ren liburuetan naiko argi dagoela uste degu, Pellok lan ontan zuen bizitasun aparta. Bañan ala ere, bere izakera noizean bein berritzea eta bearbada oraindik izkutuan dauden ateraldi eta bertso-
ren bat edo beste argitaratzea atsegin izan diteke.

Bere bi seme-alaba ezagutzera iritxi giñan gu ere, eta alaba oni esker izango dirala uste degu Peloren oroitzarik edo bertso-rik geienak, aipatu ditugun liburu oietan jasoak.

Buru argikoa eta iztun arrigarria zan Mikela Elizegi. Bere anaia, berriz, errespetoko gizon ixilla bezin apal edo umilla.

Gure gurasoak guk baño obeki ezagutu zuten bere izketaldi eta izakeran, eta berak aitortzen zutena da emen idazten deguna.

Bertsolari ona bera ere, bañan garai aietan bertso-
laritzak zituen alderdi illunak, esaldiz eta bertsoz ere salatzen zekiena izan bear zuen Migel Anton Elizegi, Pello Errotaren semea.

Gaur ere badituela esango genduke bertsolari-tzak, oso egokiak ez diran salatu bearreko joera batzuek. Bañan au beste baterako utziko degu. Eta noan artu dedan ariari jarraituaz.

Pello zortzi seme-alabaren aita zanez, bazuen eskuak bete lan, sendi edo famili ura aurrera ateratzen. "Bere errotak ematen zionakin eta bertsoen irabaziekin azi zuan familiya" esaten digu bertso batean Mikelaren seme Bautistak.

Argia, bizia eta trebe purrukatua izan bear zuen Pellok.

Garai artako gazteen eta gaztetxoen aita maitea ere bai, ondoren aipatuko ditugun ateraldi eta bertso auek adieraziko digutenez.

Agian jakingo degu Pello sarritan joaten zala Zizurkil'ko okindegi edo panaderira karrotxo batean, ogi-iriñez betetako zakuekin, astoa tiraka zuela.

Gaztetxoak zai egoten omen ziran, irixten zanean zerbait ateraldi bere aotik entzuteko eta, egokierarik bazan, zerbait zirikatzeke.

Abenduaren 28'a. Egun berezia mutikoak norbaiten kontura far egiteko.

Badator Pello patxara ederrean, astoari arre esanez; eta zein egun zan ere askotxo baño obeki konuratuko zan, zalantzarik gabe.

Mutikoak:

– Egun on, Pello.

Eta zerbait itzegiten asi eta bereala:

– Pello: zer daramazu atzeko aldean?

– Atzeko aldean ipurdia.

Pipa errezalea zanez, au ere galdetu omen zioten noizbait mutikoak:

– Pello: zenbat pipa erre ote dezu zure denboran?

– Nik piparik bein ere ez; beti tabakoa.



Goiko-errot, Pello Errotaren etxea, Asteasu.

Mutikoak era ontan gozaten omen ziran bere ateraldiekin.

Pello Errotaren ingurutik etzan inor asko igaroko, irrifar gozoko agur bat egin gabe.

Gogoan ditugu gure erritar batek kontatutako Pelloren bi agur irritsuak.

Zizurkilko okindegira karroa bete zaku iriñekin zetorren batean, baserritar gizon txiki zirikatzaile batekin topo egin zuenean, onela agurtu omen zuen gizontxoak:

– Bazatoz, Pello, iriñakin.

Pellok erantzun:

– Bai; eta etxean egiñakin.

Gizontxoak berriro:

– Baña zeñek ekarriyakin?

Pellok azkenik:

– Demonio mutur zikiña, ik ere oinbeste jakin!

Beste batez, Pello abixu batekin auzoko baten etxera joan eta, atea jo zuen bezin laxter, bertako nagusia, zurezko kutxarea eskuan zuela, atera omen zitzaion; eta Pelloren agurra artu bezela, onela erantzun omen zion:

– Kaixo, Pello! Ara: gaur andrea kanpoan diat eta neroni ari nauk kuziñari.

Pellok laxter erantzun ere:

– Ederra izango aiz, zikiñ ori!

Era ontako ateraldi asko dira Pellorenak. Baña luzeegi egingo litzaiguke asko jarraitzea, eta gazte-talde bati abestu zion bertso bat idatziko degu orain emen.

San Juan txiki eguna edo Erniora jenderik geiena igotzen zan igandea omen zan. Pello, ordurako eda-detua, etxe aurrean omen zegoen exerita, beera ze-

torren jendeari begira. Onetan, Billabonako gazte-taldea inguratzen zaio.

Onela kontatzen zigun erri ontako seme zan Pepe Sorrogieta gizon ezagunak:

– Ernioko birajetik bagatoz Asteasutik Billabona aldera, eta bere etxeko ate ondoan ikusi genduen Pello Errota. Ordurako gizon urtetsua zan, eta bera-gana inguratu giñan tertulitxo bat egitera; eta, ori egin ondoren, neronek eta beste lagun batzuek auxe esan genion:

– Pello, zure bertso bat entzungo genduke pozik!

Eta bai leial asko kantatu ere. Oker aundirik gabe onela kantatu zigun:

Erniora bideak
badakizkit ondo,
sasoian egiña naiz
joan-etorri pranko,
bai dibertitu ere
soiñu ta fandango,
baiñan Pello Errota
ez da geio joango.”

Garbi ikusten dala uste degu emen, Pello zertara-koa zan. Erriari poz emateko jaio zan, eta erriari poz ematen bukatu nai zuen Asteasuko seme maitagarri onek.

Gure aurreko aiek,
askoren moduan,
ederki probatuak
ziran otz-beruan.
Biotzak ipintzeko
beren soseguan,
Pello, zure bertsoen
bearra zeguan,
amaika biotz triste
alaitu zenduan.

Pello, bertsua zendun
era xamurrean,
giro gozoan eta
giro gogorrean.
Bertsoz amaitu ziñan
azken agurrean,
ez bazendun naikoa
abestu lurrean,
orain abestu zazu
santuen aurrean.

Ernio mendi eta San Juan Txiki

Naturazale eta bere inguruetan bizi geran guztiok diogu itzal eta errespeto aundia Gipuzkoan al-tuenetako bat dan mendi oni, eta bere ekialdetik bizi geranok bereziki, goiz argietan eguzkiak begiz le-nengo jotzen digun mendia dalako, eta sartaldearen erdian daukagulako ere bai noski.

Asteasu erriaren inguruetan bizi geranontzat, eguzkiaren sarreran, Ernio mendia eta beraren ez-ker-eskubitik daudenak ditugu señale garbi, zein urte garaietan bizi geran jakiteko.

Gu bizi geran inguruetatik, onela ikusten degu oker aundirik gabe: Ernialde erriaren gañean dagoen Elketegi menditik Erniozabal tartean eguzkia sartzan danean, negua. Erniozabaletik Erniora tartean, udaberria. Erniotik Gazume mendia igaro artean, udara. Eta, ortik berriro itzultzen danean, Erniotik Erniozabal tartea, udazkena.

Kristau errietan, abuztuko illaren 29-an ospatzen degu Juan Bataiatzallearen eriotz eguna, eta Iturriotz baserriaren alboan dagoen ermita zarra santu onen oorez egiña da noski, bere eriotzaren oroigarri alegia.

Ongi dakigunez, Aiako lur sailletan daude Iturriotz baserria eta ermita ori ere. Beraz, Aiako eta inguruetakoko kristauak izango ziran ermita polit au egin eta Juan Bataiatzallearen eriotz egunean ospakizun bereziak egiten asi ziranak, gerora oitura oiek Euskal Erriko toki askotara zabaldu baziran ere.

Adibidez, ermita ortan meza santua entzun, Erniora igo eta, or guruzbidea egin ondoren, korputzaren osasunerako zala sinisturik, uztai batzuetatik pasa eta abar egiteko oiturak alegia.

Alboan dagoen iturritik dator, zalantzarik gabe, Iturriotz izen au; eta ermitaren azpitik igarorik irixten omen da ura iturrira.

Orregatik, antziñako kristauak osasunaren onerako zala uste omen zuten iturri ortako ura. Bañan sarritan entzunak gera gaixotzeko arrixku aundikoa dala ere, oso otza dalako noski.

Iturriotzko Benta deitzen diogun ostatu onek bazuen bere auzoan eta oso gertu beste etxe bat, ostatua bera ere, Mugatz izenekoa, tamalez gaur deseginiñik dagoena. Bi etxe oien tartean egiten zuen erromeria, Erniotik berakoan, ekialdeko jendeak.

Sartaldetik Erniora igotzen ziranak, adibidez Errezil, Azpeiti, Bidani eta abarretakoak, berriz, Zelatun zuten beren erromeri toki.

Gerra aurretik, eta geroxeago ere, gure alderdi edo Ernioren ekialdeko jendea, adibidez Ernani, Astigarraga, Urnieta eta abarretakoak, jai bezperan eta illunabar aldera igarotzen ziran, kuadrilla ederrak osaturik, beren soñu, pandero eta turuta otsak eta irrintzi ederrak atereaz, umore ederrean, Billabonatik Asteasura bidean.

Emen nolabait gaua igaro eta bertan meza entzuzera joaten ziran. Batzuetan istillu eta zarata sartzen ziran elizara, eta Asteasun orduan zan erretore On Lorentzok gogor itzegingo zuen, esanez:

– Eliza ez da erromeri toki, eta meza santua errespetoz entzun mesedez!

Ondoren, jenderik geienak Larraulko bidea artuko zuen. Ortik gora irixten ziran Zelatunera, eta ortik Erniora, ango egin bearrak egin ondoren, goian aipatzen dedan bezela, Iturriozko erromerira jexten ziralarik.

1932 urtea omen zan, Mugatz baserriaren ondoan tolosar eta zizurkildar batzuek izugarrizko iskanbilla sortu zutena, utsaren urrengo setakeri bat zala medio.

Urte aietan argazkilariren bat joaten omen zan erromeri ortara, eta zizurkildar kuadrilla bat argazkia ateratzen asi zan.

Bañan tolosar batzuek ere aiekin batera atera nai omen zuten, eta zizurkildarrak ezezkoan asi omen ziran.

Eztabaida ontatik izugarrizko saltsa sortu ondoren, makil joka egin omen zuten alkarren aurka, jendeak sakabanatu zituen arte.

Au gertakizun txiki bat besterik ez da. Orrelako asko gertatzen ziran lenago ere Ernioko jai oietan.

Bañan ona emen, atal au bukatzeko, Ernio mendiari moldatu dizkiodan bertsoak:

I Ernio mendi, zuri begira
atsegintzen naiz noizean,
nere mutiko-garai artako
egun aiek oroitzean.
Udaberrian eta udaran,
goi garbia zan goizean,
lo gozotikan argi esnatzen
giñan egun bakoitzean,
amak agur au egingo zigun
bere lenengo itzean.

2 Gure gelako ate ondolik
oiu alai au zerion:
“Altxa, mutillak, eta ikusi
eguraldiak zer dion.
Eguzkiaren begi biziak
gogoz jotzen dik Ernion!”
Eta ondoren otoitz goxo au
ere entzuten genion:
“Goiko Jaun Onak digula danoi
egun on eta berri on!”

3 Gure sartalde erdian zaude,
Ernio mendi altua,
antziñatikan guraso zarrak
otoitz lekutzat artua.
Gurutz eder bat utzi ziguten
arkaitz bizian sartua,
euskaldun eta fededun aiek
sarritan besarkatua,
argatik deitzen dizugu gure
mendi tontor sakratua.

4 Ernio mendik ikusi gindun
ernatu eta loratzen,
Ernio mendik ikusi gaitu
edadetu edo zartzen.
Zuri begira gu ere orain
egoten gera gozatzen,
zuri begira aurtzaroaren
egun aiek gogoratzen,
zuri begira oitu baigiñan
esnatu eta lo artzen.

Korrika apustu bat

1925 urtea izan omen zan, Zizurkilko Leargain baserriko Jesus Etxabe eta Asteasuko Ondartza baserriko Juan Kortajarenak buruz-buruko laxterketa edo korrika apustua jokatu zutena. Billabonatik Aiara zan egin bear zuten bidea.

Asteasuarra, guk ezagutu genduenean, gizon sendo eta indartsua zan; eta urte artan, gazteago bazan ere, etzan itxura txarreko mutilla izango.

Zizurkildarra, berriz, oso mearra eta kolore berdekoa zan. Bañan korrikalari oso ona, agian garai artan Euskal Errian gutxi bezelakoa.

Beraz, mutil oien ezberdintasuna ikusirik, asteasuarrak oso ziur zeuden itxurarik gabe irabaziko zutela joko ori.

Larunbat gau batez, asteasuar batzuek, burua goian zutela etorri omen ziran Zizurkilla, Asteasu aldera sartzen dan eta *Perrotia* deitzen zitzaion bidean gora; eta Pantxikanea ostatuan omen zegoen gobernatzen Leargain baserriko Jesus Etxabe.

Zizurkildarrak orduan ere xixikoak izaki, eta bazekiten, apustua jokatu bezperan, asteasuarrak dirua jokatzeko asmoz etorriko zirala.

Onela esan omen zioten mutil gazte argal oni bere lagunak:

– Txamarra xar batekin eta bizar luxearekin, itxura txarrean azaldu bear dek asteasuarrak datozenerako.

Eta bai mutillak alaxe egin ere.

Sartu omen ziran Pantxikaenean asteasuar oiek, eta laxter asi omen ziran erronkan:

– Zer? Zizurkildarrak bai al daukazute dirurik jokatzeke-edo?

Zizurkildar batek erantzun:

– Ez dago emen diru askorik, bañan norbaitek zerbait eduki lezake.

Eta asteasuarrak:

– Bota, zerbait badezute!

Au Agerre-goiko gizona omen zan.

Zizurkillen ere bazan oso xotil itxurako gizon bat: au Arrazubi baserrikoa, berriz. Umil antzean erantzun omen zion gizon onek:

– Askotan ez det izaten, bañan gaur zerbait badaukat nik.

Eta asteasuarrak onela esan omen zion, milla pezetakoa eskuan zuela:

– Bota daukazuna!

Bai zizurkildarrak erantzun ere. Ostera asteasuarrak:

– Bota bestea!

Eta berriro zizurkildarrak erantzun.

Sei milla pezta jokatzerano iritxi ziranean, asteasuarra ixildu eta zizurkildarrak esan omen zion:

– Nai al dezu beste bat geiago jokatu?

Eta besteak:

– Ez. Naikoa degu.

Garai aietarako diru pilla ederra zala ez dago du-

darik. Ala ere, asteasuarrei etzitzaien damutu diru ori jokatua, gau artan beintzat.

Etixeruntz abiatu ziranean, norbaitek zelet egin zien beren artean zer itzegiten ote zuten entzuteko. Onela omen zioten asteasuar oiek alkarri:

– Santa sekulan dirua jokatu eta gustorago ez nauk gelditu izan.

Bañan uste etzuten zigorra zeukaten gañean. Apustu eguna iritxi zanean, eragozpen aundirik gabe irabazi zuen zizurkildarrak. Ara, beraz: batzuentzat poza eta besteentzat negarra izango zan orduan ere.

Ondorengo apustu batean, ordea, zizurkildar berak izugarrizko jipoia artuak omen ziran. Aspaldiko esaldiak dion bezela, jokoa ez izan errenta.

Euskal Erriak bere birtuteak eta bere akatsak izango zituen leen ere, eta auxe izan zitekean akats oietako bat: dirua errezegi jokatzeari alegia.

Korrika apustu ori jokatu eta urte dexentera, desapioko pelota partidua bat jokatu zion asteasuar bategi zizurkildar bati. Billabonako frontoian izan zan partidua; eta desapiokoa zanez, jende asko bildu zuten, bi erri oietatik bereziki.

Asi ziran jokatzeko eta kolorerik gabe irabazi zuen asteasuarrak.

Bautista *Ondartza* bertsolariak ere parte dexentea zuen joko edo partidua ortan, asteasuarraren aldetik diru dexente ere jokatua noski; eta, oso pozik zegoela norbaitek ikusirik, onela esan omen zion:

– Gaur zizurkildarra aixa menderatu dezute, Bautista!

Eta onek erantzun:

– Bai; zizurkildarrak asteasuarrekin poliki-poliki ibili!

Etzeukan alboan bertsolari eskaxa, berari egoki erantzuteko: Otañotarren kastako eta ateraldi dotoreko iztun egokia zan Emiliano Bengoetxea, ain zuzen. Bautistaren arrazoia entzun bezin laxter, onela dio:

– Zizurkildarrak asteasuarekin poliki-poliki ibili? Adiskidea! Azkar ibiltzen asita ere, zizurkildarrak asteasuarrari irabazi izan dio gero!

Bautista beraren anaiari gañera.

Gure iritzirako, ori da izketan bertsolari izatea.

Adunibar baserriko gertakari txiki batzuk

Juan Jose Otaño Tapia, 1806 urtean Larraulen jaioa eta Zizurkilko Adunibar baserrira ezkondua, Errekalde-zar bertsolariaren anaia eta Jose Bernardo bertsolari entzutetsuaren osaba zan, ain zuzen.

Juan Jose onek bere alaba bat etxean ezkondurik utzi zuen, il zanean, Xalbadora izenekoa. *Xalbora* deiturik ulertzen omen zuten Zizurkillen. Eta au, Sebastian Bengoetxea izen-abizenak zituen gizon batekin ezkondurik bizi omen zan, Urnietakoa bera.

Senar-emazte oiek oso joera ezberdiñekoak omen ziran. Xalbadora, dirua gastatzeko zalantzarik gabea; eta Sebastian senarra, oso zintzo edo zurra ere bai.

Adunibar baserria, Zizurkillen zan baserririk ederenetako bat zan, bere errota eta guzti, gaur egun fabrikak eta igeltsotegiak bere lur sail asko ondaturik badauzkate ere.

Beraz, bazan gari sail eta arto soro ederrik, Sebastian eta Xalbadoraren garaietan, Adunibarren.

Bañan, bat zurregia zalako eta bestea gastatzea



Adunibar baserria, Zizurkil.

gustatzen zitzaiona zalako, ongi konpontzen bazuten naiko lan senar-emazte oiek sarritan.

Sebastianek, garia kutxa aundi batzuetan sartu eta kutxa oiek giltzaturik jartzen omen zituen, emazteak errezegi gastatuko zion bildurrez.

Bañan, esaera zarrak dion bezela, "zurraren poltsak bi zulo". Eta Xalbadorak, kutxari azpitik zulo txo bat egiñik, pitxarreko botilla batera ateratzen omen zuen garia. Pitxarreko botilla oiek iru litroko ontziak omen ziran.

Zalantzarik gabe, Xebastian konturatuko zan, eta etziran purrustada gozoak izango ondoren.

Xalbadoraren senar onek Donostiko Banku etxe batean edukitzen omen zuen bere altxor edo diru poltsa.

Egun batez, diru ori Banku batetik bestera aldatzera joan omen ziran senar-emazteak. Eta aldaketa ortan Santa Katalinako zubia pasa bear omen zuten. Ori igarotzen zijoazela, onela esan omen zion Xalbadorak senarrari:

- Xebastian, gaur dirua eskuetan degun ezker, leporako pañuelo bat erosi bearko didazu!

Eta senarrak erantzun:

- Zubian bera danak azkar botako ditut gero!

Gizon onek ontzako urre mordotxo bat ere bai omen zuen; eta, emazteak etzekiela, sukaldean zulo txo bat egin eta lurpean gorde omen zituen.

Bañan bere bizitzako azken egunetan mututurik gelditu omen zan, urre oiek nun jaso zituen iñork etzekiela.

Urte askoren ondoren, sukaldea berritzen asi ziranean, agertu omen ziran urre oiek; eta soroan ere arkitu omen zuten ontzako urre bat.

1925 urtean adiñez oso aurreratua zegoen Xal-

badora alargun au; bañan ala ere etzan errez ikaratzan zan oietakoa.

Egun batez, usurbildar batzuek, Zizurkilko Uztartza mendian eta illuntze aldera, basurde izugarri bat eriturik utzi omen zuten; eta basurdea gabaz Adunibar errotako presaren ondora jetxi.

Xalbadora konturatu zanean, sardearekin atera omen zan basurdeari aurea ematera.

Onen ots eta zaratak entzun zituztenean, inguruan bizi ziran Errekaldeko Joxe eta Loidi baserriko Joxe Ramon inguratu omen ziran eskopetakin; eta bigarren onek eman omen zion errematea. Gutxi izaten diran bezelako basurdea omen zan.

Gaur Adunibar baserrian Xalbadoraren billobak bizi dira, eta berak eman ziguten gertakari oien berri.

Emiliano Bengoetxea

Gizon au Zizurkilko Adunibar baserriko semea zan, eta gazterik Adunako Sonola baserrian, bere osaba *Koxkoa* deitzen zioten Pedro Bengoetxearekin bizi izan zan, berrogei urterekin ezkondu zan arte. Anjelita Tejeria, ogei urteko neskatxa, artu zuen emazte, benetako emakume piña.

Emilianok eta nere aitak Diputazioko argintza lanak egiten zituzten, kamioetakoak bereziki.

Zoritzarreko gerra garai artan, Emiliano Diputazioko lantegi ortatik bota egin zuten, abertzaleei botoa ematen zielako, bete-betean aur txikiak zituenen gañera.

Gero, Andoaindik Billabonara bitartean zan losa-arrobian lan egin bear izan zuen, bertako nagusiak losa-fabrikara ekarri zuen arte. Urte mordotxo batean emen lan egin zuen, bertan il zan arte ain zuen.

Ara nola izan zan beraren eriotza: Adunako zubi inguruan dagoen etxe polit batean bizitzen zan, eta lantokira beti trenbidetik etortzen zan, eta Oria ibai gañeko tren zubia pasatzen zuen. Ori oso arrisku-tsua zan, bañan bera ainbat bider igaroa izan eta ez arriskurik ikusten nunbait.

Egun batez, uste gabeen, trena gañera zetorkiola ikusirik, korrika larri izugarri batean igaro zuen tren zubi ori. Larri orren ondorioz, lantokira iritxi bezin laxter lurrera erori eta illik gelditu zan.

Orrelaxe bukatu zuen Otañotarren odoleko iztun egoki eta ateraldi dotoreko gizon patxarako atsegiñak. Goiko Jaunak berekin beza!

Sei seme-alaben aita zanez, urte gogor aietan naiko lanekin azi bear izan zituen bere aurrak, eta semerik zarrena oso gazterik jarri zuen lanean. Bere lantokiko nagusiak onela esan omen zion egun batez:

– Emiliano, semerik zarrena oso gazterik jarri dezu lanean, eta eskola da biarrena.

Eta Emilianok erantzun:

– Bai. Eskola da biarrena, bañan jatia aurrena.

Beste egun batez, onela dio nagusi berak Emilianori:

– Bizimodu galestia jarri zaigu, Emiliano. Aragia bera ere ara gora nola dijoan!

Emilianoren erantzuna:

– Aragia dijoala nai duen aña gora, aspalditxotik ere ez dago nere eskuen irixbidean eta.

Ala ere, etzitzai on iñork gizajotzat edukitzea grazitan erortzen. Egun batez, bere lantegiko gazte bat joan zitzaion zigarro txo bat eskatzera, esanez:

– Emiliano, zigarro bat emaidazu mesedez, gizajo orrek!

Emilianok erantzun:

– Ik bai al dakik zer esan nai duen gizajoak?

Gazteak erantzun:

– Ez. Ez dakit, ba, egia esateko.

Eta Emilianok berriro:

- Ikasi zak, ba, eta gero etorri adi zigarroaren bila!

Urrengo egunean, gaztea damaturik, berak eskeñi omen zion zigarroa; eta, barkazioa eskatu ondoren, gizajoak zer esan nai zuen erakusteko esan omen zion. Eta Emilianok erantzun:

- Banitxekian etorriko intzala galdera ori egitera. Ara zer esan nai duen gizajoak: simaur pillaren gainean ateratzen dan perretxikua esan nai dik itz orrek.

Emiliano 1958 urtean il zan, azaroaren 14-ean, irurogei ta lau urte zituela.

Indianoak

Kristobal Kolonek Indietako lurak zapaldu zituen ezkerre, paraje aietara joan-etorria egiten zuten gizonak zeramatzen noski *indiano* izen ori. Jauntxo dirudun edo orrelako zerbait esan nai zuela diruri deitura onek.

Ixtorian garbi dagoenez, lenengo lur aietara iritxi ziran gizonik geienak, ango urre eta beste ondasun askoren jabe egin ziran; eta aiengandik artua izango zuela uste degu *indiano* izen onek aberats soñu ori.

Tamalgarría dala uste degu, españiar eta euskaldun askotxok ere lur aietan utzi zuten ixtoria, zorioenez biotz oneko gizonik ere iritxi izan zan arren. Ez ditugu entzun besterik, gaurko indioak telebistaz eta abar egiten dizkiguten aitormen penagarriak.

Bañan noan *indiano* izen oni buruz dakidan apurra idaztera.

Gure garaietarako, *indiano* izen au, erabat ez bazan ere, galdu xamarra ezagutu genduela uste det. *Amerikanoak* deitzen genien geienak, gure mutiko garaietan eta gaur ere bai, lur aietatik joan-etorria egindako gizona. Bañan gure aurrekoak sarritan aotan ibiltzen zutena zan *indiano* itza.

Adibidez, Euskal Errian zear bada noski Indiano-

enea, Indianesa edo Indiano-etxea eta abar deitzen zaion baserri eta etxerik asko.

Gaur egun desegiñik badago ere, Aduna errian eta plazaren inguruan bazan Indiano-enea deitzen zitzaion ostatu edo taberna bat; eta Billabonako Legarreta balleran ere badegu Indianexa deiturik ulertzen degun jauretze edo palazio gisako baserri eder bat.

Guk ezagutu genduen indiano edo amerikanorik zarrenetako bat, Aduna erriko Sonola baserriko Pedro Bengoetxea izango zala uste det. Gizon au *Koxkoa* esanik ulertzen zan. Baserritar txukun eta egokia zan, eta Amerikan egin zuen diruarekin baserritxo polit ori erosi eta itxuraz bizitzen zekiena.

Bañan emaztea zuen oso goitik kukurrukua jotzen ziona, Zizurkilko Etxeberri baserriko alaba; eta onen aitari *Panparron* deitzen omen zioten.

Koxkoa aserre xamar zegoen batean, onela esan omen zion auzoko gizon bateri:

– Ezagutzen al dezu nere andrea?

Gizonak erantzun:

– Ezagutuko ez det, ba, zure andrea?

Eta *Koxkoak*:

– Ez. Zuk ez dezu ondo ezagutzen. Nere andrea *Panparron* da, *Panparron*!

Koxkoa Otañotarren odolekoa zan, Adunibar baserrian jaioa zanez, eta bertsozale purrukatua.

Beraren garaietan eta lentxeago ere, bazan Otañotarrrik Amerika aldean. Pedro Maria Otañok bere bertso ederretan digunez, bazituen familiko bat eta bi baño geiago Arjentinako uri inguruetan.

Gure erri txiki eta inguruetatik, 1900 urtean edo zerbait lentxeago asirik eta 1920 urte bitartean joango zala uste degu jenderik geiena. Soldadutzaren

igesi ere asko, bañan urte aietan baserrietan famili aundiak eta irabazbide txikiak zeudelako ere ez gutxi, ziur aski.

Garai aietako gazte jendeak ikusten zuen *Koxkoa* eta bere antzeko batzuek ere altxor polita ekarri zutela, eta orrek ere asko berotu zituela dirudi asmo oiek artzeko.

Gure erri txikietako jendeak Arjentina aldeko lurrak zituela dirudi gogozkoenak, baserri lanetan oituak ziranez eta ganadu toki ziralako noski.

Aspaldiko garaietan izango zan diru asko egin-dako euskaldunik edo indiano aberasturik. Bañan guk ezagutu genituen geienak beintzat, ongi sakrifikuatuz egindako txanponak zituztela esango nuke.

Beren jatorrrira zetozenean, gurasoen etxeetan igarotzen zuten udaldia, baserri lanetan lagunduaz eta etxeko otorduak egiñez.

Zizurkilko Pantxikaenea deitzen zaion etxetik ere baziran bost senide Arjentinara joanak, eta oietako iru bertan il ziran. Bañan ez beren txokora bixitatxoren bat edo beste egin gabe. Oiek ganadu eta kanpo ederren jabe ziranak noski. Oraindik gure artean degu senide oietako bat: Isabel Mendizabal, benetako emakume gozo, atsegiña.

Neronek ere banituen bi osaba eta bi izeba, aruntzako bidea artu zutenak. Bañan iru bakarrik iritxi ziran Arjentinara. Izeba bat, aitaren arreba, Pakita izenekoa, itxasontzia urperatu eta itorik il zan. Beste izeba, Tomasa, amaren aizpa, Pantxikaenea deitzen zaion ostatuan serbitzen zegoala, indiano dirudun bat etorri omen zan Zizurkilla; eta, alkarrizketatu ziran batean, onela esan omen zion, amazpi urte besterik etzituen neskatxa oni jaun orrek:

– Amerikara joan nai badezu, neronek pagatuko dizut bidaia.

Eta bereala konformatu, ume izatetik atera gabeko neskaxa ura.

Bereala amari esan omen zion zer asmo artu ziotuen, eta amak negarrari eman omen zion, esanez:

– Bañan, Tomaxa! Bai al dakizu zer egitera zoazen?

Eta alabak erantzun:

– Bai, ama. Pentsatu det eta joan egin bear det. Preparatu bezaizkit biderako bear ditudanak.

Gure amona gaixo eta beartsuak etzeukan ezer asko, orduko baula eder aiek erropa berriz eta abar betetzeko. Ziur aski, auzokoren bati eskatu bearko zion laguntza. Bañan nolabait ere bete omen zion baula ori, neskaxa orren aizpa zan nere amak esaten zuenez, ez negar gutxi eginda noski.

Etorri da abiatzeko egun ori; eta amari, bi musu emanik, betirako izkutatu zitzaion. Etzuen geiago ikusi, arunztik bialitako argazkiren batean bakarrik izan ezik, ziur aski.

Ondoren, beste seme bat, Jose Inazio, amaren anaia, kintaren edo soldadutzaren igesi joan zitzaion; eta au ere, geiago ikusi gabe, Arjentinan ilzan.

Geroxeago, amaren ondoan gozo-gozo bizi zan seamerik gazteena, Silberio, joan zitzaion. Au parrandero xamarra ere bazan; eta, ango bizikera latza probatu zuenean, amaren ondora etortzeko gogoia egin omen zitzaion. Bañan ez omen zeukan ortarako dirurik. Ala ere laxter egin omen zuen onuntza zetorren batekin tratua.

Izketaratu ziranean, onela esan omen zion nere osaba onek amerikano dirudunari:

– Entzun dedanez, Euskal Errira bixita egitera zoaz.

Besteak erantzun:

– Bai. Olako egunetan ateratzen naiz.

Eta nere osabak:

– Neroni ere pozik joango nintzake, emengo bizi-kerak ez dit onik egiten eta. Bañan dirurik gabe nago. Aruntzako bidaia pagatuko bazidazuke, an nere amak ordainduko lizuke.

Izketan ere prailleak baño gozoagoa zan; eta, oso piaturik, dirudun amerikanoak bidaia pagaturik etorri omen zan amaren ondora berriro.

Onuntz iritxi eta egun batzuetara, or dator dirudun amerikano ori gure amona gaixoarengana, zor ori kobratzeko asmoetan.

Etxeko atea jo zuenean, amona atera omen zan eta onela esan omen zion amerikanoak:

– Zu al zera Silberioren ama?

Eta nere amonak baiezkoa erantzun ondoren:

– Zure semeari nik ordaindu diot onuntzako bidaia, eta zuk kitatuko didazula esan dit.

Nere amonak burura eramango zituen eskuak, patrikan eta beste inun ez baizuen izango ogei ta bi milla errealeko altxorrik.

Norbaiten laguntza bearke zuen ori kitatzeko, bañan nolabait ere tapatu omen zuen zulo ori. Eskerrek emakume zintzo eta saiaturia zan. Guzti orren bearra izango zuen gaixoak.

Nere osaba Silberio au oso istimatua zan bere erri Zizurkillen, berez oso tenple oneko gizona, langille txukuna eta umoretsua zalako bereziki. Txerri eta txekor ilketak egiten ere ongi moldatzen zan. Egun batez, baserri batean txekor bat ikulluan illik arkitu zuten; eta gure osaba oni esan omen zioten enpatxuz il zitzaiela txekorra, bañan berak etzirala atrebitzen jatea; eta, nai bazuen, aprobetxatzeko.

Nere osabak erantzun omen zien:

– Txekor onek ez dauka ezer jateko, eta nik larruturik aprobetxatuko det.

Asi da larrutzen eta bereala etorri zaio bere lagun bat esanez:

- Zer ari aiz?

Nere osabak erantzun:

- Pusketa bat emango diat etxera eramateko.

Lagunak erantzun:

- Ez, motell. Erorrek jan zak, nai badek, txekor akabatua.

Eta nere osabak laxter erantzun zion:

- Ez; bizirik dagoela jango dek ik.

Udara askotan etortzen ziran amerikanoak Zizurkilla, eta berak prestatzen zien sarritan pazientzi ederrean egindako aragi errea, ondoren bere umorez gozatzen zituelarik.

Udara batez, urte asko Amerikan egindako gizon bat etorri zan, Zizurkilko Garetza baserriko semea ain zuzen, bere ama eta familikoak bixitatzera noski. Gizon au Arjentinako lur zabal aietan lan asko egindakoa eta bertan familia azia zan.

Jai egun batez, nere osaba au eta biok joan giñan amerikano zintzo ura bixitatzera. Iritxi bezin laxter agertu zan amerikano ori, eta onela dio nere osabari:

- Kaixo, Xilberio! Zer moduz bizi aiz?

- Ondo -nere osabak erantzun ondoren, onela dio amerikanoak:

- I ere joan intzan gu bizi geran paraje aietara, bañan denbora gutxi egin uan ik an. Laxter antz eman ioan ik ura zer zan!

Garbi ikusten danez, an ere baserrian latz oitutako gizonak etsitzen zuten errezena.

Nere osaba onek bazuen beste lagun bat ere, oso denbora gutxi egiñik Amerikatik etorria. Au ere dirurik gabe noski, bañan bizarra eta illea luzeak. Oiek mozteko ere amak eman bear gizarajoari.

Joan da moztzallearengana; eta, txukundu zue-
nean, amar durokoa eman omen zion kobratzeko
moztzalleari. Garai aietan amar durokoa etzan
txantxetako dirua.

An omen zegoen begira, itz bat sarritan esan oi
zuen gizon xeblebre bat, eta onela omen zion:

– Xoxik gabe etorri dala au Ameriketatik!

Eta berriro:

– Xoxik gabe etorri dala au Ameriketatik! Amak
emango zion amar durokoa! Amak emango zion
amar durokoa! ¡*Madre cincuenta!* ¡*Madre cincuenta!*

Geroztik *Madre-cincuenta* deitzen omen zioten.

Ezagutu genituen lanaren sakrifizioz diru mor-
dotxo eta ontzako urre ederrak zituzten amerika-
noak ere. Adibidez, Adunako errian bazan *Altzarteko*
Amerikanoa deitzen ziotena eta ontzako urre mor-
dotxo baten jabe zana. Onek Andoaingo *Moleda* fa-
brikan lan egiten zuen, eta bertako nagusiari saldu
zizkion urre oiek.

Ari oni jarraitzen asi ezkeru, buka eziña egingo
litzaiguke Amerikatik onuntza altxor ederrak ekarri-
tako gizonen zerrenda.

Pedro Maria Otañok bere bertsoetan esaten digu-
nez, euskaldunak bera ibilitako tokietan oso ixtima-
tuak ziran. Bañan bazan bestelakoren bat edo beste
ere. Bi anka eta bi besoetatik lau zaldi erantsirik za-
titu zuten zizurkildar ura etzan izango santuen arte-
koa. Ala ere, ez degu zalantzarik gizon langille jator
asko iritxi zala paraje aietara gure Euskal Erri onta-
tik.

Ara, beraz, amerikano edo indianoei buruz nik
dakidan ixtorri apurra.

Aita Julian Lizardi

1992 urteko Eguberrietan il zitzaigun Asteasuko erretore On Ipolito Usabiaga jaunak, 1974-an argitaratu zigun liburu goxo bat, *El Valle de Aitzondo* osatzen zuten errien ixtori edo aipamenak egiñez.

Erri olek Asteasu, Anoeta, Aduna, Alkiza, Larraul, Zizurkil eta Ernialde dira.

On Ipolito Asteasuko erretore zanez, erri ontaz egiten duen aipamena, gozo aparta dala iruditzen zaigu.

Urzuriaga baserriko seme zan Aita Julian Lizardiren aipamenean, onela digu erderazko itzetan:

"El 30 de noviembre de 1695, nació al pie del monte Ernio, en el caserío Urzuriaga, Julián de Lizardi, preclaro hijo de Asteasu, que coronó su vida con la corona del martirio, asaetado por los bárbaros chiriguayos, indios bolivianos, el 17 de mayo de 1735."

On Ipolitok asierako itzetan Bolibiako indioei buruz egiten duen aipamena, gogortxoak ote dan derizkiogu.

Garai aietan, ixtoriak digutenez, emendik joan ziran koloniatzalle jauntxoak ere mailla ortan jarri genezazke agian. Españitarrak ere, indarrezko joe-

raz, ilketa eta beste oker asko egiñak izan bear bairzuten.

Egia esan bear danean osorik ibiltzea dala zuzena derizkiogu, Goiko Jaunaren eskuetan dagoen On Ipolitok merezi zuen errespetoarekin.

Nik aipatu gabe ere, geienak dakigu ixtoriaren bidez españitarrak, alde aietan egin zituzten bor txakeri eta joera gaiztoez gain, bertan arrapatu zituzten urre eta ondasun guztien jabe egin zirala, eriotz asko egiñez, zori onez oker oien kontra lan egin zuten batzuek izan baziran ere.

Orregatik, kontutan artzekoa dala uste degu ango indioak emengoentzat zeukaten barru gogorra.

Onek ere agian zer pentsatua ematen du Julian Lizardi piñaren eriotz ortan. Ziur aski, Urzuriagako seme onek etzuen zer ikusirik jauntxo gogor aiek egin zituzten biurrikeriekin. Bañan, erderazko esaldiak dion bezela, justuak pagatzen dute pekatarien errua.

Orrelako zerbait gertatu zitzaiola uste degu Asteasuko seme pin eta jator oni, borondaterik onenarekin Jesus Nazaretekoaren Berri Ona zabaltzen saiatzen zan arren.

Apaltasun osoz aitortu bearra dala uste degu garai aietan Elizak berak ere bazuela inperio usteko jauntxokeri kutsua, gero Aita Julian Lizardi bezelako gizon pin batzuen odolarekin bere burua gorretsi badu ere.

Eta onela jarraitzen du On Ipolitoren liburuak, Aita Juliani buruz:

“A sus diecisiete años ingresó en la Compañía de Jesús, en el Noviciado de Villagarcía, el que tanto renombre había de dar a los hijos de San Ignacio de Loyola.

Un sarcófago de piedra, decorado con relieves ornamentales, contiene una inscripción en pergamino que dice así: “Aquí

yace el cuerpo del Venerable Padre Julián de Lizardi, que por la predicación del Evangelio y defensa de la fe fue apresado mientras celebraba la santa misa por los bárbaros chiriguayos, y siendo asaeteado expiró el 17 de mayo de 1735”.

Este sarcófago está depositado en la sacristía de Asteasu. Salvajemente asesinado a sus 39 años de edad, fue antorcha de fe luminosa, destinada a ahuyentar las tinieblas del Gran Chaco americano. Era pariente del famoso predicador de la capilla real, Padre Vinuesa.

Próximo al caserío que le vio nacer, existe un vetusto castaño, cuyo tronco carcomido por los años fue su oratorio preferido durante su juventud soñadora de proezas misionales.

Siglos antes, y ante unos olivos, desgranaba Nuestro Redentor su tierna y filial plegaria a su Padre: “Aparta de mí este cáliz, esta riada de tormentos”. Al escuchar durante la cuaresma estos relatos trágicos, brotaron en el espíritu de Julián sentimientos y vivas ansias de corresponder de alguna manera a la gesta salvadora de su Redentor.

Tuvo que luchar contra su natural apego al caserío, a su familia y amistades; pero superándolo todo, abandonó su solar y llegó a Villagarcía, histórico Noviciado a las ordenes de los jesuitas. Corría el año 1713.

A los que recordamos el paso del Santo Caballero Andante de Loyola por estas latitudes, se nos viene a la mente su figura misionera, sembrando a su paso, como el Buen Sembrador, la semilla vocacional que llevaba ya como máxima preocupación sacerdotal.

Poco dista el caserío Urzuriaga, ni un kilómetro siquiera, desde las colinas que atravesó San Ignacio rumbo a Loyola.

Decorado externamente con una lápida de discreta ornamentación, aparece en la fachada de Uruzuriaga una inscripción que dice así:

Asteasuko Urzuriaga,
etxe ontan jaio ta
sinisgabeen artean
martiri il zan
Aita Lizardi goragarriari,
gipuzkoar Andramaritar
gazteak, Kristoren alde
lan egiteko indar zerutarra
eskatuaz. 1735-1935.”

Udazken aldea zan. Benetan eguraldi bikañez eta igande arratsaldez egin zan Urzuriagako baserriari idazlan ori saietseko paretean eta gaztain arbolaren aldetik ipintzea. Neroni ere bertan nintzan. Amar urte nituan.

Ongi gogoan artu nuen Bautista Ondartza bertsolariak gaztañaren ondotik zepa bikain bat nola moztu zuen, oroigarritzat etxean edukitzeko.

Asteasuko Erriko Etxearen balkoitik ere bertso gozotan goraipamen dotorea egiten ikusi genduen Bautista, Aita Julian Lizardi zanari.

On Ipolitoren liburuak onela jarraitzen du:

“El visitante contempla también, frente al caserío, el famoso castaño donde, como antes señalábamos, se arrodillaba piadoso nuestro buen Juliancho.

Allí recogió la semilla que aireara, años antes, el santo de Loyola.

Los santos, en su caminar por la tierra, emiten vibraciones que son captadas y asimiladas en más de una ocasión, aunque su toma se nos oculta a los que pensamos solamente en lo humano.

Al fin y al cabo, si el genuino poeta es aquél que descubre en las cosas más sencillas y cotidianas aquellas facetas que se ocultan a la gran masa, los santos, que en su rodar por la tierra descubren esas avenencias divinas ocultas al resto de los mortales, son también auténticos poetas.

Pero sigamos al joven misionero en ciernes.

Estudió filosofía en Santiago de Compostela.

El año 1717 parte para la provincia de Córdoba, en la Argentina. Siente ansias de sufrir por la propagación de la fe, Se humilla y se rebaja hasta autodenominarse “el Borrigo Vasco”, Euskaldun Astoa. Recurre a San Eustaquio, de quien oyó decir en alguna lectura que Dios prometió a este santo que obtendría cuanto pidiera.

En compañía de otros cuatro Padres, parte río arriba en unas desvenrijadas balsas hacia el Paraguay, recorriendo doscientas leguas.

Es nombrado superior de una Reducción denominada "Angel de la Guarda".

De los cuatro acompañantes, ninguno domina el idioma de aquellos indios. Pero Lizardi, comprendiendo que para una labor apostólica eficiente es indispensable comunicarse con los nativos en su propia lengua, llegó a dominarla.

El año 1735, a petición propia, es destinado a la misión de los chiriguayos, en Bolivia.

La obstinada perfidia de aquellos indios salvajes contribuyó a la culminación de los deseos de nuestro invicto mártir Julián. En la conversión de estas protervas provincias se han empleado hasta ciento cincuenta años de labor misional, actuando varones celosísimos de tres religiones: dominicos, franciscanos y agustinos, sin contar los jesuitas del Perú y el Paraguay.

Tres años trabajó Lizardi en el Gran Chaco, cuyos habitantes, siempre belicosos, esclavizaban a sus vecinos comarcanos".

Gure lurretatik aruntza joan ziran askorengatik ere ez ote liteke orrelako zerbait esan? Bañan jarraitu dezaion On Ipolitiori:

"El resultado de su labor era aparentemente dudoso, pero que como semilla depositada en su surco daría a su tiempo el fruto apetecido.

Parece que Lizardi presentía el final de sus faenas apostólicas, como se puede colegir de lo que el día de su despedida declaraba a su compañero Padre Rafael, al anunciarle éste a Lizardi que "no tardará mucho V. R. en ir a otra provincia con alguna ocupación que parece le indicarán a V.", Lizardi replicó: "No. No podré ir, porque antes moriré, porque me matarán los chiriguayos".

Con estas palabras se despidió de su buenísimo compañero, quien sintió en el alma apartarse de su lado por obediencia y ver que en sus palabras se pronosticaba su martirio. Así sucedió. Como lo había predicho.

Era el 17 de mayo de 1735. Consagrado al culto de San Juan Nepomuceno. ¿Será por este motivo que en la parroquia exista una imagen del santo aludido? ¿Será por coincidir ese día con su martirio?

Levantóse de madrugada, como acostumbraba.

Después de fervorosa preparación para la santa misa, que no había de terminar sino uniendo su sacrificio al de Jesús, recuerda que días antes tuvo aviso de algún intento de traición por parte de sus catequizados chiriguayos. Pero Julián no dio crédito al anuncio, persuadido de que sería, como tantas veces, infundada información; y, sin diligencia alguna para su defensa, siguió a su capilla.

Los agresores tuvieron su reunión, en la que tomaron parte representantes de siete pueblos del valle del Ingre, dirigidos todos ellos por un cacique principal.

Se acercaron al poblado de La Concepción, ocultando cuanto les era posible las señales de sus acometidas; y, observando que los neófitos estaban muy ajenos a su venida, se resolvieron y ejecutaron el asalto el 17 de mayo.

El Padre Julián de Lizardi, ofrecida la sagrada Hostia, estaba preparando el cáliz, y casi todo el pueblo asistía a la misa.

Un mancebo que había salido a recoger la cabalgadura que pacía en el campo, avisó a los que asistían a misa, para que se guardaran del inminente asalto; y estos, casi todos, consiguieron huir a un bosque, quedándose sólo el Padre Lizardi.

Una india valiente, esposa del alcalde, exponiendo su vida, quiso defender al sacrificado misionero: pero su esposo, temeroso de lo peor, acudió a recoger a su heroica esposa.

Los indios acometieron al alcalde, matándolo a flechazos.

Llegaron los verdugos al altar, prendieron a Julián y, con la mayor de las irreverencias, le despojaron de sus vestiduras sagradas, le rasgaron su sotana y le desnudaron.

Luego se marcharon con su presa; y, como iba desnudo y el frío era intenso, se le hacía difícil caminar, hasta el punto de que el cacique, compadecido, ordena que se le apareje una mula y se le dejase volver a su misión; pero sus órdenes no fueron atendidas.

Le hicieron sentarse en un peñón, distante como una legua del poblado; y, cruzando sus brazos, el siervo de Dios esperó inmóvil la lluvia de flechazos que le dispararon, siendo reconocidas hasta treinta y dos heridas, una de ellas le travesó el corazón, dando lugar a que aquella purísima alma volara a las eternas mansiones".

Oneraño On Ipolitito Usabiaga Oruesagasti, Asteasuko erretore jaunak, Aita Julian Lizardiri buruz kontatzen digun ixtoria, eta biotz xamurrez olerki usai gozoz egiten digun goraipamen atsegin aparta.

1937-tik 1992-ko Eguberriak arte bete zuan Asteasuko errian erretoretza. Berrogei ta amabost urte, ain zuzen.

Gizon bezela izango zituen bere akatsak; bañan gogoan izateko oroigarri gozoak utzi dizkigu On Ipolitok. Oietako bat liburu au izan diteke, guk eta geia-gok ere agian arkituko dizkiogun erru txiki gutiekin.

On Ipolitok liburu ontan Aita Julian Lizardiri buruz eta Asteasuko kanpaiei buruz egiten duen goratarrea egiteko, geienak ez degun goi sentimena eta argia bear dirala esango genduke.

Liburu au patxaraz irakurri eta bere mamia ausnartzen badegu, ez det uste biotza ikutu gabe utziko digunik.

Erri guzti oien ixtori zati guztiak dira atsegiñak; bañan Asteasuri buruzkoa, bereziki aparta. Goian bego On Ipolitito.

Eta ondoren dijoazen nere bertso koxkor oiek, Aita Lizardiren goraipamenaren laguntzalle izan ditezela. Udarako goiz eder batez, Zizurkilko erritik Ernio mendiari eta bere oñean dagoen Asteasu erri atsegiñari begira moldatuak dira.

I Sortaldetikan jarri danean
eguzkia zelatari,
zeru urdiñak apaintzen duen
Ernio ertz apartari,
Asteasu, zu biurtu zera
Paradisoko atari.
Une oietan espirituak
onela digu kantari:
“Gorespen eta esker gozoak
zeruan degun Aitari”.

2 Zizurkildikan sartalderuntza
zelaitsu duen kanpuan
igaro eta Asteasura
ez gera gutxitan juan.
Orko kanpaiak asten badira
soñu gozoko kantuan,
iruditurik sartu generala
benetan toki santuan,
goitar arnas bat sentitzen degu
bere lur bedeinkatuan.

3 Zeru garbiak zure lurrera
ixuri zuen azia
ernatu eta ortxe izan zan
landare eder azia.
Gizon aundia egin zenduen
aur izatetik azia,
argatik dezu zuk, Asteasu,
goitar kutsuko grazia,
Urzuriako seme on batek
odolez irabazia.

4 Asteasuko seme maitea
Aita Julian Lizardi,
aspalditxoan igaro ziran
il zutela bi gizaldi.
Bañan oraindik bere izarra
guretzat ez da itzali,
sartaldearen zeru garbian
gogoz dago dizdizari,
etenik gabe argi egiten
gure kristau bizitzari.

5 Ernio mendi oñean sortu
ziñan landare apaña,
ongi dakigu sasoi betean
moztu zizutela zaña.
Geroztik negu eta udara
pranko badijoaz baña
zuk ain maitea zendun laguna
bizi zaigu alajaña:
oraindik ere kimutsu dago
Urzuriako gaztaña.

6 Goiz argietan ikusten zuen
ateratzen eguzkia,
berdin lañoak botatzen zuten
lurrak bear zun bustia.
Biotz osoaz eskertzen zuen
goitar laguntza guztia,
tarte batean artzen bazuen
otoitzerako astia;
argatik zuen ain berezia
arbola onen azpia.

7 Irudi onek oroitzen zion
Jetsemaniko Baratza,
Jainko Semeak igarotako
ordu larri ta garratza.
Oroipen onek indartu zion
sinismenaren ardatza,
bai eman ere bere barruan
adorea eta gatza,
eramateko martiritzaren
bide gogor eta latza.

Kanpaiak

Zalantzarik gabe, erri bakoitzak bere eliza duen ezkeroztik izango dira oien torreetan gure espirituaeren barrura dei gozo bat sartzeko jarriak diran ots emale oiek. Beraz, ez dira oraingoxeak, batzuetan alai eta besteetan serio mintzatzen zaizkigun kanpaiak.

Liburu batean irakurri izan degunez, XI-garren gizaldian iru eliza bai omen zituen Donostiak. Kaietik gertu dauzkagunak bi: Santa Maria eta San Bizente; eta irugarrena, San Sebastian izenekoa. Bañan azkeneko au desegiña dala dirudi.

Gure erri txikietan ordurako ez baziran ere, laixter zabalduko zala uste degu eliza txikiak egiteko joera. Bañan gaur zutik dauzkagunak, XVII-garren gizaldi barruan egiñak dirala geienak esaten digute gai oni buruz zerbait dakitenak.

Garai aietan ere, dirua eta lanerako eskuak izango ziran bearrezkoenak, ainbat kastu eta izerdiz altxa ziran etxe aundi oiek egiteko. Dirua, berriz, askotan entzun eta irakurri izan degunez, gutxi batzuen eskuetan zegoen. Gaur naiko gaizki partitua badago, agian orduan gaizkiago.

Garbi dagoenez, aberatsak zeukaten dirua eta

beartsuen izerdia izango ziran lantegi aundi ori aurrera eraman zutenak.

Eliz barruetan aurrez aurre ikusten ditugun erre-
taula edo *retablo* oieri, Amerikatik ekarritako urre
pilla batzuk urtu edo funditu eta ematen omen
zioten diz-diz ederreko dotorentzi ori. Garai aietan
burniki edo metal ori gaur baño merkeago bazan
ere, etziran kostatuta gabeak izango gure elizen edertasunak. Zeruaren edertasuna nolabait agertu nairik, gizonak lan oiek artuko zituztela uste degu.

Bañan noan asi dedan gaiari jarraituaz. Ondo dakigunez, eliz torre guztiak leio aundi batzuk dituzte kanpaiak jirabiran ibiltzeko; eta baita ere badituzte torre barruetan geldikoak. Aueri *il-kanpaiak* deitzen diegu.

Euskaldunok ere ez ditugu berdin baloratzen beren ots gozoak eta serioak. Batzuentzat, jirabirako oiek aundikerizko *triumfalismo* bat besterik ez dutela agertzen dirudi. Geldiko serio oiek, berriz, iñor bildurtu edo ituntzeko besterik ez dirala.

Lenengoak, gure iritzi apalean, itxaropenaren poza esnatu eta biotza zerura jasotzeko dira, sarriegitan *triumfalismo* uts batera erabili baditugu ere. Eta bigarren serio oiek, ausnarketa serio bat iñoiz egiteko, gizakiok apaldu bearreko garai asko degunez.

Erri asko dira kanpai gozoak dituztenak. Gure inguruan, Amasa, Larraul, Aduna eta Asteasu izan ditezke. Azkenengo ontan ez eskaxenak.

Urte askoan Asteasuko erri maitagarrian erretore izan zan Ipolito Usabiaga jaunak, argitaratu zuen liburu batean, egiten duen kanpaei buruzko aipamena gozo aparta dala uste det. Onela dio erderazko itzetan:

“El tañido alegre de nuestras campanas resuena consolador y penetra en los más recónditos repliegues de nuestro es-

píritu, imprimiéndole un optimismo más que humano, porque siente vibrar el fondo artístico que cada uno llevamos en nuestro espíritu”.

Eta au dio, jarraituaz, Asteasukoetzaz bereziki:

“Nuestra mirada se eleva a la torre, para contemplar las vistosas campanas y escuchar el acompasado clamor que en nombre de toda su población dirige a la Majestad triunfante de nuestro Creador”.

Ezjakin txiki onen iritziz, itz osoagorik eta gozoagorik aotik ateratzen ez da erreza kanpaiei buruz.

Soñujole atsegin bat

Mutiko garaian ezagutu nuen soñujolerik gozomena soñu txikiarekin, nere gogorako, Ordizi erriko *Xalto* deituraz ezagutu genduen Frantzisko Iturriotz gizon atsegiña zala uste det. *Xalto* oni ordi-ziarrak *Aldaba* ere deitzen omen zioten. Or jaioa zala dirudi.

Gure iritzi apalean, berak soñuari ateratzen zion otsak bazuen soñujole askok soñuari ateratzen ez dioten grazi berezi bat. Zizurkilko txoko ixillean aren aidu atsegiñak sartzen zigun alaitasuna berezia zalakoan nago.

1930 urtean ezagutu nuela uste det; eta anai arteko gerra inguru arte, agoztuko Ama Birjin bezperan, *Pantxikaenea* deitzen diogun ostatura etortzen zan, eta bertan igarotzen zituen festa egun guztiak.

Ez altu ez bazu, gizon xabal serail bat zan gorputzez, eta oso indartsua ere bai, entzun izan gendue-
nez.

Zizurkilko Aundizabal baserrikoak famili artekoak zituen; eta 1932 urtean, San Tomas egunez ain zuzen, erre egin zan etxe au, eta *Xalto* gizon onek berriro altxatze lanetan gogotsu lagundu zion famili oni, argintzan ere ongi moldatzen zanez. Biotz zabaleko gizona, beraz.

1953 urtean, bixitatxo bat egitera etorri zan Zizurkillan; eta, *Pantxikaene* ostatura sartu orduko, bertako etxeoandreak ongiatorri berezi bat egin zion.

Ordurako adin aundiko gizona zan, eta nik ere bereala itz eman nion, esanez:

– Gogoratzen al zera zenbat alaitasun jarri zenuen txoko ontan?

Eta berak erantzun:

– Bai, ondo ala ere. Etxe onen balkoi azpian maikiña bat soñu joa naiz, emakume errokil saltzaleak inguruan nituela. Sarritan, beren “*Osa, gazteak, eta bata, bia, irua*”-ren otsak nere soñuarenak baño nabarmenagoak izaten ziran. Bañan une atsegin aiek etzaizkit aztutzen; eta inoiz, oroipen oiek gogoratzerara, oso pozik etortzen naiz Zizurkil errira, eta *Pantxikaene*-ra bereziki.

Zizurkilko festa oien ondoren, agoztuaren 29-a San Juan Txiki deitzen dioguna izaten da; eta, ongi dakigunez, urte aietan erri bakoitzetik mutil kuadrilla ederrak joaten ziran Erniora, beren soñujole eta guzti. Zizurkildarrak *Xalto* sarritan eramaten zuten, beraren soñuz alaiturik.

Ongi gogoan det. Ernio mendiko festa bezpera zan eta oso mutiko nintzan. Eguna illundua zegoen eta oiean loak arturik nengoen. *Pantxikaene*-ko zaldia karroari tiraka zetorren eta bertan zetorren *Xalto*, plazaren sarreran *Martxakoa* deitzen diogun aidu gozoa joaz. Eta soñu ots arek baño esnaera gozoagoan ez det uste nere bizitzan ezerk esnatuko ninduenik.

Ezur muñetaraño sartu zitzaidala uste det aaztu ezin dedan soñu ots ura. Bizitzan izango dedan oroi-garririk ederrenetako bat utzi zidan Frantzisko Iturriotz *Xalto* soñujoleak.

Oroitx eta goratzarre gure artetik poz atsegiña za-

balduaz igarotako gizon oni. Goiko Jaunak berekin
beza.

Uxaturikan txarkeri danak,
berrituaz maitasuna,
gure txokoan jarri zenduan
poza ta alaitasuna.
Nabaitu berri nuen orduko
munduko argitasuna,
zu izan ziñan nere begien
izarrik dizdiratsuna,
eta pozaren sentimentuak
esnatu zizkidazuna.

Xalto maitea, gure artetik
naiz aspalditxoan joan,
oraindik ere zure oroitza
gurekin degu gogoan.
Aitormen auxe eskeintzen dizut
merezi dezulakoan,
mundu ontako bizitza baño
askozaz ederragoan,
Goiko Jaun onak izan zaitzala
betiko bere alboan.

Zarateko benta

Ez ditezke gipuzkoar asko izan, Zizurkildik Oriora mendibidez joanik, erdi bidean eta gora-berako mugan dagoen baserri onen izena iñoiz entzun ez duenik noizbait. Zarateko Benta ere deitzen zitzaion, tabernarekin osatua zalarik.

Udal gizonak ere sarritan biltzen omen ziran or, beren erabakiak artzeko.

Azkeneko anai arteko gerra aurretik, eta geroxea-goa ere, udarako eguraldi ederretan tolosar ugari igarotako bideak eta bixitatutako Zarate.

Ongi maitea zuten, bai, Oriorako bide ori, eta Zarate bera ere. Or gosaldu eta jexten ziran Orioko ondartzan murgiltzera. Gaur oraindik adiñeko tolosarrak poz atsegiñez kontatzen dituzte orko ibillera gozoak.

Bañan jarrai dezadan Zarateri buruz zerbait ix-tori kontatzen.

Ez dakigu gertatua edo asmatua izango dan gure aurrekoak kontatzen ziguten ix-tori txiki au.

Antziñako gerrateren batean, soldadu sail baten buruzagiak Donosti ingurutik Ernio mendira biderik laburrena nundik zan galde egin omen zuen. Eta norbaitek beatzarekin Andatz mendia señalatu omen zion, esanez:

– Mendi ortara igo eta, sartaldera zear-zear, berealaxe Iturriotzen zerate. Zelat egin eta ernai igo.

Or zeuzkaten nunbait beren etsaiak.

Ordutik zituztela, esaten ziguten gure zarrak, Zeortza mendiak, Zaratek, Zelatunek eta Erniok gaur daramazkiten izenak. *Zear-zear* itz ontatik, Zeortza mendiarena, *berealaxe Iturriotzen zerate*-tik, Zarate etxearena eta mendiarena; *Zelat egin*-etik, Zelatunena; eta *Ernai igo*-tik, Erniorena.

Andatz mendiaren oñetik Zarate bitarte ori zear-zearreko bidea da, eta orri deitzen zaio Zeortza. Bañan Zaratetik Andatzarate bitartea ere zear-zearreko gain zoragarria da. Udarako eguraldi ederretan, eguzkiaren gozotasuna itxas aizearekin besarkatzen danean, benetako paradiso bat biurtzen dan mendigaña.

Andatzarate onen deitura *Andatz-Zarate*-tik datorrela dirudi.

Garai bateko zarrak, Donosti aldetik zetozenean, Andatz mendiaren oñetik zear, Zarate igarorik, irixten ziran *Andatz-Zarate* au leku señalatua zuten nolabait, Iturriotztik Azpeitira eta inguruetara jexteko. Loiolako Inazio Santua ere, abere gañean, bide oietatik igaro zala esaten digute.

Baserrian, artzantzan eta ikazkintzan, iru lan oietan saiatzen zala ezagutu genduen Zarateko famili jator ura: Bitor Aia eta Maria Josefa Arandia aita-amak, beren seme-alabekin; Pello Aia, ezkongabea, Bitorren anaia, au gutxi bezelako gizon umil eta ona; eta azkenik Ramon Aia, Amerikan izandua, *Zarateko Maixua* deitzen geniona. Oso gizon atsegiña, inguruko etxeetako ume jendeari eskola ematen aritzen zan.

Sei bei eta idiak ikulluan, eun ardi larrean eta, ontaz aparte, ikazkintza zuten ogibide.

Lan egiñaz, atsegin osoan bizi zan famili ura.



Zarateko benta, Zizurkil.

Bañan anai arteko gerra zitalaren eraso igaro bear izan zuten aiek ere.

Ni amaika urteko mutikoa nintzan. 1936 urteko agoztuaren 16-an eta igande egunez, goizeko zortzi t'erdietan, sartu ziran naparrak, edo Francoren aldeko soldaduak, Zizurkillen. Etxeko balkoira erten giñan, zer sarrera egiten zuten ikustera.

Erriko Etxearen inguruetan arto sail ederrak zeuden loratan; eta arto tarte oietatik erten eta, eskuetan fusillak zituztela, lapur edo gaizkilleak arrapatzera bezela, amorruez zetozeela zirudien napar reketeak.

Guregana inguratau ziranean, “¡Viva España!” oju egiten ziguten. Guk bildurrez, bañan nolabait erantzun beintzat.

Gero kamiotik sartu zan soldadu jende izugarria, Zizurkilko plaza eta inguruak leporaño bete ziran arte, mandoetan ametralladora eta kañoiekin.

Ongi gogoan det berealaxe gure etxera nola sartu ziran iru graduako gizon: apaiz bat paisanoz jantzirik eta beste biak izar zutenak. Gure amari galdetu zioten:

– *Señora, ¿tiene usted algo para almorzar?*

Orduan etzan gure etxean goserik, eta arrautz eta urdai azpikoa ere baziran. Gure amak erantzun zien:

– *Siéntense a la mesa. Algo habrá.*

Botil ardoarekin gosaldu eta bapo jarri ziranean, gure amak apaizari galde egin zion:

– *¿Ninguno de ustedes sabe hablar en vasco?*

Eta apaizak erantzun:

– *Señora, somos españoles y hay que hablar en español.*

Ni ere mutikoa eta zer ikusi atera nintzan pla-

zara, eta bi soldadu ikusi nituen, arri aundi baten gañean gosaltzen, eta batek dei egin zidan, esanez:

- *Chaval, toma esta botella y vete a la tasca a que te den vino, que, sino, te atravieso con esta bayoneta* -arma ori eskuan arturik.

Broman esan zuen noski, bañan nik naiko serio ere artu niola uste det. Ardoa zintzo ekarri nien eta pozik gelditu ziran.

Bi taberna ziran Zizurkil goian, eta egun artan ango zaragi eta barriak ongi ustua izan ziran, eta dana debalde. Ez dakigu nor ordainduko zituen.

Rekete pilla batek bertan igaro zituen egun dexente. Ni nere anaiekin ordurako ille mozten eta bizar ebakitzen asia nintzan, eta makiña bat ille mozte egin genduen, zentimorik jaso gabe. Zor ori ordaindu gabe joan zan gure Patxi.

Aiek Zizurkillen sartu eta, egun berean, beren kontrarioak edo gorriak, Andatz-zaratetik Zaratera bitartean eta Zaratetik Belkoain mendira bitartean, indar aundiz jarri ziran, Andatz-zarate eta Zarate kuartel gisa arturik. Illabete eta geiagoan sendo egon ziran mendi oietan.

Francoren gizonak lenengo Belkoain mendia artu zuten, agorraren lenengo egunean ain zuzen. Ondoren, Zaratetik Andatz-zarate bitartekoak artu bitarte, egun dexente igaro ziran. Eta egun oietan ez dakigu zenbat kañoi tiro bota ziran Belkoaindik Zarate inguruetara. Erruz, nolana ere. Ez dago esan bearrik inguru ortako biztanleak, eta ganaduak ere, zer egun larri eraman zituzten.

Bazkalondo batez, Belkoain ortan zeuden napar rekete batzuek -amabost edo inguru izango ziran-, Zaratera sartzea pentsatu zuten, beren agintarien baimenik gabe. Azio berezi bat egin nai zuten nunbait.

Atera ziran zear-zearreko bidez, al zuten guztian

izkututik; eta, Zaratek oso gertu zegoen Ipiri deitzen zitzaion bordaraño iritxi ziranean, belaze garbian igarotzen asi ziran.

Bañan berak uste baño argiago zeuzkaten kontrakoak. Zarate inguruko mendi tontoretik, eta ametralladorekin, bertan josi zituzten geienak.

Au izan zan Zizurkillen egin zan odol ixurtzerik aundiena tamalez, ostiral egun batez ain zuzen.

Gau berean izugarriko giza indarra sartu zan Zizurkillen, Francoren aldekoak noski. Inguruko etxeetako ganbaretan etzan ziran, eguna argitu zuen arte. Gure etxekoa ere, belarrez zerbait osatua zegoenez, artu zuten lo egiteko.

Larunbat goizean, goizeko bederatzi t'erdietan atera ziran Zizurkildik, eta Asteasuko Aitze baserri iritxi. Ortik asi ziran atakean.

Bañan oso gogor egin zioten kontrarioak, eta larunbat ortan ezin pauso asko eman izan zuten ortik aurrera. Eta bere artan illundu zitzairen.

Igande goizean etzeukaten aurrean kontrariorik. Danak Orio eta Zarautz aldera iges egiñak ziran.

Orduan libratu ziran Zarate eta inguruko baserriak tiroen tartetik.¹

Gerozko urteetan pin saiatu ziran Zarate baserrikoak beren lanetan, ikazkintzan bereziki. Urte artatik 1956 urtera arte, zenbat ikatz jetxi ote zuen bertako nagusi Bitor Aiak, idi nabar koloreko aiekin, Billabonako ingurura? Gero ortik zabaltzen zuten beste errietara.

1956 urtean Ondarrabira joan zan famili au, eta geroztik utsik arkitzen da Zarate baserria, tamalez.

Kilometro bat Orio alderago dago Altxurria baserria; eta, oiek aitortzen digutenez, pena izugarria izan zuten famili on ura andik aldegitia.

1 Baserri au arkitzen
zaigun gain orretan,
eta alboan dauden
mendi tontorretan,
bista ederrak dira
itxasotik bertan;
eta jakiña dago:
gerra denboretan
soldaduen egoitza
Zarateko Bentan.

2 Gure anai arteko
gerra gogorretan,
toki askotan eta
mendigain auetan,
mutil asko gelditu
ziran odolatan;
eta jakiña ere:
orrelakoetan
babes berezia zan
Zarateko Bentan.

3 Igaro bazan ere
giro gogorretan,
zorionez ere bai
gozoagoetan.
Karlisten gerra urte
ondorengoetan,
udal gizon billerak
pake denboretan
egiten omen ziran
Zarateko Bentan.

4 Ikazkintzan, artzantzan
eta lur lanetan
ezagutu genitun
baserri onetan.
Famili bat jatorra
azi zan benetan,
bañan utsikan dago
gaurko egunetan:
etzaigu iñor bizi
Zarateko Bentan.

5 Ez dedilla berriro
gerrarik etorri,
mendi oiek odolez
ez ditezen gorri.
Eta oroigarrizko
etxe eder ori,
zabarkeriz ez bedi
lurrera erori,
bera izan dedilla
mendi oien glori.

¹ Gure azken anal arteko gerra tamalgarri artan il ziran Zizurkilko mutillak auek izan ziran:

Pedro Irazu, Makura baserrikoa.

Anjel Arregi, Andia baserrikoa.

Jose Ibarbia, Astabere baserrikoa.

Jose Migel Labaka, Olentzaro baserrikoa.

Jose Ramon Arregi, Irazugoi baserrikoa.

Juan Garin, Odolkibar baserrikoa.

Juan Urdanpilleta, Kamio etxekoa.

Rosalino Labaien, Bikatxezar etxekoa.

Jose Mari eta Martin Leunda, anaiak, Zubiaurretxo baserrikoak.

Baltasar eta Romualdo Galarza, anaiak, Luzuriaga baserrikoak.

Onerañoakoak, gerra garaian kintoak arrapatuak eta eramanak.

Juan Almorza, nazionalak arrapatu eta illa.

Konstanzio Mendizabal ere, kartzelan denbora gutxi igaro ondoren nazionalak illa.

Gerra asi eta laxter biak ere.

Auek izan ziran gerra tamalgarri arek utzi zizkigun ildakoen oroigarrak, Zizurkil errian.

Negu gogor bat

Ziur aski, bizi geran arte aztuko etzaigun oroigarria utzi zigun 1938'ko urte bukaeran asi eta 1939'ko Martxoaren azkenean amaitu zan negualdiak, anai arteko gerraren azken illak ziranez.

Idazten dedan onek, amalau urte bete berri nituen, eta lantegian orduantxe asia.

Abenduaren 12 aldera, Norteko ekaitzaldi izugarri bat sartu zitzaigun, eta bai laster mendi eta sakonak zuritu ere.

Eguberriak, bazterrak ongi apaindurik igaro genituen. Egunez elurra eta gabaz izotz edo jela latzak egin zizkigun, Errege eguna igaro zan arte.

Iñoiz guk ikusi degun pizti sail edo eizerik geiena ere, negu artan agertu zala esango nuke. Bañan etzan gaur ainbat arma edo eskopeta; eta ziranak, gerra garaia zalako bildu egin zituzten. Norbaitzuek ixillean gordetakoak izan bear zuten, bañan oso gutxi. Beraz, egaztiak gaur ez bezelako lasaitasuna zuten erri inguruetan ere.

Norbaitzuek esan oi zuten, gerraren sua edo ti-roak izutzen zituztelako izango zala gure alderdie-tara ainbeste pizti etortzea.

Garai aietan, Teruel eta Madril aldeko frenteetan

zebiltzan Euskal Erriko mutil asko; eta, gure txoko au baño askotzaz leku otzagoak diranez, gorriak eta beltzak ikusiak izan bear zuten gizarajoak, bertan ibili ziranak sarri aitortzen digutenez.

Anketako beatzak moztutako asko ziralda digute, otzak betiko illik utzi zizkielako.

Bai; benetan gogorra izan zan negu ura. Goian aipatzen dedan bezela, Eguberriak igaro ondoren ere etzan aspertu ifar aldeko aize gordiña.

Otsailla izotz gogorrekin asi zan lenengo eguneta-tik. Kandelari egunez jelazko kandela edo burrun-tziak askotan ezagutu dirala entzun izan degu; eta urte artan ere alaxe gertatu zan, illaren azken al-dera zerbait gozatu bazuen ere.

Berriro Martxo illak bota zigun uste gabeko ekaitza. Illaren 18'ra arte, eguraldi lañotsu eta otzak izan ondoren, San Jose bezperan ain zuzen, ongi zu-ritu zituen gure inguruak; eta San Jose egunez jelaz ormatu-rik zeuden bezperan egingako elurrak.

Ondoren, eguraldi trumoitsuak izan ziran; eta illak 30 zituela, larunbata ain zuzen, egunez euria egin bazuen, gabaz geiago.

Urrengo eguna, igandea eta Lazaro doatsuaren jaia. Goizeko zortzietan trumoi ots izugarri bat ent-zun genduan, eta bereala elurrari eraso zion. Bañan nik iñoiz ez det ikusi ain elur matatsa lodirik eta ain ugari botatzen.

Bi ordu ta erdiko erasoia izan zan; eta lurra euriz ongi aserik bazegoen ere, uraxe zan elurrak aixa lo-ditza.

Urrengo eguna, astelena, arratsalde erdi aldean, lanean ari giñan tokitik, inguruko errietan kanpai otsak entzun genituen. Berri pozgarria eman nai zi-guten noski. Bereala norbaitek eman zigun gerra bukatu zan albistea.

Zenbat biotz piztu ote zituen aztu eziñeko egun arek? Batez ere beren semeak gerran zituzten gurasoen poza etzan txikia izango, gerra ondoren gogorra ikusteko bageunden ere.

Ara, beraz: negu aren ekaitzaldi gogorrarekin batera bukatu zan anai arteko ekaitzaldi gogorrago ura, 1939'ko Apirillaren lenengo egunean ain zuzen.

Gerra garaiko azken ill aiek
ez daude gaurtik ondoan,
otz-bero asko izan da noski
gerozko urte mordoan.
Ai, negu ura señale gabe
ez zitzaigulako joan,
gaur ez dakigu zenbat burutan
aztu gabe egongo dan,
nik bezin ongi agian askok
izango dute gogoan.

Kontxexi

Ez det uste sarritan oroitzen geranik ixillean lan asko egiten duten beartsu askorengatik.

Izan da, eskaleetan ere, duen osasuna gaixoei laguntzeko eman duenik. Oietako bat izan diteke guk ongi ezagutu genduen Asteasuko eta Aranburu baserriko etxeakoandre izan zan Kontxexi gaixoa, Bedaioko alaba ain zuzen. Ango Idorreta baserrikoa zan; bañan Illorreta ere deitzen diote.

Neska gaztea zala, Tolosako etxe batean omen zegoen serbitzen, begi urdin eder eta gorputz dotoreko neskatx egoki au.

Asteasuko eta Aranburu baserriko gizon alargun batek bota omen zion begia. Berarekin adiskide egin eta etxe ortara ezkondu omen zan.

Auzoko baserri batean bai omen zan sorginkerizko malizi guztiak zekizkien atso deabru bat, Kontxexiren gizonarekin maitemindurik zegoena.

Ez omen zan aspertu atso gaizto ura Kontxexi gaixoari agerpen bildurgarriak gabaz egiten, erabat gaixotu zuen arte.

Senarra kanpoan zanean, gabaz, farol argiarekin, arpegia tapaturik eta soñeko itxusiak jantzirik, bildurgarriko erara agertzen omen zitzaion atso mardarikatu ura.

Egun batez, bildurraren ondorioz burutik saltaturik, Aranburu baserri ortatik erten eta mendian bera karraxi izugarri batean jetxi omen zan betirako Kontxexi gaixoa.

Burutik arindu erazi zuen atso gaizto arek. Bañan goiko Jaun onak on egiñaz pake gozoan bizitzeko doaia utzi zion berekin.

Etxez etxe edo aterik ate, aitagure bat erreztatuaz, biltzen asi zan bizitzeko bear zuena. Era ortan ikusirik, Asteasuko On Bitoriano apaiz zanak bereala esan omen zion Kontxexiren senarrari:

- Aizu: zure emazteak ez al zaitu errukitzen, era ortan ikusirik? Zergatik ez dezuz, onez arturik, etxera eramaten?

Eta senarrak, biraoa boteaz, au erantzun omen zion:

- Nik esanda ez du gure etxetik aldegin, eta nik esanda ez da ostera gure etxera joango.

Kontxexi gaixoak, ala ere maite zuela esaten zuen bere senarra.

Sarritan entzun izan degunez, 1918 urteko gripe gaitz kutsakor arek jipoi izugarria eman omen zuen familietan. Bai omen ziran iru, lau eta sei ildako etxeak ere.

Ain gaitz kutsakorra zanez, asko ez omen ziran atrebitzen gaixo zeuden etxeetara urbiltzen ere.

Kontxexi eskalea ibiltzen omen zan etxerik etxe, gaixoak zeuden familiei laguntzen, Zizurkillen bereziki, gaixo zeudenen erropak garbitzen eta abar, kutsatzeko arrixkurik aundiena zuten lanak egiten alegia. Ara or emakume gaixo baten balore paregabea.

Gure garaietan, Asteasu, Zizurkil eta Aduna zituena eskerako erririk berezienak. Zortzian bein edo orrela igaroko zan Zizurkilko plazatik Aduna aldera.

Errekalde, Belen eta Galardi zituen Zizurkillen, otordu legea eta gauerako kabi goxoa arkitzen zuen etxeak.

Zakur eta katuen lagun maitea ere bazan Kontxexi. Etxerik etxe eskean zebillela, zakur izugarriak ikusten zituen baserrietan, eta danak isatsari eragiñaz egiten zioten ongi-etorria.

Zakutxo batean eramango zuen aientzako mokadu goxoren bat eta, maitekiro laztanduaz, itzik goxoekin bere eskutik emango zien jaten. Zakur guztiak eskaleei zaunka gogor egiten ikusi izan ditugu, bañan Kontxexi danak maitekiro artzen zuten.

Anai arteko gerra bukatu eta laxter, negu batean, Galardi baserrian gaixoturik, elizakoak egin zituen, bañan geroxeago il zan.

Ara, beraz, aintzakotzat iñor askok artzen etzuen emakume gaixo baten ixtoria, on egiñaz gure artean igaroa.

Onela kontatu zigun, Asteasuko Aranburu baseritik gertuan zan burni mina batean lan egin zuen Zearrete baserriko Jose Iturzaetak Kontxexiren ixtoria.

Ziur ez dakigu zein urtetan ezkondua zan Kontxexi; bañan 1918 baño zerbait lenago noski, eta bereala bizirik alargundua.

Asteasuko eta Urkidizar baserriko Luis Maizek zerbait geiago kontatu digu, galdetu diogunean:

- Ezagutu al zenduen Kontxexi eskalea?

- Bai, eta bere senarrak Anbrus zuen izena. Guk orrela deitzen genion beintzat. Oso jenio gogorreko gizona zan, eta gure aitarekin arreman asko izan zuen. Ongi gogoan det orain kontatuko dedan gertakari txiki au.

Gure etxean tolareak ziran, eta Kontxexiren senar arek an egiten zuen sagardoa. Egun batez, sa-

garrarekin gure etxera etorri zan eta, gurdia ustutzen ari zala, bere emazte Kontxexi bertan eskean egokitu. Nerekiko esan nuen: "Oraintxe ikusiko diagu zer arrera egiten dion emazteari".

Purrustada batean au esan zuen gurdia ustutzen ari zan senarrak:

- Inpernuko demonio guztiak emen al ditugu gaur?

Senarraren arrazoi zakarra entzun zuenean, Kontxexik, limosnatxoa jasorik, laxter iges egin zuen.

Gizon onek Kontxexirekin etzuen familirik izan; bañan lenengo emaztearekin bai. Bere alaba bat Korta aizkolari entzutetsuaren anaiarekin ezkondua. Onen semeak jarraitzen du Aranburu base-rrian.

Kontxexiren gizon oni azken egunak iritxi zitzaizkionean, eta gaixorik jarri zanean, bere alabak sarritan esaten omen zion:

- Aita, oso gaizki zaude. Zoaz oiera!

Eta aitak erantzun:

- Ago ixilik, neska, oia gero ere an egongo den eta.

Azkenik, Luis Maizen aitari deitu omen zioten, gizon orri eriotzako ordua iritxi zitzaiola buruan sartzeko. Eta alaxe egin.

Orduan, fede oneko alabak, gurutzea arturik, au esan omen zion:

- Aita, gurutzean dagoen au badakizu norengatik il zan. Muñ egiozu.

Eta aitak erantzun:

- Emaidan, emaidan, nik ere norbaitengatik il be- arko diñat eta.

Itz oiek esan eta bereala il omen zan.

1 Ixtoritxo bat badet
buruan sartua,
urteak igaro ta
pixka bat zartua,
asteasuar batek
neri kontatua,
Aranburu baserri
artan gertatua,
errez aztutzeko ez,
gogoan artua.

2 Dama gazte gozo bat
txit zoragarria
etxe batean zegon
serbitzen jarria,
Kontxexi izeneko
mirabe garbia;
norbait gustatutzea
etzan miraria,
etzeukan galai txarra
begira jarria.

3 Begi urdin argiak,
arpegi ederra,
gorputz zoragarria
lepotikan bera.
Ain mirabe polita,
uxo baten era,
uste gabe sartu zan
miruen artera;
etzitzaion jokoa
egoki atera.

4 Galai doakabeak
jo zinduan begiz,
gustaturikan zure
gorputz ta arpegiz,
ez pintasun osoan
baizik gordinkeriz.
Etzeukan zuretzako
maitasunik egiz,
eta zu inoxente
arrapatu berriz.

5 Mutillak esan zion
ainbat gezur lodi:
biurtuko ziola
bizi dana glori.
Ezkongai egiñikan
urte bat edo bi,
printzesaren pareko
neskatx eder ori,
gaixoa etzan esku
txarrera erori!

6 Etzuen ez Kontxexi
arek inñundikan
kontrarioen edo
etsai bildurrikan;
eta uste gabean
ara ba nundikan
atso sorgin bat zeukan
oso gertutikan,
bere senarrarekin
maitemindurikan.

7 “Orain arte ain lagun
izanik gu biak,
emendikan aurrera
maitasun urriak”.
Min au sortzen Kontxexi
orren irudiak.
Laxter artuko zitun
galtzeko neurriak
maitemindurik zegon
atso biurriak.

8 Galaiak nai ziola
gutziz gozo ta pin,
Kontxexi piatu zan
biotz osoakin,
bildotx bat zalakoan,
gizon otsoakin.
Zer arreman zituen
sorgin atsoakin,
ixtori orren berri
Jaungoikoak jakin.

9 Kontxexi sartu bazan
sartu etxe ortan,
pizti gaiztoa zegon
bera galtzekotan,
indar aundiarekin
atzapar agotan.
Laxter ekingo zion
amorru berotan,
miru biurri ura
etzegoan lotan.

10 Atso sorgintsu arek
burutik anker
sarritan artzen zuen
deabru tankera,
Kontxexi botatzeko
bere ankapera,
onek etxekoandre
utzirikan bera;
gaixoturik jetxi zan
menditikan bera.

11 Atso sorgiñagandik
olako tratuak
Kontxexi gaixo arek
zituen artuak.
Etzuen, ez, kezkatu
bere pekatuak,
berriz ere egoak
zitun goratuak,
lotsagabeko miru
madarikatuak.

12 Emaztea ikusi
alako peskizan,
ta senarrak etzuen
errukirik izan.
Orduan Kontxexi au
eskean asi zan,
gaixoei lagunduaz
santa baten gisan,
on besterik egiñik
etzuen bizitzan.

13 Eguzkia atera
edo argitzean,
etxez etxe asiko
zitzaigun goizean.
Aita gurea zuen
lenengo itzean,
eta era orretan
beti otoitzean,
danak bedeinkatuaz
etxe bakoitzean.

14 Etxekoandre on bat
izanik Kontxexi,
mundu biurriak zu
etzindun onetsi.
Bañan Jainko-fedean
etzenduen etsi,
eta naiz eskaletxo
maillaraño jetxi,
Jaun onak zeruraño
zinduen goretsi.

Iru gizon xelebren

Iru gizon oiek onako aukerak ziran: Galardi baserriko Juan Tomas Bengoetxea, Xuxperro baserriko Manuel Ugartemendia ta Beibategi baserriko Tomas Lertxundi.

Zizurkilko Errekalde baserriaren inguruan daude goian aipatzen ditudan beste baserri oiek.

Baserrian eta beste lantegiren batean lan egiñaz bizitzen ziran gizon txiro umoretsu oiek, nork baño nork elkarri xelebrequeri aundiagoak ezin asmatuaz.

Gizon oiei *Suma-gezur* deitzeko oitura ere bazuten norbaitzuek. Bañan ez det uste oien ateraldiak iñori kalterik egingo ziotenik, par egin erazi baizik.

Juan Tomas Galardi Pello Errota bertsolariaren illoba zan onen emaztearen aldetik, au Galardi baserriko alaba baizan. Gizon au zutela dirudi beste biak nork xelebrequeri aundiagoak esan erakutsi zien maixua.

Juan Tomas ezagutzera ez nintzan iritxi; beste bi oiek bai, eta lasai antzean bizitzea gustatzen zitzaie-nak zirala uste det irurak ere.

Gizon oiek baño serioago ateraldi irrigarriak egi-ten jakin duenik, etziran asko izango Euskal Errian. Errespetoa sartzen zuten gizonak ziruditen begiratu batez.

Juan Tomas Galardik ez omen zuen familirik, eta sarritan zer asmatu egoteko denbora ere izaten zuela dirudi, gero jendeari kontatu eta far egin erazteko.

Gizon au eiztari eta arrantzale ere bazala dirudi, bere ateraldiak kontatzeko eran. Adibidez, bi afizio oietatik atera zituen ondorengo esaldi xelebren oiek.

Egun batez, Adunako zubi ondoan, arrantzan omen zebillen, abarka aundi batzuk oñetan zituela, eta amorrai aundi bat ikusi omen zuen artzulo batean sartzen.

Bereala eskuak sartu omen zituen artzulo artan, eta lau libranko amorraia munto gain batera bota omen zuen; eta ondoren, uretik ateratzen asi zanean, sastrapa bati eltzen asi eta erbiari anketik eldu eta arrapatu.

Juan Tomas pozik omen zan arrantza eta eiza ain eroso egiñik; bañan aundiena ikusteko omen zegoen oraindik. Legorrera erden bezin laxter, bere oñetako abarka aundiak erazten asi zanean, aiek ere angulaz beterik omen zeuzkan.

Orrelako ale asko botatzen zituena omen zan Juan Tomas Galardi, Pello Errotaren illoba ori. Ondorengo bi auek ere parekoak zirala esan diteke.

Egun batez, biak elkarrizketan ari zirala, au esan omen zuen Tomas Beibategik:

– Atzo ikusi det sekulan ikusi dedan gauzarik arrigarriena.

Manuel Xuxperrok erantzun:

– Zer ikusi dezu, ba?

– Etxe ondoko belazean satorrak noiz jo zai nengo; eta, asi zanean, atxurrarekin kolpe tira nion. Atera nuen eta sator zuria, gizona!

Manuel Xuxperrok laxter eman zion merezi zuen erantzuna, esanez:

- Sinisten dizut, Tomas. Neroni ere kaso igualtsua pasa zitzaidan lengo egun batean. Eizera joan nintzan eta sasitik zozoa atera zitzaidan. Tira nion, erori zan eta, eskuetan artu nuenean, konturatu nintzan: zozo zuria alajaña.

Beste egun batez, Tomas Beibategi arrantzan egindako azioa kontatzen ari omen zan. Onela dio:

- Orain iru urte, Oria errekan, eskuz, bost libako amorraia atera nian, ba.

Eta entzun zion batek erantzun:

- Lenago ere tiratzen dituk ederrak, eta oraingo au ere ez uan txarra.

Kopeta bezturik, Tomasek:

- Zer? Gezurra dala uste al dek? Galdeiak Zabaleko Patxiri, illa dek baño.

Gizon oietzaz, orrelako ateraldiak aipatzen, luze joango litzaiguke, eta azkenik auxe esango det: sarritan beroietzaz gaizki itzegiten bazan ere, gizartean giro atsegiña jartzen zutenak zirala beren ateraldiekin.

Orrelako gizon paketsu asko izateko zoriona izan dezala Euskal Erriak.

Pelotari eta bertsozale

Pelotari eta bertsozale izanak ziran bi zizurkildar aipatu nai nituzke atal ontan. Biak lagun mai-teak gaiñera, eta adin edo kinta berekoak.

Leenengoa, 1898 urtean jaioa zan. Zizurkilko Elizalde baserrikoa, etxe au taberna eta panaderi izana zan. Emen jaio zan Billabonako Agustin Beloki pelotari bizkorraren illoba Baldomero Lertxundi. Onek, gerora, bere osabaren pauso berak eramango zituen. Ogibide, arakintza eta kirol pelota zituen.

Osaba-illobak biak ziran pelotari bizkorrenetakoa. Agustin Beloki erreboteko sakalaririk onenetakoa, eta Baldomero Lertxundi urrengo maillakoa. Bañan Baldomerok arkupetako pelota-leku txikietan zuen arterik arrigarriena.

Garai bateko Etxabe laugarrena ere izugarria omen zan lan ontan, eta jai egun batez desapioko pelota partidu bat jokatu omen zuten *Billabonako Motxa* deitzen zioten arkupetan, eta derrebes utsarekin irabazi omen zion Baldomerok, danak arriturik utziaz.

Bañan gizon au etzan pelotan bakarrik bizkorra. Bai erantzun eta arrazoi egokiak ematen ere.

Zenbat ateraldi irrigarri zituen ez dago kontatzen asterik; bañan adibide bezela ondorengo oiek izan ditezke.

Egun batez joan zitzaion emakume bat arategira; eta, xerrak eta eltzerako eskatu eta eman ondoren, onela dio emakumeak:

– Orain bi pezetaren ezurrak salda egiteko. Bañan eder-ederrak jarri izkidazu.

Eta Baldomerok erantzun:

– Bai. Eder-ederrak jarriko dizkizut, ba, mamia-
ren izpirik ere gabeak.

Guk lan egiten genduen bizartegira sarritan bil-
tzen zitzaigun, bizar-illeak moztera eta bai tertuli
atsegiñak egitera ere. Egun batez etorri zan esanez:

– Gaur illea eta bizarra, biak moztu bear dizkida-
zute.

Sillan exeri zan eta, illea mozteko zapia jarri on-
doren, onela diogu, bere illargi ederrari eta bere ji-
ran zeuzkan ille txuri politei begira:

– Zer egin bear degu, Baldomero, buru ontan?

Eta berak erantzun:

– Buruaren bueltako ille beltzak utzi eta zuriak
moztu, eta gaña orraztu bakarrik.

Amaika olako esaldi egiñik joan zan gure
Baldomero. 1965 urtean il zan, ain zuzen. Goiko
Jaun Onak berekin beza.

* * *

1986-garrengo urtean, garagarrillaren 1-ean,
Teodoro Ernardorena Zizurkilgo semeari, omenal-
dia egin zitzaion Oiartzungo errian.

Bertsozale eta pelotazale purrukatua bera ere.

Lau bertso auek idatzi nizkion. Oietako bi, berari eskeiñi zioten plaka batean grabaturik daude.

1 O Zizurkilgo seme maitea,
ain sendagille gozoa,
zure bizitza ez da izandu
oso garai erosoia;
bañan zuk ziñez landu dituzu
pelota eta bertsoa,
erri zar oni eman diozu
zure izate osoa.

2 Nola bertsoen saillean ala
pelotaren alorrian,
euskal soroan saiatu zera
indar zenduen neurrian.
O Teodoro, egon zindezke
itxaropen ziurrian:
landare onak sortuko dira
zuk landu dezun lurrian.

3 Mundu ontara zu sortu ziñan
kabitxo polit artatik
etorri gera, zuri biotzez
omen egiteagatik;
eta ezagun maitiengandik
albistetxo au dakarkit:
zorion eta agur beroak
zizurkildarren partetik.

4 Zure izena jaso nai degu
al genezaken gorena,
zuretzako gaur goratzarre ta
gaur zuretzako omena.
Gure biotzak egin dezaken
oparirikan onena,
zure besoak jaso bezate,
Teodoro Erandorena.

Pelota-jokoa

Zenbat itzbide eman ote digu istorian zear kirol onek? Beste guztiak baño geiago ziurtatuko babiligu norbaitek, ez nintzake asko arrituko, Euskal Errian bereziki. Eta, bera bizirik degun artean, ez gera lan ontarako aririk gabe geldituko noski.

Asko dira gai onetzaz nik baño egokiago idatzi dutenak. Bañan okerxeago benik, inoiz aipamen batzuek berritzea ere bearrezko izan diteke.

Oñen gañean zutik jarri giñan ordurako, asi giñan euskaldunik geienak pelotatxo batekin jostatzen. Gogozko izan degu gure artean jostallu biribil au. Eta gure jokoetan zarrenetako bat baliteke izatea. Kiroletan dan egokien eta txukunetako bat dala esaten badegu ere, ez det uste asko utsegingo degunik.

Ongi dakigunez, pelotak jokatzeko era asko ditu. Bañan eskuz, palaz eta xestoz izango dira guk geienbat ezagutzen ditugunak. Xestoz jokutzen diranak, berriz, erremontea, punta eta baita ere oraindik bizirik dagon errebotea izango dira.

Azkeneko au gure aurrekoak erri askotan ezagutu zuten. Bañan, tamalez, gaur Zubieta eta Billabona bakarrik gelditzen dira, mugaz onunztik beintzat, oraindik jokutzen diran erriak.

Mugaz arunzko Euskal Errian indartsu daukagula dirudi. Andik agertzen zaizkigu beintzat lan ontan trebeen eta argienak. Dana dala, benetan joko ikusgarria eta dotorea dala uka eziña da.

Beste jokaera guztiei ezer kendu gabe, plazaren alde batetik bestera dabillen pelotak badu grazi aparteko bat, gure ustez. Bost jokalaria izaten dira alde bakoitzetik, eta ez da beste pelota-jokoak bezin errez ulertzen dana. Bañan arreta pixka bat artzen bada, bereala jazten da bat berak dituen araez.

Mutil argiak eta biziak eskatzen baditu pelota-joko guztiak, onek ez gutxiena.

Eta, errebotiaz itzegiten degunez, ezin ixildu Billabonako erriari aitormenik egin gabe. Pelotarien seaska deitu izan zaion txokoa degu au aspalditik.

Erri ontan jaio zitzaigun, 1861 urtean, Pedro Yarza, *Billabonako Mankoa*, ezbearrez txikitan be-soa galdua. Euskal Errian eta emendik kanpo ere oso gizon entzutetsua. Onen garaian, eta leenagotik ere, izango zituen erri onek pelotari onak. Bañan onen garaitik onuntza indar aparteko bat artu zuela esan bear joko onek txoko ontan.

Pelotarien maixu aundi bat zala ez dago zalantzarik, eskuz, puntaz eta errebotean ere, Euskal Errian eta Amerika aldean utzi zituen ezaugarriak aitortzen dutenez. Leen esan degunez, ondoren ederra utzi zigun Mankoak. Izendatzen asi ezkerro, sail aundi bat konta diteke.

Billabonako erriak biotz erdian darama Pedro Yarza'ren oroipena. Orregatik ere pelotaren errege dan erreboteko joko onek irauten duela dirudi.

Eskertzekoa da berari zutik eusteko lanean ari diranen alegiña. Eta gure laguntzaren premiagatik ez dedilla galdu. Gure esku dagoan zerbait badago, pozik emango degu.

Badira Txirritak Pedro Yarza edo Mankoari jarritako bertso egoki batzuek, *Auspoa*ren liburu batean agertzen diranak. Eta oietako bat edo beste, emen argitaratzea irakurleari atsegina izango zaiolakoan, idazten ditut:

Suerte txarrak jo zuelako
beso bat dauka moztua,
bañan bestia sano duala
obra da manifestua;
begiyak ernai, memori ona,
ankaz ibildun lixtua,
Billabonan da probintziyako
pelotarien maixua.

Urriko illak amar zituban
Bizkaian da probintziyan,
kontrariyoric gabe zebiltzan
pelotariyak Frantziyan,
beste lan gabe ibilitubak
beren denbora guztiyan,
Billabonako beso-motz batek
laxter konpondu zizkiyan.

Jende guztiya ikaratzen du
plazako bibotasunak,
nekatu arren laguntzen diyo
korputzeko osasunak;
adelantatzen dijuazkiyo
diru eta ontasunak,
iru erreño bildurak dauzka
beso batekin gizonak.

Erreboteko lanian ere
badaki anakak dantzatzen,
ikutu gabe pelotarikan
plazan etzaio pasatzen.
Bola bezela beti badabil,
ala ere ez da nekatzen,
orrelakorik munduan zanik
iñork etzuben pentsatzen.

Kamioa

Sarritan entzunak gera 1920 urtean egin zala Zizurkilko errira lenengo kamioa: erriko plazatik erten eta Olentzaro baserriaren ondoan Billabonatik Asteasu aldera dijoan kamioari eransten zaiona ain zuzen, Bañan bi ballaretako gizonak izugarrizko auzia izan ondoren.

Asteasu aldetik dagoen Buztin ballerakoak eta San Migel ballerakoak gogor jo omen zuten alkarren aurka.

Buztin ballerakoak goian aipatzen dedan bide ori nai; eta San Migel ermitaren ballerakoak ere beren aldetik igarotzea nai, Zubiaurretxo baserriaren ondoan Adunatik Billabonara dijoan bide zabalari eransteke.

Eztabaida oietan iñolako erabakirik artu eziñik zebiltzala, auteskunde edo botazio bidez nor geiagoka egitea erabaki omen zuten.

San Migel baillerako gizonak, gutxiago ziran bel-durrez, maltzur jokatu omen zuten.

Boto-orri bi plantxaturik jarri baten itxuran, eta dotore sartu omen zituzten kristalezko ontzian, beren aurkakoak konturatu gabe; eta, bein ontzi ortan sartu ezkerro, balekoak izaten omen ziran boto guztiak.

Beibategi baserriko *Portotxa* deitzen zioten Migel Marik, besoa jasorik beatzen puntan eramane eta sartu omen zuen ontzian dobleko boto oietako bat. Oso xelebrea zan Migel Mari ori, eta geroz sarritan esaten zuten zizurkildarrak onoko esaldi au:

- Boto faltsoa botatzera *Portotxa* bezin pin joandako gizonik ez dek Zizurkillen eta beste inun izango, seguru aski.

Botoak kontatzen asi ziranean, laxter konturatu omen ziran beren aurkakoak; eta Salugarateko aitona amorrubizian ostikoz jo eta kristalezko ontzi ura autsi omen zuen.

Bañan galestia atera zitzaion ostikada ura. Bi milla errealeko zigorra bota omen zioten, eta garai artan baserritar batentzat jipoi ederra zan noski.

Orrelako astakerietan xelebrequeri asko gertatzen da; eta, saltsa ortan zebiltzala, bi gizon alkarrekin aserretu omen ziran: bat Pantxikaene ostatuko nagusia eta bestea Zubiaurretxo baserrikoa. Pantxikaenekoa gizon lodia zan; Zubiaurretxokoa berriz txiki-txikia, beste aundiak mokadu batean jateko modukoa.

Izketaratu ziranean, onela dio aundiak txikiari:

- Jotzen bazaitut derrebesarekin, eun milla puska egingo zaitut gero!

Eta txikiak erantzun:

- Eun milla puska? Puskarik txikiena ere i baño piñagoa, e?

Azkenik, erriko gizon zintzo baten eskuetan utzi omen zuten erabakia, eta onek itz auek esan omen zituen:

- Ez dit kontzientziak agintzen San Migel aldeko gizona arrazoirik ematea.

Orrela erabaki omen zan Zizurkilla lenengo kamioa nundik egin.

Gaur egun bi alde oietatik ere kamio ederrak daude Zizurkilla igotzeko. Bi aldeetatik ere ez det uste alde aundirik dagoenik.

Askotan setakeriak utsaren peskizakoak izaten dira, eta Zizurkillen ere orrelako zerbait izango zala uste det. Bañan gertakizun au kontatzeko gaia eman dit neri, gutxienez.

Mixiolariak

Euskal-Erriak mixiolari asko zabaldu dituala munduko alderdi guzietara esan bearrik ez dago.

Onen aurreko atal batean, Asteasuko Aita Julian Lizardi aitatu det. Orain, berriz, Aita Migel Otegi, Arripitxi baserrikoa.

Gizon au 1912 urtean jaioa zan noski; eta, oso gazterik Jesusen Lagundian sarturik, 1941 urtean eman zuen meza berria.

Bere bizitzarik geiena Txinako uri aundietan eraman zuen, Unibertsidade maixu noski: Wuhu, Makao eta Formosa-n ain zuzen.

Txinoen izkuntza ikasteari denbora asko eskeiñi omen zion, eta izkuntza orren itzak erderazko izte-gira itzuli omen zituen.

Arripitxi baserritik bost senide erlijioso atera ziran lenengo: bi anai eta iru arreba. Bi anai oietakoa zan noski Migel. Bestea Lasallekoa da, oraindik bizerik dagoen bakarra.

Gañera, bi illoba ere badituzte moja, eta frantziskotar bat, Andres, orain denbora asko ez dala Oliten il dana.

Ontaz aparte ez genezake ezer asko kontatu be-



Arripitxi baserria, Zizurkil.

ren iztoriaz, etxe aldetik oso egun gutxi egin zituzte-
nez eta berez ere oso ixil eta izkutukoak ziranez.

Migel Otegi 1989 urtean il zan. G. B.

Mixiolari guzien goraltenez, amabi bertso auek
moldatu nituan orain urte batzuk:

1 Lur maite ontan sortu izan da
landare bikaiñ ugari,
ezin diteken lana da eta
kontatzen ez neike ari.
Zenbat apaiza, moja ta praille,
santu ta mixiolari,
Euskal-Erriak eman dizkanak
mundu zabal osoari.

2 Toki batean erretakoak
eztirade noski denak,
baiña badakit Euskal Erriak
ez dauzkala gutxienak.
Naiz eta izan euskaldun askok
jaramonik ez dienak
oiek ditugu gure lurreko
arbolik berezienak.

3 Beren biotzak jarri dituzte
Jaunaren gogoz baturik,
oiek eztute mundu ontako
eragozpenen ardurik.
Duten guzia maitasunezko
su bero ortan urturik,
dana zerurantz bialtzen dute
ke gozotan biurturik.

4 Zenbat amaren seme joan da
Jaunaren pozez zoratzen,
urez aruntza ezkutatuta
ez dira asko agertzen.
Bazterrik bazter ortxe dabilta
egi santuak zabaltzen
gure fede au erakutsita
anima pranko salbatzen.

5 Bedeinkatua zuen ama ta
azi zaituzten bularra,
ez da dudarik zuekin gauza
aundia egin duala.
Gogoz lanari ekin diote
eldu danean udara,
orri erantzun dion biotza
bedeinkatuagoa da.

6 Mundu osoan erna dedilla
zuen antzeko ugari,
Jaun Zerukuak grazi eder au
eman bezaio lurrari.
Zuek zerate, ain zuzen ere,
Jesukristoren gudari,
artzai onaren eredu eta
egiaren ezaugarri.

7 Egi santuak erakusteko
premiz dagon toki artan,
lana ugari badago bañan
langilleak oso bakan.
Orretarako barruko sua
zeñen gauza bearra dan,
Goi maitasunak berotzen ditun
biotzak bear dira an.

8 Gure anaiak onuntz aldera
dauzkagu oju eta ots,
Jaungoikoaren argirik gabe
gaixoak nola dauden otz.
Goimaitasunez indartutako
gazte kementsuak betoz,
gauza aundiak egin litezke
aien arnasaren beroz.

9 Illun beltzean goserik dauden
anima errukarriak,
zuzentasunik ez dutelako
gose eta egarriak.
Egun sentia sortu bezaie
goiko Jaunaren argiak,
larre gozora bildu ditezen
ain gose diran ardiak.

10 Mundu guzira begiratuaz
auxen da gure galdera:
goiko Jaun onak maite ez duen
zein arraz ta kolore da?
Guziok berdin sortuak eta
aita batenak bagera,
biotz zabalez deitzen diegu:
betoz gure artaldera.

11 Ongi dakigu, gorputzak dauzkan
zati guztien erara,
kristauak ere Jesukristoren
eleiz oso bat generala.
Jakiña dago, kristautasuna
azalezkoa ez bada,
izen au degun guziok gaude
beartuak orretara.

12 Esan bezela, kristautasuna
nai badegu erakutsi,
bearkizun au gurea da ta
guk bear diogu eutsi.
Otoitez eta sakrifizioz
ez genezaguke gutxi,
esku bat luza liteke eta
luzatu gabe ez utzi.



Aduna.

Aduna

Gure Gipuzkoak duen erririk politen eta alaienetako batek, beregana begiak jaso erazi ez dizkigun asko ez gera izango Euskal-Errian.

Donostitik Tolosa aldera kamio nagusian goazela, Andoain erritik erten orduko, eskui aldeko gaintxo batean agertzen zaigu Aduna, etxe tartean punta zorrodun eliza nagusia duela.

Belkoain mendiak bere babesean dauka egutera gozoko erritxo maite au. Mendi onek, ama on batek bere semetxoak bezin maiteak dituela esango genduke bertan bizi diranak, ain bearrezko dituzten urak bere erraietatik artzen dituztenez.

Andoain, Billabona eta Zizurkillekin ditu bere mugak. Lenengo erri onen zati dan Sorabillarekin, Amundo baserri ondoan mugatzen da. Billabona-rekin, Oria erreka zabalean; eta Zizurkillekin, Iruiturri deitzen diogun lekutik sortzen dan Salobi edo Adunibar erreka gozoan. Zorionez, gaur gutxi bezelako garbia arkitzen da au.

Aduna erria gure inguruetan zan baserri-toki ederrenetako bat izana dala esatea ez det uste geiegizkoa danik, zorigaitzez egal batetik gaur egun oso zauriturik badago ere.

Erri inguruko sail ederrez aparte, badu, Oria errekaaren alboan, Euskal Erriak oso gutxi dituen bezelako erribera eguteratsu bat, benetan lur eman-kor aberatsa izandakoa.

Orain urte asko bertan fabrikagintzari ekiteko asmoz lurjan izugarriak egin ondoren, urte luzeetan ezer egin gabez, sasi eta zikiñez estalirik egon da.

Azken aldi ontan fabrika bat edo beste egin dituzte ur eskiñan, bañan oraindik sail aundiak dauzka zabortoki biurturik. Tamalgarria benetan!

Paradiso beraren eredu genduen Adunako erribera ura ezagutu gendueni, gaur, bere inguruan igarotzean, benetan negar egiteko gogoia ematen digu.

Penagarria benetan, diot berriro ere!

Inguru ortan bizi diranak oso asperturik daudela digute, bertan botatzen dituzten zikinkeriaz protestak egiten, ez diotelako iñork arretaz artzen.

Zalantzarik ez dago fabrikagintzak bere toki bereziak bear dituela. Bañan orrenbeste urtean ainbateko lurjanak egiñik egon ondoren, berriro edozein zaborrekin bete-lana egitea ez da edozein burutan errez sartu diteken jokia.

Gure ustez, kontzientzi gabeko lan geiegi egin da toki askotan. Ori garbi antzean dago noski.

Guk gure aldetik ez genezake ezer askorik. Bañan gure itzak lekurik badute, goitik dauden gizonak leku ortatik igarotzea ongi izango litzakela uste degu, erri onen benetako ardurarik badute.

Eta Euskal Erria maite degun guztiok ere izan zaiogun gure Adunari merezi duen errespeto edo itzala.

Begiratu ezkerro
zati eder orri,
irakurle, kontura
zindezke zerorri,
ta entzungo diozu
bat baño geiori:
“Orrela biurtzeko
paradiso ori,
tentazio txikian
ez gera erori”.

Adunaren abotsa
aipa nai nuke piñ,
nere borondaterik
gozoenarekiñ.
Goiko gizonak jarri
bezate alegiñ,
gaintxo polit ortako
erri orren berdiñ,
bere izena ere
goian izan dediñ.

Ona orain, azkenik, Aduna erriari orain urte ba-
tzuk moldatu nizekion bertsoak:

Zizurkildikan ifar aldera
ikusten zaitut, Aduna,
loretegian lilia bezin
apain eta ezaguna;
begi garbien argitasun ta
biotz ixillen laguna,
zeru goiari begira zauden
erri polit euskalduna.

Etxe tartean punta zorrotz dun
eleiza ageri zazu,
apaingarriztat zerua eta
ainbat izar dizdiratsu;
alkar maiteak izatekoak
gera munduan ni ta zu,
gogorapenik ederrenak zuk
gogoratzen dizkidazu.

Bidali bitza sarri gugana
zure eleiza zorrotzak
Jaunaren deia esan nai duten
kanpai eder oien otsak;
lo zorrotikan esna gaitzala
goitar usai orren pozak,
zabaldu gure begiak eta
jaso zerura biotzak.

Adunako Joxe Mariren ateraldiak

Gure artean baditugu bertsolari oso ageriak, baina bai izkutuxeagoan daudenak ere. Bearbada, batzuek bezelako ausardirik ez dutelako edo zerbait bildurtiago diralako. Oiekin tratu pixka bat artu ezkerro, konturatzen gera beren ateraldi xeble eta izketa egokiaz.

Oso atsegiña da bertsotan erriaren aurrean lasai egiten duen bertsolaria. Oiek, ongi gosaldu edo bazkaldu ondoren, geienez beintzat, egiten dute beren saioa, eta txalogarria da jendeari gozotasun ori ematen dion gizona. Goian aipatzen ditudan oiek, berri, bazkal aurretik eta ondoren, lanean ari direnean eta geldi daudenean, ateraldi xebletan ditugu bertsolari. Itz batez esateko, izketan bertsolari.

Benetan lagun atsegiñak lanean ari geranean edo triste xamar gaudenean biotza altxatzeko, gizon umoretsuak izan oi dira geienez orrelakoak. Adibidez, ez genezazke aztu Pello Errota edo Txirrita eta abar. Oiek, erriaren aurrean eta lagun arteko izketan, lanean edo geldi zeudenean, noiznai genituen bertsolari.

Bañan lenengo aipatzen ditugunak ere oso atsegiñak dira, eta far noiznai egin erazten digutenak. Beraz, on aundia egin dezakete izkutuxeagotik ere.

Oietako bat aipatzeko, bazan gure inguruko erritxo batean, Adunan ain zuzen, izketan oso gutxi arrapatzen zutena.

Billabonako aroztegi batera zetorren egun batez, gurdi-pertika egiteko puska bat zekarren gurdian. Gizon argal batek onela dio adunatar oni:

– Joxe Mari: gurdian daramazun puska ori eraman zezazuken bizkarrian?

Eta Joxe Mariren erantzuna:

– Ik baño indar geiago bearako dik iztarrian.

Onelako ateraldiak noiznai omen zituen.

Beste batez, txekor bat ekarri omen zuen iltoki edo mataderira; eta ganadu ori, garai aietan arritzeakoa ez danez, arin xamarra izan bear zuen.

Iltokian bere egin bearrak egin ondoren, ostatu batera trago bat egitera joan omen zan. An bai omen zegoen agure zar bat, beti edo geienean ostatuan egoten zana. Baserriko berri baño, ostatuko berri geiago zekiena. Enteratua zegoen nolako ganadua iritxi zan iltokira.

Agure onek ezpain ikaragarriak omen zituen, bereziki beekoa. Ur bedeinkatu ontzi eder oietakoa, bañan ala ere edozeñi burla egitea gustatzen ziztaiona. Txekorraren jabeari, sartu orduko bota omen zion berea:

– Txekor izugarriren bat etorri omen da Billabona alde ontara.

Eta an zegoen batek:

– Zer pisutakoa?

Agureak:

– Ogei erraldekoa.

Asko pentsatzen egon gabe, erantzun omen zion txekorraren jabeak:

- Bai. Ogei erraldekoa. Eta zer uste dek, ba, ik: ikulluan txekorrak ire ezpaina bezela azitzen dirala edo zer?

Ostalariak, far gogotik egiñez:

- Tori, Joxe Mari, trago bat, orrek ongi merezi zuen da!

Agureari, merezi zuen saria eman zion Joxe Marik.

Askotan esan oi da "nai duena esaten duenak, nai ez duena entzuten duela". Eta Joxe Mari bezelako gizonekin, argi ibili bear izaten da. Gutxien uste danean, izketan eroriko zera, batez ere len aipatu degun gizon desairoso oietako bat bazera.

Baserritar txiro bat zan Joxe Mari. Bañan buruz argia eta ateraldi dotorekoa. Orrelako gizon asko izan ditugu Euskal-Errian. Bertsolari oso ageriak ez badira ere, bertsolari saillean sartzea ongi merezi dutenak.

Zizurkilko Arantzazuko Amaren eliza

- 1 Begiratuaz ego aldeko
Zizurkillen adarrari,
fedea duten euskaldunentzat
badu zerbait maitagarri:
estalpetxo bat txukun jasoa
Arantzazuko Amari;
ixilik neukan biotza gaur zuk
jarri didazu kantari.
- 2 Kristau zentzudun egiazkoak
merezi duten modura,
estalpe txukun gozoa zera
zere orma eta zura.
Albotik zerbait begiratu ta
sartzean zure barrura,
badirudizu Nazaretoko
etxe txukun apal ura.
- 3 Ardi gaxoak arrazoiz zeuden
babespe baten eskian,
zure antzeko txoko bat gabe
ezin egon zitezkie.
Bizitzan sarri sortzen zaizkigun
ekaitz beltz oiek astian,
gozatu, Ama, zure bildotsak
tellatu orren azpian.

Beste bi bertso auek, berriz, Arantzazuko eliza ortan apaiz izan zan On Bartolori eskeñi zitzaion agurrerako jarriak dira, egin genizkion oker guztien barkazioa biotzaren sakonetik eskatuaz eta oroigarri bat izan zitezen:

Etorrerari buruz:

Nabaiturikan illunpetako
gizonaren ibillera,
uste gabeko argi bizi bat
erten zitzaigun bidera.
Zizurkildarren apaiz sutsua
Bartolo Auzmendi bera,
Euskal Erriko Goierriaren
zeru ederretik bera
izar berri au gogoz zetorren
zuzen argi egitera.

Agurrari buruz:

Esker beroen eskuetatik
oroigarri au torizu,
ta erriaren biotza ere
barruan dijoakizu.
Esker gutxiko izan gerala
zedorrek ongi dakizu,
alaxen ere ez aztu inoiz
zizurkildarreatatik zu;
zure izarrak jarrai dezala
dizdizkor eta argitsu.

Xegunda Elolari omenaldia

1 Martxo illaren ogei ta lauan
jakin ezazute nola
mende oso bat beterik dagon
gure Xegunda Elola.
Ez da makala Billabonako
alaba onen odola,
ikusten baita oraindik ere
tinko ta sendo dagola,
pelotarien sustrai beretik
ateratako arbola.

2 Gozo salketa izandu dezu
ziñezko eginkizuna,
zenbat umetxo ote da zuri
bixita egin dizuna?
Aitzakitxo bat bakarra dezu:
ezkondua ez izana;
sasoia zendun garai aietan
artu bazendun gizona,
zurekin etzan gaizki izango
lagun egiten zizuna.

3 Xegunda maite, ez nuke nai gaur
arinkerian asterik,
nere iritziz orrelakoak
obeak dira gazterik.

Bañan askotan esan bearra
izaten degu txisterik,
serio xamar itzegin eta
jarri zindezke tristerik,
ta ez nuke nai aleluiazko
farre gozo bat besterik.

4 Billabonako erria ainbat
zaleturikan egona,
ta iritxi da aspalditxotik
igarririkan zegona.
Ziur nago ni gure Xegunda,
mendeko edadeduna,
erri osoak kantuz ta soñuz
omenduko dun eguna
liburuetan idatzirikan
gogoz jasoko deguna.

Euskera eta euskaldunak

1 Askok jakin nai dute nor zeran,
gure euskera garbia,
biotz oneko gizon danentzat
ain zera maitagarria!
Kristau guziak zuzen argitzen
dituzun izar argia,
mundu ontatik zeruraiñoko
bide erakuslaria.

2 Oitura on da izkuntza garbiz
guztiok dakigu nola
gure euskera, zalantzik gabe,
gorengo maillan dagola.
Nik aitormen au eman ala ez
asko ez dio ajola,
bere frututik ezagutzen da
nolakoa dan arbola.

3 Bere frututik janda iñori
eskeintzen asi baiño len,
ikusi zagun arbola onen
sustraia nundik datorren.
Ori biotzak ezagutzean
al dan garbi ta ondoen,
gustorago jan da on geiago
egin dezake ondoren.

- 4 Ain txikia dan euskera onek
ainbat maitatzeko zer du?
Au bakoitzaren kontzientziak
bear du ondo aztertu.
Nere iritziz, garbiagorik
ez da munduan agertu,
gauza santuak maite badira
au ez diteke baztertu.
- 5 Euskaldun danok jarrai genezan
kristandadean aurrera,
Jaun Zerukoak grazi eder au
ixuri zigun lurrera.
Bizi ezkeru euskera onek
erakusten duen era,
zeru aurreko paradiso bat
litzake mundu au bera.
- 6 Norbaitek gure ateraldiak
entzun eta bereala
esan dezake zentzu gabeko
amesgilleak gerala.
Aztertu beza gizon bakoitzak
ta derizkion erara,
bañan euskera, gure iritziz,
goi-maitasuna bera da.
- 7 Itxura degun euskaldun asko
zer ote gerade barruz?
Gauzik txarrena aztutzea da
bakoitza bere pekatuz.
Eskribak eta farisaitarrak
or dabiltz aruntz ta onuntz,
zori txarrean Euskal Errian
gaur zenbat kristau azal uts!

8 Euskera oni kristautasunak
nola bear dion eutsi,
euskaldun onak egite onak
bear ditu erakutsi.
Mingaiñarekin ematen zaio
amaikatxo bat igurtzi,
itz gozoaren paltik ez dauka
bañan laguntzaille gutxi.

9 Mintzatutzea etzaigu aski
aura datorren añean,
kontzientziko karga darama
bakoitzak bere gañean.
Jakiña dago, gauza urriak
dira itzak mingañean,
ez baditugu arretarekin
eskuak jartzen lanean.

10 Nola etxean, ala kanpoan,
nundikan nora gabiltzan,
euskera ziñez maite badegu
beti biotz garbi izan.
Ontasun ori agertu bedi
gure lurreko bizitzan,
usai gozoa zabaltzen duten
lore eder oien gisan.

11 Euskal Erriko adimen onak
ez ditezen egon laño,
zer goi-maitasun garbiagorik
Pedro Marik digun baño?
Bizitza duen usai gozo au
il ez dedin egundaño,
gure arnasak sartu dezala
biotzetan barruraño.

Sagarra eta sagardoa

Aurtengo urtea (1988) sagar eta beste frutuz ere, Aguk ezagutu degun eskaxenetako bat izan ditekete, gure inguruetan beintzat. Sasoiko sagastiaik naiko urri baditugu, diranak oso arin ikusten dira.

Beraz, sagardogintzan ari diranak urterik onena danean ere emengo sagarrez osatzen ez badira, aurtentzen geientxoena kanpotik ekarri bearrean izango dira, ontzi aundi oiek bete nai badituzte.

Gaur eguneko sagardogilleak gure aurrekoak baño ikasiagoak dira, zalantzarik gabe. Bañan gure aurrekoak eta gaur egunekoak, lan ontan alegindu diran guztiak, merezi dute gure goralmena.

Beste ñori ezertxo kendu gabe, Adunako errian degun Garagartza baserriko Ramon Zabala jaunak ateratzen dituen sagardoak ere merezi dute gure aipamena.

Aspaldi dute etxe ontan sagardo xuabe eta edangusto onekoak ateratzeko moldaera egokia.

Euskal Erriak, gaur ainbat jakinduri etzuen garaietan ere, izan ditu, ziur aski, lan ontan sena aundiko gizonak. Adibidez, oraindik urte asko ez dirala, edadez oso aurreraturik mundutik joanak ditugun Asteasuko Estanko etxeko Jexux eta Felipe Otegi

anai atsegiñak, aspalditxotik zuten sagardogille oso onen ospe edo fama. Idazten dedan onek garbi aitortzeko, nere gustorako edan dedan onena, anai bi oiek egiña zan, ain zuzen. Getariko txakoliñak ainbat ospe izan zuela uste degu garai batean Asteasuko sagardoak.

Neronen aita zanak ere bazuen lan ontarako go-goa. Sagardogille onenetakoa ez bazan ere, bazituen onak atera zituen urteak. Gizon adintsu batzuek go-goan dute oraindik, berak urte batez atera zuen sagardo zoragarria. Alako sagardoa ateratzeko zer egin zuen galdetzen ziotenean, nere aitak auxe aitortu izan zuen: kopakada bat igeltso-kozkor errea besterik etziola bota kupelari.

Bañan ondorengo urteetan, alegin guztiak egiñagatik, ez omen zuen urreratzekorik ere atera al izan.

Sagardogintzan entendituak diranak, ikasi ez diran eta ikasiko ez diran mixterioak dituela kupelean egiten dan sagardoak aitortu oi dute. Gure iritzi apalean, gizonaren entendimentua irixten ez dan mixterio asko dago beste sail askotan ere. Ara Pedro Maria Otañok arrazoi aundiz osatu zuen bertsoa:

Nola gizon guztiyak
txit aundiyak dian,
eta oso txikiyak
denbora berian,
batek, asko pentsatu
eta ondorian,
igertzen diyo nola
gauz asko lurrian,
ainbeste itxasuan
ala legorrian,
egonagatik guztik
gugandik urrian,
Jaungoikoak daduzkan
betiko gordian.

Ona orain, azkenik, noizbait ere gai oni buruz
moldatu nituan bertsoak.

Sagastia:

Euskal-Erriko aberastasun
genituan sagastiak,
zarrak bukatu zaizkigu eta
urri ditugu gaztiak;
oso bildur naiz luze baño len
galduko diran guztiak,
oien gañetik eziñ emango
ote ditun abestiak,
udaberrian gure lurbira
poztutzen dun egaztiak.

Biotz erdiko landare txukun
maite eta alaiena,
etzera inoiz piñuen gisa
osto uts eta gallena;
zurea beti apaltasuna,
arrokeria aiena;
animatikan aitortzen dizut
zaitudala maitiena,
gure lurreko zugaitz txikien
eta biotz emallena.

Udazkeneko ego epelak
zerbait eskatzean zuri,
zure biotza maitasunian
murgiltzen dala diruri;
dezun guztia eta geiago
pozik eman nairik guri,
euri-eguzkiz osatutako
zenbat sagar gorri-ori,
zugaiztxo maite, gure lurrera
ote diguzu ixuri?

Sagarra:

Zori oneko sagar maitea,
gure antziña zarrian
biotz aundiko serbitzaria
sartu ziñan baserrian;
muga gabeko aritz-gaztaindi
ziraden toki berian,
pago dotorez osatutako
baso zabalen erdian,
zure gogoko lurra aurkitu
zenduan Euskal Errian.

Goi maillakoa egin zinduen
izakietan Altsunak,
arrigarrizko doaiak dira
azalpean dauzkazunak;
zugandik zenbat iturri garbi
artzen duen osasunak
galdetu eta gizon ikasi
asko dira erantzunak:
“Urre guztien gañetik daude
bere aberastasunak”.

Gure emaitzen errege eta
nagusi zeran emaitza,
toki askotan dezu aurkako
eraso edo ekaitza;
esan liteke onaren orde
egin diguzula gaitza,
gugandik oso baztertu eta
desegin nairik dabilta,
ez ote dago bere tokian
daukazun agintaritza?

Sagardogintza:

Benetan toki atsegiña da
zugaiztxo onen azpia,
bere emaitzez betetzen asten
geradenian saskia;
aldameneko adar puntatik
txantxangorri abestia,
gozoa dala adierazten
ari zaigu egaztia
laixter sagardo biurtuko dan
sagartxoaren ezitia.

Esku gozoak bildu zaituzten
emaitz paregabe ori,
udazkenaren amai aldera
ara epaia etorri;
eta azkenik tolarearen
eskutan zera erori,
janari bikain zendun mamia
biurtu dedin edari,
emen utziko diozu korputz
biribil izateari.

Gure begien atsegingarri
ziñaden sagar bitxia,
une oietan azken ordua
zuretzako iritxia;
beraz geiago ezin diteke
osorikan gelditzia,
tramankuluak egingo dizu
apurtu edo iltzia,
barruan dezun espirituak
eman dezaigun bizia.

Sagardoa:

Guraso zarrak barruan zuten
biotz berdingabearen
eredu eta ezaugarriak
ziran sagasti ederren
erdian jaio ta azitako
semeak nola geraden,
amak utzi ta berealaxe
bularretikan ematen,
sagardoaren txotxera jun da
ikasi gendun edaten.

Aundikeririk batere gabe,
leial eta errukitsu,
bazter illun ta zokoetatik
egin diguzu serbitzu;
iñork bada ta biotz osoa
euskal bertsoak zor dizu,
txiki auekin iñola eziñ
ordaindu zinduzket nik zu,
baiñan gogorik bizenakin
dedan gutxi au torizu.

Edari maite, laztan batean
artzen zaituzte ezpaiñak,
eta taupada gozoz barrura
bultzatzen dizu mingaiñak;
gure lurreko bertsolariak
ta olerkari apaiñak,
euskaldun denok osatzen degun
zugaitz eder ta bikaiñak,
zure bustian ezetu ditu
bere biziaren zaiñak.

Bertsolaritza

Benetan kezkatu nintzan gai oni eltzeko, bañan azkenik nere iritzitxoak agertzea erabaki det.

Aurrez barkamena eskatuko nizuke, irakurle, nere pentsakera ain zuzena ez bada bertsolaritzari buruz.

Badakigu kontuz ibili bearreko gaia dala. Bañan jesuiten buru izan zan Aita Arrupe'k Aita Santu Paulo seigarrenari beingoz erantzun zion ateraldi egoki ura datorkit burura:

Gaizki aterako zaidan bildurrez ez badet ezer egin, ez ongi eta ez gaizki ezer egin gabe geldituko nintzakela alegia.

Zalantzarik gabe, gaur egun gu baño gizon argiago askotxo dago gai oni buruz itzegiteko. Bañan gutxi jakin edo gizon txiroen iritziak ere ez degu uste kalterako izango diranik.

Euskaldun geienak dakigunez, erri txiroaren alaitasunetik sortu da bertsolaritza. Adibidez: gaur ainbat ikuskizun etzan garaietan, lagunartean egin oi ziran bazkari edo afari ondorenetan eta festa giroetan; eta, batez ere, sagardotegietako kupel zar aien inguruan sortu ziran girorik berezienak.

Aspaldiko bertso baten bukaerak dion bezela: "Gure kolejiyua sagardotegia".

Gure iritzi apalean, bere arriskuak ere izan ditu, eta baditu, bertsolaritzak. Leenago, beintzat, ostatu eta sagardotegietako giro asper eziñak neurritik atera eta erretiro berandukoak egitera makurtu erazten zuen.

Gaur ere izan ditezke orrelako irrixtadak. Baña beste joera bat artu duela esango genduke bertsolaritzak.

Borondate oneko gizonak eramán dute zalantzarik gabe plaza eta ikastoletara zorionez. Bañan sagardotegietako giro atsegiñak ere gureak dira, neurri jator batean.

Beraz, oso ongi dago zalantzarik gabe era berriak artzea. Bañan batez ere gure kontzientzia berritzea askoz bearragoa dala uste degu, bertsolaritza jaso nai badegu.

Euskal kulturaren zati berezi bat bear luke izan bertsolaritzak. Bañan ez dakigu neurri batean ala ote dan.

Asko bezin sarritan ez bada ere, bertso-saio bazueta irixten gera, zaletasuna degunez; eta gogaiturik ere gelditzen gera sarritan, entzuten diran narraskeri eta batez ere alkarri esaten dizkioten itz mingarriengatik.

Gure ustez, arrastaka eta itxura txarrean ere geiegi ibiltzen da bertsolaritza.

Broma eta alaitasuna bear ditugu, eta piper eta gatza ere bai. Bañan errespetoa eta seriotasuna galtzeraño nabarmendu gabe.

Gogoan ditugu 1950 urtean, Urrillaren 15-ean ain zuzen, Pedro Mari Otañori egin zitzaion omenaldi batean, garai artan ain ezaguna zan Alzeta jaun izlari trebe eta jatorrak bertsolaritzari buruz esan zizkigun itzak.

Onela zion:

- Bertsolariak, atera illunpetik bertsoak. Jaso

gora bertsolaritza. Ez ibili bide naasitik. Izan egun argitako bertsolari. Eta, batez ere, goi-maitasuna nagusitu bedi zuen biotzetan. Zer ikusten dezute Pedro Maria Otañoren bertsoetan goi-maitasuna baizik?

Jakiña da ez generala aingeruak, lurrean itsatsitako gizonak baizik. Bañan, tamalez, geiegi itsatsiak ere bai.

Bertso-saioen ondorenetan
itz asko ditut aditu,
gure antzeko geiago ere
Euskal Erriak baditu.
Bertsolaritzak bide onetik
arren dezala jarraitu,
edo-ta orain arte sarritan
baldin bagera gogaitu,
denbora luze baño lenago
oso aspertuko gaitu.

Ona emen orain urte batzuk gai oni buruz moldatu nituan bertsoak:

Obe litzake Euskal Erri au
lenbailen jantziko balitz
ain bearra dan goi-maitasunez
betetako bertsolariz.
Ainbat euskaldun gaur bertan ere
dauzkagu orren egarriz,
biotz on oiek ase ditezen
gure iturriko ur garbiz.

2 Etzaiogula euskera oni
erantzun biotz gogorrez,
beretzat ez du gutxi esan nai
guk zerbait egin edo ez;
gure bertsozko kantu alai ta
gure izkuntza dotorez
Euskal Erriko jardiñ eder au
apaindu dezagun lorez.

3 Izan gaitezen egitez zuzen
eta izketaz garbiak,
biotz illunak argitu ditzan
gure izate argiak;
diz-diz egiñaz agertutzeko
dira Jainkoak jarriak
zeruan izar ederrak eta
lurrean bertsolariak.

4 Ez gaitezela beñere aztu
gure Jaun eta Jainkoaz,
berarengandik erten giñan da
berarengana baigoaz;
gure aoko lurrun txuriak
gora igoaz, igoaz,
gure aurretik lur ontatikan
zeruetaño bijoaz.

Xalbador bertsolariari

1 Mugaz arunztik bizi zeraden
Urepeleko Xalbador,
gaur ez gatozti txistuak joaz,
gaur ez gatozti saltakor.
Sinista zazu pekatu ura
aitortzen zaizula jator,
ta erruaren barkapen eske
biotz apaldu bat dator.

2 Izkeraz alde aundia dago
zureagandik gurera;
jakiña, zure esan nai askoz
ezin konturatu gera.
Beraz, itxuan pausoak nola
bota genitun aurrera,
orregatikan iritzi asko
erori ziran lurrera.

3 Zalapartazko barrunda gabe,
patxaraz eta geldiro,
zure bertsoak irakurri ta
aztertu dira berriro.
Eta, Xalbador, ikusten degu
ongi baño obekigo
mailla ortara etziñala zu
meriturik gabe igo.

4 Une batean zure aurrean
sortu zan giro zaztarra,
paketutzeko zu izan ziñan
gizon argi ta azkarra.
Bertso batean erten zitzaizun
itz eztitsu bat bakarra,
eta aretxek paketu zuan
ango purrusta zakarra.

5 Gure erria maitasunean
iñoiz ez dedin atzendu,
zure biotzak gurearentzat
ikasbidea jartzen du.
Egin genduan okerra errez
ezin ziteken zuzendu,
gure antzeko biotz kaxkarra
agertu izan bazendu.

6 Askorengandik naiz esker txarra
beste gauzarik entzun ez,
zitalkerizko purrusta gabe
erantzun ziguzun onez.
Beraz, Xalbador, ikasgai ontan
erakusten diguzunez,
indarrez ezin diteken asko
diteke goi-maitasunez.

(1967)

Uztapideren eriotz ondoren

- 1 Gaztetan ez da segurantzirik,
eskaporik ez zartzera,
alper-alperrik egitea da
eriotzari atzera.
Mundu ontatik geientsuenak
joaten diraden antzera,
zure ordua bete danean,
gure Manuel, joan zera.
- 2 Ezagutzera eldu giñanak
gizartean genbiltzala,
aitortzen degu itxaropenik
aundienean il zala.
Dударik ez da bukatu zaizu
eriotzaren itzala,
orain uste on zenduan Arek
bere argitan zaitzala.
- 3 Bertso eder ta zoragarriaz
pakezko giro gozuan,
gu atsegintzen alegindu zan
bere bizi-tza osuan.
Biotz barrua beti baizeukan
maitasun beroko suan,
argatik orain goiko Jaun onak
berekin artuko zuan.

4 Euskal Erriko zugaitz sendo ta
indartsu izan zerana,
mendi gañeko arnas garbitan
gure lur onek emana.
Goian zinduzen zure sustraiak,
goitarra zenduen dana,
eta azkenik goi arnas orrek
artu zaitu berezana.

Bautista Ondartza zana

1992 urteko otsaillaren azken egunez joan zitzai-
gun mundu ontatik Asteasuko seme argi eta ke-
mentsu izan zan Juan Bautista Kortajarena Elizegi,
Pello Errotaren billoba, larogei ta zortzi urte zituela.
Urrengo egunez eta iñauteri egunean egin zitzaizkan
illeta-elizkizunak.

Pelotari apizionatua eta bertsolari pin eta egokia
izan zan. Euskal Erriko ostatu eta plaza askotan
egin zituen bertso-saioak, Zepai eta Uztapide lagu-
nik berezienak zituelarik.

Ala, 1943 urtean, Zizurkillen festak ospatzen zi-
ran, beti bezela, abuztuaren 15-ean, Ama Birjin
egunean ain zuzen.

Festa bigarreanean, bi bertsolari alai agertu zi-
tzaizkigun ostatuko balkoian: Uztapide eta Bautista
Ondartza.

Bazirudien gorrotoak eta suak erretako gure lur
ontan pakearen eta alaitasunaren azia ereitera zeto-
zela.

Oso gutxitan entzuten dan doñu alai batekin asi
zitzaizkigun kantari. Aldarte aparta zeukaten ber-
tsotan.

Uztapidek goralmen aundi bat egin zion Zizur-

kilko erriari, paradiso txiki bat zirudiela esanez. Bertso ura ez det gogoan; bañan beste ondorengo biak oker aundirik gabe onela abestu zituzten.

Lenengo Bautistarena, Uztapideren goralmenari erantzunez:


Zizurkildarren familiekin
artu nai baukek parte,
emen baserri bikain askoak
ez dauzkak oso aparte.
Egun batzuek pasatutzeak
ez likek egingo kalte,
i, Uztapide, ez adi joan
emengo oilloak jan arte.

Eta Uztapidek, bere doñu eta aparteko eztarri gozoarekin, umiltasun eta jatortasunik ederrenekin, onela erantzun zion:

Ai, zer arrano esaten dezu,
Bautista, nere laguna?
Ez naiz ain ongi bizi nai duten
oietako euskalduna.
Oitua dago gutxigorekin
asetzen nere barruna,
aurrera ere eskatzen det nik
taloa ta babarruna.

Beste batean, Asteasun, Mixio-astea zan; 1947 urtea ain zuzen. Garai artan, inguru errikoak ere joan oi giñan, egun bat edo bestetan, itzaldiak entzutera. Igande egunez zuten bukaera aipatutako mixio-egun oiek. On Antonio Oiartzabal, Alegiko semea, izlari.

Bertsolari bi agertu ziran Erriko Etxeko balkoian, egun oiei amaiera emateko; Bautista Ondartza eta Zepai zana.



Asteasu.

Asi eta bereala onela abestu zuten:

Bautistak:

Don Antonio Oiartzabal zan
gure predikadorea,
buru argiko gizona eta
oso iztun dotorea.
Gaur badijua bañan berriro
etortzen bada ordia,
danak berari entzutearren
pozik etorriko dia.

Zepaik erantzun:

Apaiz jaun orrek dudarik gabe
egi ederrik esan du,
ta zerbait egin nai dun guztiak
oraindik ez du berandu.
Bautista ere orain artian
naiz-ta soltero egondu,
erremeiorik ez dauka orain:
praille jun edo ezkondu.

Bukatzeko, bertso auek norbaitzuen gogozko ba-
dira, Bautista zanaren oroigarritzat jaso bitza:

I Billoba ezagun bat
Pello Errotarena:
aitaren aldetikan
zan Kortajarena,
ta Elizegi berriz
zuen amarena,
Bautista Ondartza da
izen nabarmena,
berarentzat da nere
bertso-goralmena.

2 Asteasun jaio ta
bertan aurtzarua,
berdin gazte-denbora
eta zartzarua,
ortxe eraman zendun
jaio ezkerua;
elizaren albuan
kabitxo berua,
txoko ori zan zure
munduko zerua.

3 Elizegitar danak
famili-arrazan
bertsolariak dira
izketako trazan;
Bautista guztietan
txit berezia zan,
nola lagunartean
berdin erri-plazan,
motelik etzan sortu
Pelloren baratzen.

4 Bautista, etziñan, ez,
doaiez antzua:
bazendun gizon batek
bear dun zentzua,
buruan argia ta
biotzean sua,
odolean zendun, bai,
Pelloren kutsua,
aitonaren zañeko
kimu loretsua.

5 Korputz egokia ta
bizkorra pausoa,
neurri jator batean
burua jaso;
jenio bizikoa
bañan ez faltsoa,
maitea zun pelota
ta berdin bertsoa,
Jainkoak egin zuen
ain gizon osoa.

6 Kirolari bizkorra
izan ziñan zerez,
batez ere pelotan
eskubi-ezkerrez;
beti saiatu ziñan
bizitasun trebez,
askotan irabazi,
guztiak ez errez;
jenio geitxo zendun,
makalik ezer ez.

7 Zure ogibidea
mendipeko lana,
ortan igaro zendun
zuk bizitza dana;
berez ez baita jexten
zerutikan mana,
bazendun izerdia
galanki emana,
munduan bizitzeko
zedorri ta ama.

8 Nola erritik kanpo
alaxe errian,
garbi mintzatzen ziñan
plazaren erdian,
bertsotarako zendun
taju ederrian;
senti zendunik jaso
gaberik gordian,
maltzur-kutsurik etzan
zure arpegian.

9 Aitonak utzi zizun
kantuzko dotia,
etziñan izandua
gauza arlotia,
bertso ederra pranko
bazendun botia;
biotzez opa zaizu,
Bautista maitia,
Goikoaren altzoan
gozo egotia.

10 Gogoz saiatu ziñan
plazatikan plaza,
lore ederrez jazten
bertsoen baratza;
bukatu zan zuretzat
bizitza garratza,
orain zuretzako da,
Bautista Ondartza,
Jaun onak eman dizun
leku aberatsa.

Lazkao-Txiki zana

Lazkao-Txiki zanari, 1964-ko abenduaren 13-an Gipuzkoako txapela Tolosan irabazi ondoren, bi bertso auek bialdu nizkion:

Nere biotza bertsoz geiago
ez ditekelako goza,
nere barruan senti dedana
ez naiz agertzeko lotsa.
Ai, Joxe Migel, zein xamurra dan
zure aotiko otsa!
Piztu zenduan euskera eta
argitu dezu Tolosa.

Arrokerizko kutsurik gabe
mintzatzen zera beti zu,
apaltasuna berbera bezin
geldiro eta eztitsu.
Argatik doai berezienak
Jaunak ixuri dizkitzu,
esker beroko zorion itz bat
zeñek opako ez dizu?

Onako au izan zan beraren erantzuna:

*"Lazkau'n, 1964-gna Lotazilla'ren 23an.
Teodoro Jaunari:*

Adiskide jatorra: artu det zure karta edo eskutitza eta asko poztu naiz zure nereganako oartzeagaitik, eta milla esker zori onakgaitik, eta beste oinbeste zuk bialdu didazun bertso berdiñ gabe oiegaitik. Len bannen aditzera Basarrik esanda, eta oraiñ ikusten det ona zerala. Beste gabe, eta beiñ da berriro milla esker emanaz, eta besarkada estu batekiñ, agurtzen zaitu zure lagun:

Jose Migelek

(Urte berri eta Gauon zoriontsuak.)

*Len ere bazan bat Zizurkillen
bañan aspaldian ill zan,
mundu ontatik juana da beintzat
naiz guretzat bizi izan,
ta ikusten det bertso sorooan
sustraiak nola dabiltzan.
Eta díozu Tolosan nola
entzuten egondu ziñan,
nik jakiñ banu zu an zeundela
lotsaz ixilduko nitzan."*

Mutikoa eta aitona

Mutikoa:

Baldin munduan bear bagaitu
bizia eman zigunak,
orain mutiko geranak gero
izango gera gizonak.
Gure etxean larogei urte
gaur bete ditu aitonak,
amar urteko bere billoba
biotzetik nai dionak,
belarritikan tiratzen dio,
artu nere zorionak!

Aitona:

Eskerrik asko, nere billoba,
biotz-animen barrendik,
agertzen dezun naitasun orrek
poz aundia ematen dit.
Zuk urte asko igarotzea
gerta diteke oraindik,
bañan aitonak luze baño len
joan bear du emendik,
eta esango ditudan itzak
gogoan artu gaurdandik.

Mutikoa:

Ez jakin arren noiz arte diran
munduko gure bizitzak,
bitarte ontan argitasuna
bearko dala deritzat.
Txit aintzakotzat artzeko nola
diran berorren jakintzak,
utsak izango eztira orain
ausnartuko ditun itzak,
ene aitona, esan bezaizkit,
pozikan entzungo dizkat.

Aitona:

Mundu onetan aurrerapenak
dira gero eta geigo,
oien bitartez bearbada zu
nora etzindezke igo?
Bañan irixten bazera ere
besterik baño aundigo,
entzun, billoba, animatikan,
aitonak onela dio:
kristautasunik ezpada oiek
eztute asko balio.

Mutikoa:

Ainbat urteko aiton on batek
ematen ditun berriak
nola eztira izango ondo
ulertutako egiak?
Baldin azkenik lur jotzen badu
gizonen arrokeriak,
kaltetan dira askoren presa
ta arreta geiegiak,
nere munduko jokabideaz
zabal bezaizkit begiak.

Aitona:

Ara azkenik: ez aztu iñoiz
betiko eztala lurra;
gure bizitza, luzeen ere,
oso da gauza laburra.
Kristau zintzoak bezela beti
gorde Jaunaren beldurra,
gure oiturak eta izkuntz au
sartu biotzan barrura,
ta izan beti merezi duten
arreta eta ardura.

Ardoa

1 Zuztar batetik zabaltzen bada
osto ederdun agatsa,
emaitza ere berekin dala
ziurra bezin zeatza.
Urte bat ere utsegin gabe
emankor zeraden matsa,
zeru ta lurren doai bikañez
zeñen leku aberatsa
lendabiziko zu sortu ziñan
Paradisoko baratza.

2 Bere zumoa lendabizitik
degu gozo eta bigun,
gero ontzian biurtzen zaigu
indar ikaragarri-dun.
Neurririk ezak guztiontzat zer
ondamendi dakarkigun
esan bearrik ez egon arren
lendik nola badakigun,
entzun dezagun berriro ere
berak zer esaten digun.

3 “Ni naiz ardoa, edarietan
printzesa danen erregin,
munduan nago gizona iñoiz
tristuraz galdu ez dedin.
Oso indartsu zeralakoan
ez nere aurka ler egin,
nigan baitaukat edozein aixe
galtzeko ainbat errekin;
poztu bai, bañan, jostatu gabe
ibili zaitez nerekin”.

4 O edari txit maitagarria,
on egiten dakizuna,
bizi pozaren espiritua
norbaitek eman dizuna.
Bear bezela bete dezazun
daukazun eginkizuna,
biotz erditik erregu batez
au da eskatzen zaizuna:
zure graziaz serbitu eta
bedeinka zazu gizona.

Ez bedi Euskadin azaleko gizonik

I Munduan gizon asko
gaude txit aunditzat,
itxura dotoreko
geran zugaitzak;
bañan joak bagaude
barrendikan gaitzak,
utsa dirade gure
azaleko itzak.
Olako jakintzak
nork dauzka aunditzat?
Gure ustez beintzat
ezin artu aintzat,
ostoak dira zugaitz
oien emaitzak.

2 Baita ere badira
lurrean jarriak
gizon zintzoak eta
egi zaliak,
arrokerizko azal
zuririk gabiak,
naiz txiki ta apalak
biotz emaliak.
Oien landariak
dauzkan arnariak
dira janariak
osasungarriak;
ogi biurtzen diran
gari aliak.

3 Biotzean dutenak
Jaunaren agintza
lurrean ugaritu
al bagenitza!
Betor begietara
izarren dizditza,
eta biotzetara
gau garbiko intza.
Zentzuzko bizitza
dutenen jakintza
bearrez gabiltza;
mintza bedi, mintza,
biotz garbia duten
gizonen itza.

4 Gure zugaitz au alper
ez dedin agertu,
ostoz baño geiago
prutuz edertu.
Piku arbolarena
ez dedin gertatu,
Jauna, gure bizitzak
zuk eskutik artu.
Onez begiratu
ta zentzuz indartu,
arren bedeinkatu,
ez dedin igartu,
zure itzak ez beza
madarikatu.

Martxoak ogei ta bosta

1 Gure buruak baldin oroipen
gozozaleak badira,
martxo illaren ogei ta bosta
guztiz gogoangarri da.
Nazaret'eko neskatxatxo bat,
bere izena Maria,
Jaungoikoaren bildurrekoa,
apala eta garbia,
egunez lana eginda gabaz
otoitz sutsuan ari da.

2 Giro gozotan dago lur ura
udaberria nola dan,
Nazaret'eko landa basoak
gogotsu daude loratan.
Aien erdian aipatutako
lili au bere loratzen,
Jaungoikoaren Seme bakarra
gizon egitekoa zan,
mundu arroak baztertutako
erri txiki txoko artan.

3 Ego epelak lore usaia
darama baztarretara,
otz garbipean lurra paketsu,
gaurikan ederrena da.
Une oietan neskaxa oni
ezer uste gabe, ara:
dizdiz aundiko argitasunez,
bildurgarrizko erara,
goi aingeru bat sartu zitzaion
bera zegoan gelara.

4 Ixil onetan bere abotsak
betetzen du etxepea,
esanez: "Agur, neskaxa garbi,
goiko eskerrez betea!
Ez bildur izan, beraz, Maria,
bego zurekin pakea!
Neri dagokit Jaunarengandik
zuri berri ematea,
entzun zaidazu arretaz zer dan
beraren borondatea.

5 Zuztar Otoitz berotan zu deika zauden
zeru goi eder artatik,
itxaro dezun poz aundiaren
berri gozoa dakarkit.
Goiko Jaun arek gizadiari
dion errukiagatik,
bere Semeak jaio bear du
neskaxa garbi batetik,
zu zera Berak aukeratua
emakumeen artetik".

6 Zalantza gabe sinistatzen du
Mariak orain entzuna,
baiñan Jaunagan bakarrik dauzka
bizia ta osasuna.
Ama izanik nolatan gorde
ziteken birjintasuna,
gauza guztien gaiñetik au zan
berak jakin bear zuna,
entzun dezagun orain zentzudun
neskatx onen erantzuna.

7 “Nola ez dizut sinistatuko
goitikan dakarkizunik?
Baiñan gauza bat jakin nai nuke
eta galdetzen dizut nik:
Egillearen esku bakarrik
nagon neskatxa izanik,
ez bainaiz iñoiz iritsi izan
ezagutzera gizonik,
beraz nerekin nola diteke
olako gertakizunik?”

8 “Eziñezkorik nola etzaion
ni bidali nauanari,
kutsutu gabe birjin ta ama
izango zerade, Mari.
Beraz gai ontan zугan ezer ez
dagokio gizonari,
Goiko Jaunaren Espirituak
egingo baidizu argi,
bere bitartez esan dedan au
gertatuko da mirari.

9 Zuztar Oso berezi izan dalako
goiko Jaunaren gogoan,
begira beste emakume bat
lenago nola dagoan:
naiz urtez oso aurrera izan
ta itxaropenak joan,
bere erraian emaitzik gabe
antzu zana luzaroan,
zure lengusu Isabel ere
aurdun dago zartzaroan”.

10 Ixildutzen da goi aingerua;
berri au entzundakoun,
ixilik dago lurralde dana
gau eder aren moduan.
Ixiltasun au bezin ixilik
izan ote da munduan?
Gizadi dana Mariaren zai
nola erantzungo duan,
neskatxatxo au era onetan
mintzatuko da orduan.

11 Apaltasunez auspezturikan
jartzen dan une berean,
biotz barrutik eskeintza onek
igesitzen dio egan:
“Egillearen mende ez dagon
gauzarik nola ez dedan,
bere mirabe naiz; ta, itz oiek
agertzen didaten eran,
Goiko Jaunaren borondatea
gertatu bedi neregan”.

12 Ongi dakigu lendabiziko
gurasoen pekatua:
Paradisoan nola jan zuten
arnari debekatua,
deabru beltzak zirikatu ta
emakumeak artua.
Zorigaitzean mizto gaiztoko
suge madarikatua,
zure pozoiak goitar bizitza
utzi zuen igartua.

13 Era orretan ikusirikan
Jaun onak bere egintza,
ondorenari begiratuta
errukiz zitzaigun mintza:
“Emakumeak ukatu badit
goralmena eta aintza,
emakumeak ekarriko dit
pekatu onen ordaintza”.
Zorionean agindu arek
emen bete zuen itza.

14 Gure Jaunaren biotz zabala
ikusten degu garbiro,
ez bazan Bera lurrera jetxi
gu ezin zerura igo.
Pozoi gaiztoak gizonari len
lurra mikaztu badio,
errukiaren gozotasuna
ordu onez dakarkio,
gau eder onek ikusi zuen
zerua ezti jario.

Gure bizitza eta igertzen degun ondorena

1 Euskal Erriko lur maite ontan,
mendi ta zelai artean,
amak munduko argira eman
ginduzen egun batean.
Oso gaztetxo giñan oraindik
azkeneko gerratean,
ta bereala lotuak izan
giñan lanaren katean,
orain urteak sartu gaituzte
zartzaroaren atean.

2 Gure munduak naiz ez oraindik
guretzat aterik itxi,
gure garaiko zenbat ez dira
adiñ ontara iritxi?
Aurrerantzean ez jakiñ arren
zenbat gindezkenik bizi,
eta oraindik geren buruaz
zerbait gerala iritzi,
obea degu arrokeriaz
ez egitea irrintzi.

3 Irurogei ta bostgarrenean
ongi sarturik gabilitza,
bañan oraindik buruan degu
aspalditxoko oroitza.
Garai danetan izan da noski
ezbearra eta gaitza,
gurean ere igaroa da
gozoa etzan ekaitza,
beartsuentzat ez da mundu au
Paradisoko bizitza.

4 Garai askotan ez bagaituzte
itunaldiak garaitu,
eskerrik asko izan degula
biotzak nola alaitu.
Beraz ekaitzak gurekin ere
ez dute beti jarraitu,
neguak ere udaberria
ondoren izaten baitu,
eguzkiaren argitasunak
gozatu izandu gaitu.

5 Gure denboran zer aurrerapen
egin dun giza jakintzak
esan bearrrik ez dago noski,
bixtan dauzkagu egintzak.
Sekulan salto aundiagorik
egin ote du bizitzak?
Neretzat iñork galdera ori
egingo baluke beintzat,
agian baietz izan diteke,
bañan nik ezetz deritzat.

6 Zalantza gabe mesederako
asko egin da aurrera,
bañan uste det kaltean ere
egin ote dan au bera.
Zientzi gizon askok ez badu
aldatzen gaurko joera,
batzuek beren alegiñakin
jaso dutena obero,
egun batetik bestera dana
erori leike lurrera.

7 Denbora guztiz arriskutsuak
asko ditugu izanak,
bañan txit erne bear genduke
gaur munduan gabiltzanak.
Ugari baldin badira ere
amets gozo ta itz onak,
luze baño len ez bagerade
oso aldatzen gizonak,
naikoa kezka ematen digu
geroko etorkizunak.

8 Gizon argia aspalditxotik
igarririkan zegoan,
geren erruaz zer ondorena
iritxiko zan geroan.
Jakinduriak jokatu balu
giza maitasun beroan,
nola sortalde ala sartalde,
ifarrean da egoan,
gaur ezagutzen ez dan mundu bat
ezagutuko genduan.

9 Alaxen ere kaltetan degu
bildur geiegi sartzea,
obea degu bizi pozaren
alaitasun bat sortzea.
Beraz geroko etorkizuna
illundurikan jartzea
norbaitzuentzat izan diteke
itxaropena galtzea,
ta ez degu nai aleluiazko
argi ori itzaltzea.

10 Zabaldu bitez kristau biotzak
alkarrena maitekiro,
naitasun ori agertu bedi
iñoiz baño obekigo.
Gure barruan sortu dedilla
poz ta itxaropen giro,
al degun dana ongi egiñaz
goazen aurrera geldiro,
negu ondoren udaberria
iritxiko da berriro.

(1989)


Arkibidea

Sarrera	7
Iru erri maitagarri.....	9
Joxe Bernardo Otaño	11
Errekalde baserriari begira	20
Pedro Maria Otañori	24
Pedro Maria Otañori irurogei ta amabostgarren urte-urrenean (1985)	27
Karidade Etxea	30
Errekaldeko intxaur arbol igarrari begira	34
Iragorritarrak.....	36
Juan Joxe Ugarte	39
Elizondotar senideak	48
Gure aitona, amaren aldekoa	57
Millan Salaberria "San Migel Txikia"	61
Pantxikaenea	74
San Millango markesen bizikera	78
Karlisten gerrateko aitonak.....	83
Pello Errota	87
Ernio mendi eta San Juan Txiki.....	93
Korrika apustu bat	97

Adunibar baserriko gertakari txiki batzuk.....	101
Emiliano Bengoetxea	105
Indianoak	108
Aita Julian Lizardi	115
Kanpaiak	124
Soñujole atsegin bat	127
Zarateko benta	130
Negu gogor bat	138
Kontxexi	141
Iru gizon xeble	150
Pelotari eta bertsozala.....	153
Pelota-jokoa.....	157
Kamioa	161
Mixiolariak	164
Aduna	171
Adunako Joxe Mariren ateraldiak	175
Zizurkilko Arantzazuko Amaren eliza	178
Xegunda Elolari	180
Euskera eta euskaldunak	182
Sagarra eta sagardoa	185
Bertsolaritza	191
Xalbador bertsolari	195
Uztapideren eriotz ondoren	197
Bautista Ondartza zana	199
Lazkao-Txiki zana.....	206
Mutikoa eta aitona.....	208
Ardoa	211
Ez bedi Euskadin azaleko gizonik	213
Martxoak ogei ta bosta.....	216
Gure bizitza eta igertzen degun ondorena.....	221



1051076
G-128/92



Liburu onek atal oso ezberdiñak ditu, batzuk itz-lauz eta besteak bertsoan moldatuak. Baiña egillearen asmoa garbi dago: bere jaioterriaren kondairaz itzegitea.

Ez, ordea, paper zaarretatik atera ditekenez kondaira, jendearen buruan gorde eta gure lagunarteetan itzbidea ematen duana baizik: gertaerak, oiturak, pertsonak, apustuak, eztabaidak, lanak...

Erri ori Zizurkil da, Joxe Bernardo eta Pedro Maria Otañoren jaioterria alegia. Bertsolari aundi aien maisutasuna leialki aitortzen du Mujikak liburuaren izenburuan: *Errekaldeko intxaurraren itzala*. Intxaur ura baitzan Pedro Mariren Arjentinako ametsak eta erri-miñak biltzen zituana. Baita ere aren bertsogintza dotorearen iduria ere.



Zizurkilko Udalaren
laguntzarekin argitaratua.

ISBN 84-89080-35-6



9 788489 080355

G-